



Soziolinguistika

aldizkaria



BIZINDAR DIGITALA



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

BIZINDAR DIGITALA





● **HELBURUA**

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hauentzat bere jarduerak esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● **EDUKIA**

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaión disziplinartekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren lanek hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● **ARGITARATZAILEA**

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● **ZUZENDARIA**

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● **ARGITALPEN BATZORDEA**

Bartzordekideak

Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
esti.amorrortu@deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak)
inmunoa@ehi.ikastola.es

Beñat Garaio
benat.garaio@gmail.com

Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
paula.kasares@unavarra.es

Eneko Gorri (Biarritzko Herriko Etxeko euskara teknikaria)
euskara@biarritz.fr

Koordinatzailea
Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
b.uranga@soziolinguistika.es

● **HARPIDETZA ETA SALMENTA ARDURADUNA**

Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.es
943 592 556

● **ALDIZKARIAREN DISEINATZAILEA**

Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● **HARPIDETZAK**

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitetz harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● **WEBGUNEAK**

Aldizkariariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.es/bat** helbidean Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.



HARREMANETARAKO

Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolinguistika.es
bat.aldikaria@soziolinguistika.es

943 592 556

ISSN 2659-5176 / ISSN-L 1130-8435
LEGE GORDAILUA: SS120/90
INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Xabier Alegria, Aitzol Astigarraga, Josu Aztiria, Xabier Cañas, Beñat Garaio, Maite Goñi, Andras Kornai, Ainize de Madariaga, Aitor Montes eta Josu Waliño

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikulua bi artikulua ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

idatzi baldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.




Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

PAPE NIANG
**HASIERA
BERRI BAT**

Mikel Garcia Idiakez



ARGIA

**LIBURUA
SALGAI!
14€**

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS



BIZINDAR DIGITALA

> **HITZAURRE GISA**

Belen Uranga **007**

01. Hizkuntzen Heriotza Digitala

Andras Kornai **011**

02. Euskararen bizitasun digitala ispiluaren aurrean

Josu Waliño **035**

03. Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean; Euskararen Aholku Batzordearen begirada

Maite Goñi **049**

04. Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean

Aitzol Astigarraga eta Xabier Cañas **059**

05. Euskara ingurune digitalean hedatzeko ditugun hiru erronka: zaintza-sistema, adimen artifiziala eta lankidetzat teknologikoa

Josu Aztiria **081**

GUREAN ATALA

Komunitatea hats bahiturik. Hitzunaren trauma:
Diagnosia eta paliatiboak

Ainize de Madariaga **099**

Arreta soziosanitarioa ele ofizialetan eskaintzeko estandarren
aukera Euskal Herrian

Aitor Montes **125**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikulua akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikulua hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharra. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikulua bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikulua amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epea. Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



Teknologia digitalen orokortzearekin batera, aurreikusi gabeko aldaketak gertatu dira hizkuntza-komunitateetako komunikazio-moduetan; ondorioz, hizkuntzen egoera soziala aztertzekeo teorietan eta kudeaketaren proposamenetan ere taxuzko egokitzapenei bide eman behar izan zaie, halabeharrez.

H. Giles, R.Y. Bourhis eta D.M. Taylor-ek Bizindar etnolinguistikoaren inguruan euren artikulu ospetsua argitaratu zutenetik (“Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations”, *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*, 1977) munduko hizkuntzen egoera soziala aztertzekeo bizindar etnolinguistikoarena erabiltzen den kontzeptu ohikoena da. Ibilbide luze eta egokitzapen asko dituen adiera horretan oinarritu ditu bere iragarpenak, esate baterako, UNESCOk, arriskupeko hizkuntzak identifikatzeko eta “galtzeko arriskuaren” arabera sailkapena egiteko. Horren arabera, eta egileen artean iritziek ñabardurak izan ohi dituzten arren, munduko hizkuntzen erdia inguru galtzeko

arriskuan dagoela onartu ohi da, nahiz eta, arrisku hori ez den kasu guztietan maila berekoa.

Aktibitate digitala aztertzen dutenek, ordea, ingurune hori hizkuntza gutxituetako hiztunengan bereziki eragiten ari den aldaketekin kezkatuak, iragarpen ezkorragoak egin dituzte: euren azterketen arabera, esparru digitalean bizitzarik ez duten hizkuntzek ezingo diote aurre egin etorkizun hurbileko hizkuntzen arteko lehiari. Eta, horrela, komunitateen bizindar linguistikoaren kontzeptutik hizkuntzen bizindar digitalera jauzi egin dute, etorkizunaren iragarle zorrotzagoa delakoan.

Esate baterako, Andras Kornairen ustetan, hizkuntza-aniztasunaren etorkizuna oso kolokan dago kontuan izanda %5ak soilik egin duela jauzi mundu digitalera. Hungariako ikertzaile horrek munduko hizkuntzen heriotza masiboaren aurrean gaudela baieztatzen du, bizindar linguistikoaren inguruko neurketarako ohiko metodoa eremu honetara egokituz.

BAT Aldizkariko 111 zenbaki honetan berriaz landu nahi izan dugu gaia zenbait adituren lankidetzarekin. Hasteko, Iñaki Alegria EHUKo irakasleari eskerrak eman nahi dizkiogu, bera izan baitzen monografiko honen inguruan lehen iradokizuna egin zuen laguna. Ideia horretatik tiraka, eta Andras Kornairekin harremanetan, Euskal Herriko adituen iritzien bila abiatu ginen 2018 udazkenean, Soziolinguistika Jardunaldian euskararen bizitasun digitalaren inguruan hausnartzeko eta eztabaiatzeko. Hala, urte horretako azaroaren 6an aipatu jardunaldian eskaini zituzten hitzaldien inguruan artikulua idazteko eskatu genien orduko hizlariei, zenbaki honetako muina osatzeko.

Lehen artikulua **Andras Kornaik** aurretik idatziriko testuaren egokitzea da, Iñaki Alegria, Beñat Garaio eta gu geuren artean landutakoa. Aipatu bezala, egin zuen ikerketa digitalen araberako sailkapen bat proposatu du egileak, eta, aitortu behar da, iragarpena oso ezkorra den arren (7.000 hizkuntzetatik soilik 250 dute testuinguru digitalean garatzeko aukera momentuz), arreta bereziarekin aztertze modukoak direla bere proposamenak.

Euskal Herriko zenbait adituk ere parte hartu dute, hala iazko jardunaldian nola oraingo monografiko honetan ere. Esate baterako, **Josu Waliñok** idatzi du “Euska-

raren bizitasun digitala ispiluaurrean” izeneko artikulua, *PuntuEUS* proiektuaren inguruan azalpenak emanez. Euskararen bizitasun digitalari buruz aritzeko kontuan izan behar dira, nola ez, bai eskaintza, alegia, zein den erabiltzeileek eskura dituzten euskarazko baliabide teknologiko/digitalak, eta, benetako garrantzia duena, hiztunok hizkuntzen arteko lehian zein den euskarazkoaren alde egiten duten eskaria. Bi aldagai horiek ehuntzen dute, hain zuzen, hiztun-komunitatearen eta euskararen sendotasuna ingurune horretan. Horrela, presentziaren aldetik, ikusentzunezkoen esparruan euskararen lekua proportzionalki oso txikia dela baieztatzen du egileak, apenas baitago esparru horretan edukirik euskaraz. Nolanahi ere, bere hitzetan adieraztearren, benetan garrantzizkoa izango da “euskarazko edukien eta tresnen eskaintza zabaltzea eta bideragarri egingo duen erabiltzaile komunitate aktiboa garatzea”. Alegia, oinarrian dagoena da komunitatea sendotu beharra.

Ondorengo artikuluan Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordearen “be-girada” eskaini du **Maite Goñik**, erakus-teko zein izan diren komunitate bezala euskara ingurune digitalean sustatzeko aukerak. Komeni da gogora ekartzea dagoeneko 2016. urtean hainbat eta hainbat gomendioz osatutako liburuxka argitaratu zuela batzordeak, esparru horretan euskararen presentzia areagotzea helburu zuenak. Artikuluan, beraz, gomendio horien berri eman eta etorkizuneko lan-il-doak iradokitzen dira, zeinen artean bereiziko genituzke, besteak beste, datuak biltzeko ikerketak egitea, Interneten euskarazko edukiak sustatzea, euskarazko tresnak sortzea eta euskarazko bideo-jokoak ekoiztea.

Aitzol Astigarraga eta **Xabier Cañas** dira euskal wikipediaren berri eman diguten egileak “Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean” izeneko artikuluan. Ez da hutsala hizkuntza gutxitu bateko wikipediaren erabilera neurtzea. Entziklopedia hori sortzeko-prozesuan eta baita erabiltzaile gisa ere, talde sendoa beharrezkoa da bizitasun handia eskatzen baitu horren garapenak. Eta taldearen sendotasun horren isla da guztien artean euskarazko wikipedia 29. postuan egotea. Artikuluan egileak entziklopedia digitalaren ezaugarriez aritu da, edukiaz, elikatzen duen komunitateaz eta baita egun dituen zailtasun eta erronkez ere. Azpimarratzekoa da kasu honetan ere, wikipediaren sendotasuna eta hiztun-komunitatearena erabat loturik daudela, eta, are gehiago, hemendik aurrera. Izan ere, erronka nagusia eraginkortasuna bilatzea izango da, alegia, beste eragileekin elkarlana sustatzea.

BAT aldizkariko *Bizindar digital* monografiari amaiera emateko **Josu Aztiria** Elhuyar-eko teknikariak idatzi du “Euskara ingurune digitalean hedatzeko ditugun hiru erronka...” artikulua. Bertako ideia nagusienetakoa da euskararen bizitasun digitala baliabide urriko beste hizkuntza asko baino hobea izan arren, ez dagoela arriskutik kanpo. Eta bere aldarria da azkar baino lehen heldu behar zaiola erronka teknologiko eta sozial horri. Horregatik, bere iritzian, ezinbestekoa da komunitate bezala auto-

nomiarekin ibiltzea, enpresa teknologiko erraldoiek euskararen aldeko garapen teknologikoa egingo dutela itxaron gabe; guk geuk hiztun-komunitate gisa, egin beharko ditugula, alegia, euskarari dagozkion eta behar dituen egokitzapenak.

Aldizkariaren **GUREAN atalean** bi artikulua bildu ditugu gai monografikotik harago. Lehenean, **Ainize de Madariagak** haur euskaldun jakin batek haren lehen hizkuntza bortxaz uztera derrigortzearen ondorioz zer-nolako trauma jasan duen aztertu du. “Komunitatea hats bahiturik. Hiztunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak” izenburuarekin Euskal Herriko iparraldeko lekukotasuna dakar egileak, baina jakina da Euskal Herriko beste edozein lekutan ere izan zitekeela gertakaria, akaso, beste garai batzuetan. Hizkuntza hegemonikoan eskolatu eta norberarena uztera behartzeak eragin ditu ondorio psikologikoak, eta horien oinarritzko arrazoen inguruan azalpenak eta balizko sendabideak ere proposatu ditu egileak.

Zenbakiari amaiera emateko **Aitor Montes** sendagileak idatzi du “Arreta soziosanitarioa ele ofizialetan eskaintzeko estandarren aukera Euskal Herrian” artikulua. 2018an argitaratu zuen BAT Aldizkariak “Osasungintza eta euskara” monografikoa, eta bertan aurkeztu zuen Montes medikuak berak hizkuntza eta arreta sanitarioaren arteko garrantziaren ikuspegia; oraingoan gaiari jarraipena emanez, Kanadan sortutako ebaluaziorako estandarrak aztertu ditu, baita euskararen beraren normalizazioan izan dezakeen eragina ere balioan jartzeko.

Irakurlearen interesekoa izango direlakoan eskaintzen ditugu artikuluoak BAT aldizkariko irakurleei. •



bat dossier

Hizkuntzen Heriotza digitala*

Andras Kornai

*Computer and Automation Research Institute, Hungariako Zientzien Akademia,
Budapest, Hungaria*
andras@kornai.com

Itzultzaile eta editoreak: Iñaki Alegria, Beñat Garaio, Belen Uranga

Sarrera-data: 2018-11-10 / Onartze-data: 2018-12-15

Laburpena. Gaur egun munduan hitz egiten diren 7.000 inguruko hizkuntzen artean, 2.500 gutxi gorabehera galzorian daudela jotzen da. Adostutako zenbaki hori oso zalantzan jarri dugu artikulu honetan, uste baitugu heriotza-arriskuan dauden hizkuntzen kopurua behetik kalkulatuta dagoela, zeren-eta soilik hizkuntzen %5 baino gutxiago igo daitezke esparru digitalera. Artikulu honetan arrakala digitalak sortutako hizkuntzen heriotza masiboaren ebidentzia aurkeztuko dugu. • **Hitz gakoak:** *Bizindar linguistikoa, heriotza digitala, identitate linguistikoa*

Abstract. Of the 7,000 or so languages spoken in the world today, it is estimated that around 2,500 are at risk of extinction. In this paper, we question this generally-accepted figure, since we believe that the actual number of languages at risk of dying out is much higher, given that less than 5% of all languages can be uploaded to the digital environment. We present evidence of the mass language death generated by the digital divide. • **Key words:** *Linguistic vibrancy, digital death, linguistic identity.*

* Testu hau 2013an argitaraturiko "Digital Language Death" artikulua egokitzen da. Jatorrizko bertsioa (en) hemen topa daiteke: <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056>. Ohartu behar dugu gainera itzulpenean jatorrizko hainbat aipu, pasarte eta zehaztasun matematiko laburtu edo kendu direla, artikulua ulermena eta estaldura kaltetu gabe (Itzultzaile eta editoreen oharra).

SARRERA

I Hizkuntza izaki bizidun gisa ikusten duen metafora biologikoa Herder garaitik dator gutxienez (Morpurgo-Davies A, 1998) eta argi adierazia izan zen, esate baterako, *The Descent of Man* Darwin-en liburuan:

The formation of different languages and of distinct species, and the proofs that both have been developed through a gradual process, are curiously parallel. (...) We find in distinct languages striking homologies due to community of descent, and analogies due to a similar process of formation. The manner in which certain letters or sounds change when others change is very like correlated growth. (...) Languages, like organic beings, can be classed in groups under groups; and they can be classed either naturally according to descent, or artificially by other characters. Dominant languages and dialects spread widely, and lead to the gradual extinction of other tongues. (Darwin C, 1871, 423 or).

Aurkakoak izan dituen arren (Frank RM, 2008), metafora biologikoa modu zabalean onartua izan da bai hizkuntzen heriotzen inguruko ikerkuntzan (Nettle D, Romaine S, 2000, 243 pp. eta Crystal D, 2002; 210), eta baita ekintza politikoaren gidaritzan ere (Ad hoc technical expert group, 2004). Artikulu honetan *igoera digital* (*digital ascent*) fenomenoaz aztertuko dugu, hain zuzen, hizkuntzak komunikazioaren espazio digitaletan sartzen direnean gertatzen den fenomenoaz. Metafora biologikoa zabal dezakegu, hizkuntzen eklosioaz eta metamorfosiaz mintzatzeko, baina gutxi aurreratuko genuke horrela, izan ere, hizkuntzen bizitza-zikloan, hizkuntzen etorkizuneko egoera post-digitalaz espekulatu besterik ezin baita egin.

Artikulu honetan, bizindar linguistikoaren (*vitality*) inguruko ohiko metodoak eremu digitalera eraman ditugu. Lehen atalean, irizpideen transferentzia egin dugu, hartzunen populazioari begiratu ordez, online populazioari begiratu, eta ahozko erabilera indartsuaren ordez, online erabilera indartsua behatuz... (ikus *Oinarria* atala). Bigarrenetan, online iturburuetatik datu-bilketa egin dugu, aldagai esanguratsuak antzematuko, edo gutxienez aldagai horietarako hurbilpen onargarriak (Ikus *Materialak*). Hirugarrenetan, lau kategoriako sailkapen-sistema bat ezarri dugu: *thriving-oparo* (T), *vital-bizi* (V), *heritage-ondare* (H), and *still-motel* (S). Kategoria horiek bat datoz nagusiki hizkuntzari dagozkion erabilera digitalaren neurriekin, eta *hazi* prototipikoak ezarri dira azalpenerako (ikus *Metodoak*). Azken atalean, hainbat sailkatzaile automatiko nola eraiki diren aztertu da, hazieta oinarrituta eta gainontzeko datuetara aplikatuta (ikus *Emaitzak*). Lau urratseko metodo hau sendoa dela frogatu

Aurkakoak izan dituen arren, metafora biologikoa modu zabalean onartua izan da bai hizkuntzen heriotzen inguruko ikerkuntzan, eta baita ekintza politikoaren gidaritzan ere. Artikulu honetan, bizindar linguistikoaren (*vitality*) inguruko ohiko metodoak eremu digitalera eraman ditugu.

**Garai digitalean,
hizkuntzaren
heriotzaren
seinale goiztiar
horiekin batera
beste ezaugarri
batzuk ere batzen
dira. Mundu
digitaleko
funtzio-galerak
eguneroko
komunikazio-
funtzioetako
galera ukitzen
du.**

da, eta hautatutako *hazietatik* independentea (ikus *Eztabaida*). Ondorioetan, emaitza nagusiak interpretatuz adierazi da hizkuntzen artean gehiengo nagusia (8.000 baino gehiago), egoera *motelean* daudela, hau da, ezin dutela *igoera digitala* burutu.

OINARRIA

I

Hizkuntza bat ez da erabat hilko azken hiztunaren heriotza gertatu arte, baina badira hiru seinale argi, haren berehalako heriotza aurretik antzemateko. Lehen, hizkuntza jakin horren funtzio-galera da, beste hizkuntzek eremu funtzional osoak -merkataritza, esaterako- hartzen dituztenean behatu daitekeena. Bigarrena prestigio-galera da, bereziki argia dena belaunaldi gazteen hizkuntza-jarreretan antzematen bada. Eta hirugarrena, konpetentzia-galera da, sasi-hiztunen agerpenarekin islatzen dena; hiztun horiek aurreko belaunaldiaren hizkera uler dezakete oraindik, baina gramatikaren bertsio izugarri sinplifikatua darabilte. Fenomeno hori luze eta zabal dokumentatu da, adibidez menomini hizkuntzan (Bloomfield L, 1927), Eskoziako gaieran (Dorian NC, 1981; 202pp) eta dyrbal hizkuntzan (Schmidt A., 1985).

Garai digitalean, hizkuntzaren heriotzaren seinale goiztiar horiekin batera beste ezaugarri batzuk ere batzen dira. Mundu digitaleko funtzio-galerak eguneroko komunikazio-funtzioetako galera ukitzen du (e-posta, testu-mezularitza), esate baterako, merkataritzan edo tramite ofizialetan. Prestigio-galera argi antzematen da “webean ez badago ez da existitzen” leloaren bitartez, eta konpetentzia-galerak hizkuntza horretan natibo digitalen kopurua mugatzen du (Prensky M, 2001). *Igoera digitala* honen alderantzizko prozesua da, eta ondoren zehazten den kasuetan gertatzen da: hizkuntza jakin batek gero eta funtzio berri gehiago eskuratzen duenean, alde batetik, eta, bestetik, haren hiztunek gero eta konpetentzia digital handiagoa eskuratzen dutenean.

Hizkuntza baten galtze-arrisku larria edo heriotza bere ohiko adieran oso ikertua izan da, eta haren aurkako borroka ere zabalduta dago. Gaur egungo EGIDS sailkapenak (Lewis MP, Simons GF, 2010), Fishman-en GIDS sailkapenak (Fishman JA., 1991; 431pp) 13 kategoriatan¹ ezartzen ditu: (0) Nazioartekoa, (1) Nazionala, (2) Eskualdekoa, (3) Komunikazio zabalekoa, (4) Hezkuntzako, (5) Garapenean, (6a) Indartsu, (6b) Arriskuan, (7) Galeran, (8a) Hilzorian, 1a iraungia (8b), Lozorroan (9) eta Iraungia (10). 7-8b arteko hizkuntzak galzorian sailkatzen ditu Unescok (Mosley C., 2010), eta 9-10 taldekoak desagertutzat ematen ditu. Sailkapen horren arabera munduko hizkuntzen artean soilik %17 desagertuta daude, eta %20a arriskuan (6b kategoria); beraz, geratzen den %63a osatzen duten hizkuntzak egoera onean daude, ziur asko go-

rabeherekin (zenbaki hauek Simons GF, Lewis MP, 2013, erreferentziatik hartuak dira). Datu horiek ohiko adieran zuzenak izan badaiteke ere (tradiziozko bizindar linguistikoa), gure ikerketaren aurkikuntza nagusiak ezeztatzen ditu, hizkuntzen gehiengo zabalak (%95etik gora) *igoera digitala* lortzeko ahalmena galdua baitu.

Azken hitzuna hil ondoren ere datu digital(izatu)ek irauten dutenez gero, ezin dugu lotu, besterik gabe, datu digitalen gabezia eta igoera digitalarekiko ezintasuna. Horregatik bereiziko dugu alde batetik *ondare digital* egoera (*digital heritage*), (L1) ikerketarako eta dokumentaziorako material digitala egon arren, bertako hitzunek komunikazio digitalerako erabiltzen ez duten kasuetarako; eta *moteltasun digital* egoera (*digital still*), inolako agerpen digitalik ez dagoen kasuetarako, ezta atzerriko (L2) erabiltzaileek sortua ere. Garrantzitsua da, zalantzarik gabe, hizkuntzak egoera *moteletik ondare* egoerara igarotzea, eta, zentzu horretan, ekimen anitz ari dira burutzen hizkuntza horiei dagozkien datuak eta metadatuak online jartzeko, eta baliabide lexikalak eta oinarritzko testuak atzigarri jartzeko web bidez (ikus *Materialak* atala). Emaizten atalean ikusiko dugu nola ekimen horiek goraipatzekoak izanda ere, ekarpen txikia egiten dioten galzorian dauden hizkuntzen indartze digitalari. Bere hezurdura gordetzeak edota museotan bere fosilak gordetzeak *dodoaren* desagertzea moteltzen ez duen moduan, tribuetako adinekoen herri-poesiaren errezitazioko ahots-fitxategiak online jartzeak ez du hizkuntza jakin horren igoera digitala suspertuko; *motel* zein *ondare* egoerako hizkuntzak digitalki hilda daudela esan daiteke, ez baitute hizkuntza-komunitatearen komunikazio-beharretarako balio.

Igoera digitala nahiko fenomeno berria da, bereziki hizkuntzen heriotzaz ikertzen den ehunka urtetako denbora-tartearekin alderatzen badugu. Hizkuntzen funtzionalitateen artean komunikazio digitala ez da gai garrantzitsua izan 1970eko hamarkada arte, orduan hedatu baitzen dokumentu digitalen sorrera. Ondoren etorri ziren Internet eta e-posta, 80eko hamarkadan, Web eta blogintza 90ekoan, eta wikiak eta SMSak 2000koan. Gure hurbilpena, hala ere, kontserbadorea izango da, izan ere, euskarri eta irizpide kontzeptual estandarrak domeinu digitalera eramane ditugu. Kontserbadore jokatzeko bide horretan, aldeko ebidentziaren interpretazioa egingo dugu ahal denean, alarma faltsuak ekiditeko asmoz. Elkartzen diren bost faktore hartuko ditugu kontuan: (i) hizkuntza-komunitatearen tamaina eta osiera demografikoa, (ii) hizkuntzaren ospea, (iii) hizkuntzaren identitate-funtzioa, (iv) softwareak emandako sostengu-maila, eta (v) wikipedia. Azken biak domeinu digitalari atxikitakoak dirudite lehen begiratuan, baina geroago ikusiko dugunez, adierazle egokiak dira ohiko irizpide bat berresteko, hizkuntzaren hedapen funtzionala, hain zuzen.

**Hizkuntzen
funtzionalitateen
artean
komunikazio
digitala ez da gai
garrantzitsua
izan 1970eko
hamarkada arte,
orduan hedatu
baitzen
dokumentu
digitalen sorrera.**

**Hiztun-multzo
handi eta
iraunkor batek ez
du igoera digitala
ziurtatzen;
horren ondorioz,
kontatu nahi
duguna
interakzio
digitalean
aritutako
populazioa da.**

1. Komunitatearen tamaina

Bizindarraren lehen neurria hizkuntza-komunitatearen tamaina eta belau-naldi-osaera da. Esparru digitalean gure interesa hizkuntzan dauden natibo digitalen kopuruan dago. Digitalizazioaren fenomeno berria den heinean demografiarekin lotura handia du: behin komunitate digitalen edukia sortzen hasita (mezuak bidaliz, blogetan idatziz edo wikiak osatuz), zentzuzko itxaropena izan dezakegu hurrengo belaunaldi gazteagoek jarraituko dietela, bereziki Facebook bezalako foroetan, zeintzuk gero eta erabiliagoak baitira gurasoen eta aitona-amonen aldetik euren umeekin harremanetan egoteko. Hortaz, nahikoa izango da konektatutako komunitatearen tamaina estimatzea, uniformeki osatuta dagoela onargarritzat hartuta.

Errolda ofizialetan jaso ohi da identitate nazionala eta linguistikoa, eta, horrela, taldeetako tamainak ezagunak dira; beraz, ez da zaila hiztun-kopuruaren tamainaren estimazioa egitea, hurbilpenaz bada ere. Hala eta guztiz ere, hiztun-multzo handi eta iraunkor batek ez du igoera digitala ziurtatzen; horren ondorioz, kontatu nahi duguna *interakzio digitalean aritutako populazioa*² da. Material digitalen kontsumo pasiboa, kanpoko hizkuntzetan egiten dena batez ere, ez da adierazgarria. Kaltegarria ere izan daiteke, Michael Krauss-en aipu ezaguna web mundura ere aplika daiteke: “*Television is a cultural nerve gas...odorless, painless, tasteless. And deadly*” (Cazden CB 2003: 53, 57).

Errolda ofizialetan edo bestelako ohiko behategietan interakzio digitalean aritutako populazioaren tamaina edota ospe digitala neurtzen ez direnez, beharrezkoa izan da bizindar digitaleko adierazleez baliatzea. Hizkuntza jakinetan gertatzen den komunikazio digitala neurtzea izan da benetako helburua. Metodo ezin hobea litzateke Skypez, telefonoz, Twitterrez, Facebookez eta bestelako komunikazioak eskuratzea eta dagokion hizkuntzaren proportzioa kalkulatzeko; gainera, gaur egungo teknologiak ebatzi du hizkuntza identifikatzeko arazoa; adibidez, Crúbadán proiektuak (Scannell KP, 2007) halako softwarea eraikitzen du hizkuntza bakoitzarako. Teknologia horrek edukiak ulertzeari uko egiten dionez, konfidentzialtasunaren inguruko arazoak minimizatuta geratzen dira, eta bizindar digitala neurtzea erronka metodologikoa da nagusiki: testuak anonimoak izan daitezen bidea landu behar da, komunikatzen diren pertsonen baimena ere behar da eta beste hainbat lan. Halako azterketa exhaustiboa osatu arte, eskuragarri den material publikoa erabili dugu (abantaila hori dugu: material horren egileek publiko egin dutenez materiala, konfidentzialtasunaren kezka aurrez ebatzi dugu). Online dagoen materialaren tamaina Zséder A, Recski G, Varga D, Kornai A, (2012) artikuluan dago azalduta, eta emaitzetako batzuk eskuragarri daude publikoki (<http://hlt.sztaki.hu/resources/webcorpora.html>).

2. Ospea

Bizindarraren bigarren neurgailu esanguratsuen ospea da. Komunikazio digitala bitarteko tradizionaleko komunikazioa baino ospe handiagokoa dela jotzen da unibertsalki, eta belaunaldien arteko disrupzioak igoera digitalaren alde jokatzen du, izan ere, belaunaldi berriek arestian aipaturiko bi baldintzak betetzen baitituzte: bitarteko digitalak izatea eta hizkuntza erabiltzeko interesa izatea. Digitalki indartsu diren hizkuntzetan hori gertatzen da ahalegin handirik gabe, ia automatikoki, baina belaunaldi berriek hizkuntza jakin hori ez badute “cool”tzat hartzen prozesua blokeatuta gera daiteke tenaza moduko batez: belaunaldi zaharrek ez dute erabilera digitala nahi, edo ez dira mundu digitalean sartzeko gai, eta gazteagoek ez dute mundu horretan erabiltzeko hizkuntza jakin hori aintzat hartzen. Adiera teknikoan gerta daiteke adin bateko hiztunak hiztun osoak izatea, gramatika eta hiztegiaren kontrol osoa mantentzen dutelako. Baina, aldi berean, eremu digitalerako hizkuntza desgokitzen jotzea. Horren adibide garbia da norvegiarren bi aldakuntza ofizialen kasua, Bokmål eta Nynorsk izenekoak. Urte-tarte luzean bi aldaeretakoa wikipediak neurri antzekoak izan dira, eta estimazio onenek (Rehm G, de Smedt K, 2012; 81pp) erabiltzaileen proportzioa 7:1 eskalan ezarri dute. Gaur egun, aldiz, Bokmål wikipedia lau aldiz handiagoa da, nahiz eta Nynorsk aldaerako wikipedia oraindik lehen 50en artean dagoen. Bizitza-maila handia duen populazio handi samarra du aldaera horretako komunitateak (ordenagailuen merkatu gain-kargatua eta abiadura handiko sareko zerbitzu handiarekin), eta erroldako wikipediako datuetan oinarrituta soilik Nynorsk litzateke igoera digitalerako hautagai argiena. Baina .no domeinua robot batez ustiatzen badugu dibergentzia handi bat agertzen da: 1.620 milioi hitz agertzen dira Bokmål aldaerarako eta 26 besterik Nynorsk-rako. Orri ofizialak (gobernuarenak eta administrazio lokalarenak) bi aldaeretan daudela kontuan hartzen badugu, orduan erabiltzaileek sortutako Nynorskerazko edukiak %1era ez dira heltzen. Nahiz eta hizkuntza-politika ofiziala ondo orekatua izan, Norvegiako herritarrek dagoeneko bozkatu dute euren blog eta txioen bitartez: soilik Bokmål aldaera ari dira aro digitalera eramaten.

Fenomeno bera topa daiteke eten digitalaren beste aldean. Adibide gisa har dezakegu mandinka hizkuntza, swahiliarekin batera AEBetan, agian Alex Hailey-ren Roots liburuari esker, hobekien ezagutzen den Afrikako hizkuntza. 1,35 milioi hiztunekin, eta Senegalen eta Gambian estatus ofizialarekin, ez da galzorian edo arriskuan dagoen hizkuntzat hartzen (EGIDSeko eskalan 5 kategorian-garapenean). Gainera, adin guztietako hiztunen aldetik jarrera positiboa du. Halere, igoera digitalari begira porrot-kasu gisa agertzea aurrean zitekeen: hizkuntza horretan alfabetat-

**Komunikazio
digitala bitarteko
tradizionaleko
komunikazioa
baino ospe
handiagokoa dela
jotzen da
unibertsalki, eta
belaunaldien
arteko
disrupzioak
igoera
digitalaren alde
jokatzen du.**

**Nagusiki
idatzitako
materialean
oinarrituko
garenez,
garrantzi berezia
du bereizteak
webeko agerpen
pasiboa
(irakurtzeko
baino ez diren
lexikoak, berriak
edo literatura
klasikoa) eta bi
norabideko
erabilpen aktibo
asko (sare
sozialak,
merkataritza eta
literatura bizi).**

tuak %1 azpitik dira, eta wikipedia inkubagailuak (Requests for new languages/Wikipedia Mandinka, 2013) ez du erakarri bertako hiztun bakar bat ere.

3. Identitate-funtzioa

Nagusiki idatzitako materialean oinarrituko garenez, garrantzi berezia du bereizteak webeko agerpen *pasiboa* (irakurtzeko baino ez diren lexi-koak, berriak edo literatura klasikoa) eta bi norabideko erabilpen aktibo asko (sare sozialak, merkataritza eta literatura bizi). Adibide interesgarria da txinera klasikoarena, izan ere, 3.000 artikulutik gertu eta L2 motako 30.000tik gora erabiltzaile izanik, kontuan hartzeko neurriko wikipedia du, nahiz eta ez duen hiztunik; horrela bada, soilik funtzio historikoa edo ondarearen zaintzarenak betetzen dituen hizkuntza da.

4. Domeinu funtzionalak

Hasiera batean testu-edizio digitala erakunde handien eta inprimategien esparruko teknika zen, baina PCen hedapenarekin mahaigaineko edizio digitala iritsi zen gure etxeetara. Iragarki publikoak jartzearekin batera, antzeko zerbait gertatu da: herri mailako aktoreetara murriztuta egotetik norbanakora pasa da, edonork mezuak jar baititzake hainbat iragarki-taulatan edo (mikro)blogetan. Bide horretan aro digitalaren garapenarekin atzigarri bihurtu dira orain arte soilik elite batzuen hainbat komunika-zio-modu izan direnak, eta hori da, zalantzarik gabe, duten erakargarritasun nagusietako bat. Baina hizkuntza batek, bide berri eta demokratizatu horietara iritsiko bada, software apur bat beharko du (telefono adimen-dunak izan daitezke salbuespen nagusia, baina datu-falta dela-eta, azterketatik at geratuko da). Software-euskarria kuantifikatzeko hiru egoerako hierarkia sinple bat erabili dugu, EGIDSen alfabetazio-maila ezartzeko egiten den galdetegiarekin bat datorrena gutxi gorabehera.

5. Wikipedia

Hizkuntza jakin baten *igoera digitalaren* funtsa eremu horretan egiten den erabilera denez gero, komunikabide nagusi gisa hizkuntza hori erabiltzen duen online-komunitate aktibo bat, gutxienez, identifikatu behar da. Hainbat aukera zeuden horretarako, besteak beste, berriak, postazerrendak, Yahoo edo Google. Halere, esperientziak erakutsi du wikiped-ia komunitatea hizkuntza-komunitate digital aktiboenen artean dagoela. Horren ondorioz, aitzin adierazle gisa erabil daiteke arrakala digitalaren aurrean hizkuntzen egoeraz jabetzeko. Arrazoietakoa bat umeekin lotuta dago, izan ere, ordenagailuak jolasean ibiltzeko ez den zerbaitetarako erabiltzen hasten diren momentutik, wikipedia hor dagoela konturatzen

dira. Gainera, wikipediak, antzeko ideiak dituzten erabiltzaileekin topo egiteko ingurune erakargarri bat eskaintzen du, eta baita denon artean ezagutzarekin lotutako helburu bat lortzeko ere. Erakargarria eta instrumentala da, eremu digitalean hizkuntza eta kultura garatzeko tresna baita. Ikerketa honen emaitza bat aurreratuz, horrela laburbil daiteke ondorioa; *wikipedia gabe igoera digitalik ez*.

Wikipedia sortzeko beharra oso argi antzematen da *digitalki* igotzen ari diren hizkuntza guztietan. Hori argi geratzen da ondoko datuan: egun 533 proposamen daude inkubagailuan, indarrean dauden wikipedien kopuru bikoitza. Hala, wikipedia bat martxan edukitzeko eta sailkapenean igotzeko helburua hain da indartsua, ze hainbatetan trikimailuak erabiltzen diren gora egiteko, artikulu-kopurua baino ez baita erabiltzen sailkapenean (http://meta.wikimedia.org/wiki/List_of_Wikipedias). Potemkin wikipedia lotsagabeen adibide behinena Volapük wikipedia dugu (37.a sailkapenean), non makinaz sortutako informazio geografikoak nagusi diren. Metodoak izeneko atalean eztabaidatuko dugu nola saiheuts daitezkeen trikimailu horien ondorioak.

MATERIALAK

Erabilitako datu guztiak bilduma publikoetatik hartu dira 2012ko martxoaren eta 2013ko martxoaren artean. Bildutako datuekin egindako txostenaren bertsio finkatu bat, 8.426 errenkada eta 92 zutaberekin, eta hemen dago atzigarri: <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056.s001>. Artikulu honetan horren gainbegiratzeko bat besterik ez dugu aurkeztuko, nahiz eta zehaztasun gehiago esteka honetan ikus daitezkeen: <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056.s002>. Kontuan izan datuetan munduko hizkuntza guztien adierazleak bildu nahi izan ditugula, baina, halere, hainbat hutsune egon daitezkeela. Halere, kontuan izan behar da datuen gainean egindako sendotasun-testak %95 baino estaldura handiagoa dela diola.

Munduko hizkuntzen inguruan bildutako lehen datua ISO 639 estandarri dagokio, hizkuntzaren kode normalizatuaren kudeaketa jasotzen duena. Ethnologue datu-basearen azken bertsioa kontsultatu da (2012/02/28) (<http://www.ethnologue.com>) eta bertan 7.776 hizkuntza topatu dira, haien artean 376 dagoeneko hilak direnak 1950 urtetik gaur arte, garai hartatik kudeatzen baitu zerrenda SILEk. Beste hainbat datu-iturburu kontsultatu ziren eta gure datu-basea %10 handiago da³, 7.879 ISO kode bilduz guztira. Erabilitako guneen artean hauek azpimarra daitezke: *Open Language Archives Community* (OLAC) (<http://www.language-archives.org>), *Endangered Languages Project* (<http://www.endangeredlanguages.com>), Crúbadán Project (<http://borel.slu.edu/crubadan>)

**Wikipedia
sortzeko beharra
oso argi
antzematen da
digitalki igotzen
ari diren
hizkuntza
guztietan.**

**Wikipedia bat
martxan
edukitzeko eta
sailkapenean
igotzeko
helburua hain da
indartsua, ze
hainbatetan
trikimailuak
erabiltzen diren
gora egiteko,
artikulu-kopurua
baino ez baita
erabiltzen
sailkapenean.**

**Ortografia
estandarizatua,
wikipedia
bezalako
proiektuetan
laguntzeaz gain,
berez, bizindarra
digitalaren
adierazle
garrantzitsua da.
Eta horrekin
batera beste
adierazle
garrantzizkoa da
dokumentu
luzeagoak
sortzeko
gaitasuna.**

eta Omniglot ‘The online encyclopedia of writing systems and languages’ (<http://www.omniglot.com>).

Ordenagailu bidezko hizkuntza-euskarria ezagutzea oso esanguratsua da ikerketa honen helburuetarako. Horren inguruko datuak Microsoft-etik eta Apple-tik datoz, bi mailatan banatuta: datu-sarrera eta sistema eragilea. Datu-sarrerak idazketa-sistema bideratzeko metodo espezifikoetan zentratzen da, adibidez kotoeri hizkuntzak edo japonierak behar dituztenak. Sarrera-metodo egokirik gabe igoera digitala ezinezkoa da, baina alderantzizkoa ez da beti betetzen: alegia, sarrera-metodoa izateak ez du testua sortuko denik ziurtatzen, are gutxiago erabilera digital indartsua izango duenik. Sistema eragilearekin mailako euskarriak bideratzen du sistemarekin interakzioak egitea, eta beraz, hizkuntza horretan izanez gero, esate baterako, menuen bidezko aukeraketak edo erroreengatik inguruko azalpenak hizkuntza horretan egin ahal izango dira.

Bestalde, hizkuntza askotako sarrera-metodoa estandarria izan arren ez dute idazkera baturik. Horrela, igoera digitalaren eskaileran hurrengo urratsa zuzentzaile ortografikoa sortzea da. Crúbadán proiektuaren ustez, faktore garrantzitsua denez hori, software libreko zuzentzailea dituzten hizkuntzak zerrendatzen dituzte. Ikerketa honetan *HunSpell* zuzentzaileen zerrenda aztertu da (software libreko zuzentzaile erabiliarena -Németh L, Trón V, Halácsy P, Kornai A, Rung A, et al., 2004-), eta wikipediako edukiarekin gurutzatu da estaldura kalkulatzeko. Estaldura %50tik behera denean zuzentzailea ez-heldutzat hartu da.

Ortografia estandarizatua, wikipedia bezalako proiektuetan laguntzeaz gain, berez, bizindarra digitalaren adierazle garrantzitsua da. Eta horrekin batera beste adierazle garrantzizkoa da dokumentu luzeagoak sortzeko gaitasuna. Crúbadán proiektuak, berriz ere, esanguratsutzat hartzen du faktore hori, eta identifikatu du ea *Biblia* eta *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala* eskuragarri dauden online hizkuntza jakinetan. Kontuan izan behar da testu luzeak biltzeko lagungarria dela idazkera estandarizatua, horixe baita hizkuntza-teknologiaren muina.

Hizkuntzaren bizindar digitalaren eta tresna linguistiko sofistikatuaren arteko erlazioa eztabaidatzen da hurrengo atalean (etiketatzailerik sintaktikoa, OCR tresna, hizketa-ezagutza, informazioaren erauzketa eta itzulpen automatikoa esaterako).

METODOAK

I

EGIDS eskala berak igoeraren nozioa dakar: *ahozko erabilera hutsetik* (6 kategoria) *alfabetizazio-prozesura* (5), eta hortik *ahozko erabilera indartsu* eta *alfabetizazio-prozesu iraunkorrera* (4). Hurrengo urratsak erabilerari (ofiziala

ala ez) begira daude: erabilera komunikabideetan baina barne mugak gainditu gabe (3), erabilera hezkuntzan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazioan eta ezagutza ofiziala lurralderen batean (2), aurrekoa baina ezagutza ofizial nazionala (1), eta nazioarteko erabilera merkataritzarako, ezagutza-trukerako eta nazioarteko politikagintzarako (0) (Quakenbush JS, Simons GF, 2012). Alfabetizazio digitala ere ardatza da esparru digitalean, eta alfabetizazio hori nola eskuratzen den azalduz hasiko dugu atal hau.

Alfabetizazioaren lehen maila lokalizaziorako edo nazioartekotzerako (i18n adituen artean, *internationalization* kontzeptua laburtzeko) euskarri bat litzateke, bertako hizkuntzaren sarrera (idazketa) eta irteera (irakurketa) ondo definitzen duena. *Unicode* estandarraren barruan ehunka alfabeto desberdin daude jasota, eta baita berriak eransteko metodoak ezarrita ere. Horrek oinarri sendoa eskaintzen du hizkuntza berriak mundu digitalera eramateko, baita mundu horretan idatzia izateko ere. Hizkuntza bat Omniglot datu-basean (ik. aurreko atala) zerrendatuta baldin badago, maila hau gaindituta duela esan daiteke. Baldintza samurragoa da online testuak izatea OLAC datu-basean, eta baldintza estuagoa testuak idazteko (sarrera) metodoren bat izatea.

Bigarren mailarako beharrezkoa litzateke hitz-mailako tresna sorta bat edukitzea, hiztegia, zuzentzaile ortografikoa eta lematizatzailea esaterako. Horretan dugun ebidentzia aipatutako *HunSpell* zerrenda hedatuena da (Németh L, Trón V, Halácsy P, Kornai A, Rung A, et al.. 2004), eta ez da hain egokia. Gainera, tresna horien kalitatea eta estaldura egiaztatzea, alegia, tresnaren heldutasuna neurtzen duten parametroak kontrolatzea eginkizun zaila da baliabide urriko hizkuntzentzat. Tresna horiek eskatzen duten hizkuntzaren estandarizazioa da zailtasun horren gakoa, tresna horiek ez baitute kontuan hartzen aldaera dialektalak eta indibidualak. Horrela, ingelesaren estandarizazioa ez zen iritsi XV. mendera arte, eta hemen aztertzen diren hizkuntza asko inoiz ez dira beharrak bultzatutako bide mingarri horretatik igaro, eta ez dute nahi kanpotik ezarritako eredu bat (Mapuche indians to Bill Gates 2018).

Hirugarren mailak eskatzen ditu perpaus- edo esaldi-mailako tresnak, bigarren mailarako zehaztutako tresnetan oinarrituta soilik eraiki daitezkeenak. Tresna horien artean daude perpaus-mailako etiketatzaileak (*POS tagger* ingelesez), izendun entitateen ezagutzaileak (pertsona- edo toki-izenak identifikatzeko), hizketa-ezagutzaileak eta itzulpen automatikoa. Horri dagokionez, <http://www.meta-net.eu/whitepapers/key-results-and-cross-language-comparison> gunean agertzen diren tauletan *bikain* kategorian ingelesa baino ez da agertzen. Gure ikerketan Google Translate ere aztertu dugu funtzio horren goranzko garrantzia islatzeko asmoz, baina maila hau lehen bi kategoriak (*oparo* (T) eta *bizi* (V)) bereiz-

Bigarren mailarako beharrezkoa litzateke hitz-mailako tresna sorta bat edukitzea, hiztegia, zuzentzaile ortografikoa eta lematizatzailea esaterako. Tresna horien kalitatea eta estaldura egiaztatzea tresnaren heldutasuna neurtzen duten parametroak kontrolatzea eginkizun zaila da baliabide urriko hizkuntzentzat.

**Arlo digitalean
hiztun batzuk
esparru
digitalean
hizkuntza hori
erabiltzen hasten
direnean euren
seme-alabek eta
bilobek ere hala
egingo dute
automatikoki, eta
horregatik
EGIDSeko
kategoria asko
bakarrean
kolapsatu
daitezke.**

teko da interesgarri, eta gure helburu nagusia beste bat da, bigarren, eta hirugarren kategoriak bereiztea, hain zuzen.

Ondorengo lerrootan, sailkapena egiteko arazoa nola ebatzi dugun azalduko dugu. GIDSen 8 kategoriak edo EGIDSen 13 kategoriak erabili ordez, hizkuntzek mundu digitalean duten aktibitate digitala mailakatzeko lau kategoria baliatu dira, digitalki *oparo* (T), *bizi* (V), *ondare* (H), eta *motel* (S) kategoriak hain zuzen. Hori dela eta, Lewis eta Simons-en (Lewis, Simons GF, 2010) erreferentzian proposatzen den zuhaitza erabat sinplifikatu dugu. Hizkuntza jakin bat kategoria batean edo bestean sailkatzeko honako datua izan dugu kontuan: ea esparru digitalean hizkuntza hori aktiboki erabiltzen den edo ez; eta, ondoren bi datu gehigarri. Datu nagusi hori kontuan izateak domeinu digitalari begira *hila* / *bizia* egoera bereiztea dakar, eta datu xeheagoek igoeraren bi graduen artean bereiztea (*bizia*: *bizi* (V) vs. *oparo* (T)) eta hildakoen bi graduen artean bereiztea (*hila*: *motel* (S) vs *ondare* (H)).

Hauxe izan da jarraitu dugun metodoa: sail bakoitzerako adibide prototipiko argiak hartu ditugu, eta ikasketa automatikoko teknika estandarrak erabiliz (entropia maximoan oinarritutako erregresio logistiko multinomiala zehazki -Hosmer D, Lemeshow S, 1989 eta Menard S, 2002-), hazi horiek erreproduzitzen dituen sailkatzaile bat eraiki dugu. Egindako esperimentuetan metodoaren eraginkortasuna txikeatu daiteke barneko irizpideez zein kanpokoez. Barneko irizpideetarako, sortutako sailkatzailearen kalitatea eta sendotasuna neurtzen da hazien perturbazioa eraginez, eta kanpoko irizpideetarako beste sailkapen eta multzokatze-teknikak erabiltzen dira.

EGIDSi dagokion sinplifikazioaren parte bat aipatutako balio demografikoetatik dator. Azterketa tradizionalan, EGIDSek bere sailkapenerako, bereziki, hizkuntzaren gaitasun osoa duen azken belaunaldia hartzen du kontuan: belaunaldi hori umeena bada hizkuntza *arriskuan* kategorian dago (6b), gurasoena bada *galeran* (7), aitona-amonena bada *hiltzorian* (8a), bestela *ia-iraungita* (8b).

Arlo digitalean hiztun batzuk esparru digitalean hizkuntza hori erabiltzen hasten direnean euren seme-alabek eta bilobek ere hala egingo dute automatikoki, eta horregatik EGIDSeko kategoria asko bakarrean kolapsatu daitezke. Era berean, zenbaki txikiko kategoriak (0tik 3ra) kategoria bakar batean biltzea T (*oparo*) justifikatutzat jotzen dugu, estaldurak (nazioartekoa - nazionala - lurraldekoa) eta ofizialtasunak ez direlako hain garrantzizkoak esparru digitalean, nazioartekoa eta ez-ofiziala izatea definizioz datozen ezaugarriak direlako.

Txinera klasikoa, sanskritoa eta latinaren kasuek adierazten dutenez, desagertuta dauden hainbat hizkuntza ikuspegi digitalean hornituago

egon daitezke adiera tradizionalako egoera *oparoan* baina digitalki *txiro* diren beste hizkuntza batzuk baino. Artxibo digitaletan egonik ere hiztunik ez duten hizkuntzak H kategorian (*heritage-ondare*) kokatzen ditugu. Aspaldian egoera horretan dauden halako hizkuntza batzuk Wikipediara heldu dira, baina soilik dokumentatzeko asmoa duten kasu berriak “Wikia” izeneko proiektura mugitu dira egun. Artxibo digitalak irauteko helburuarekin sortzen direnez, hizkuntza jakin bat behin *ondare* (H) egoerara iritsita ezin du egoera hori galdu; digitalizazioaren uholdeak ekarriko du hizkuntza asko *motel*-egoeratik (S) *ondare*-egoerara igarotzera, ageriko presentzia digitalik ez dutelako. Baina mugimendu hori ez da biziberritze moduan ikusi behar, bi norabideetako komunikazioaren ikuspuntutik behintzat, bi kategoria horietako hizkuntzak digitalki hilda baitaude. Hizkuntzen heriotzaren inguruko azterketa guztiek apurtu ezina den oinarri bera dute: *komunitaterik gabe biziraupenik ez*. Darwinek zioenez, Lyell aipatuz, “*A language, like a species, when once extinct, never (...) reappears*”.

Ondare hizkuntzak ez bezala, hizkuntza indartsuak bilatzea erraza da. Orokorrean T (*oparo*) eta V (*bizi*) kategorietako hizkuntzetarako bilioika (mila milioi) hitz topa ditzakegu, egunero milioika hitz berrirekin. Igoera digitalaren azken muturrean *oparo* motako hizkuntza bat L1 zein L2 komunitateetako hiztunek erabiltzen dute. Implikazio hierarkiko zuzen bat agertzen da baliabide anitzeko hizkuntzetan: halako hizkuntza batek Apple sistema eragilerako euskarria baldin badu -Appleko sarrerako euskarria-, Microsofterako hizkuntza-paketea eta zuzentzaile ortografiko librea ere izan ohi ditu. Hizkuntza bakoitzari dagozkion mota horretako baliabideak zenbatzea (kontagailuari R deituko diogu) oinarritzko metodo bat izan daiteke eta Rren balioa merezimenduarekin lotu da. Bada, aurkitu dugunaren arabera 244 hizkuntzek bakarrik dute $R > 0$; eta horien artean ehun inguru dira zalantzarik gabe bideragarriak.

Metodoan aipatutako haziak ezartzeko R erabili da. R maximoa (5) duten 16 hizkuntzek T_0 osatzen dute: ingelesa, japoniera, frantsesa, alemana, gaztelania, italiera, portugesa (Brasilgoa zein Europakoa), nederlandera, suediera, norvegiera (Bokmål), daniera, suomiera, errusiera, poloniera, txinera (tradizionala eta sinplifikatua) eta koreera. Hain zuzen ere, hauek dira Applek sistema eragilean onartzen dituen hizkuntzak eta irizpide hori prestigioaren isla da, aipatutako (ii) irizpidea (hizkuntzaren ospea), Apple beraren prestigioa handia baita komunitate digitalean. Wikipediako sailkapenean dauden lehen 16 hizkuntzen artean (v) irizpidea (wikipedia) hartuko bagenu T_1 hazi alternatibo gisa, helmuga berera iritsiko ginateke. Beste zentzuzko irizpide bat litzateke baliabide urriko hizkuntzen lehiakide nagusiak bilatzea. Scannell KP (2007) erreferentziaren arabera, lehiakide nagusiak dira ingelesa, gaztelania, frantsesa, errusiera,

Txinera klasikoa, sanskritoa eta latinaren kasuek adierazten dutenez, desagertuta dauden hainbat hizkuntza ikuspegi digitalean hornituago egon daitezke adiera tradizionalako egoera oparoan baina digitalki txiro diren beste hizkuntza batzuk baino.

Arrakala digitalaren beheko muturrerako (S kategoria) zerrenda guztietatik kanpo dauden hizkuntzak hautatu dira. Eta honako ezaugarriak dituzte: ez dute wikipediarik, ez dute Bibliarik ez zuzentzaile ortografikorik, ezta Apple-ko zein Microsoft-eko euskarrik ere; ez dute aipamenik Omniglot-en ez eta daturik ere ez Crúbadán proiektuan.

italiera, alemana, holandesa eta portugesa aipatutako sekuentzian; arabiera eta poloniera behin bakarrik aipatuta agertzen dira. Hori ere izan daiteke egoera *oparorako* (T) hazirako irizpidea, eta ez litzateke oso desberdina izango.

Bizi (V) kategoria eskuz osatu dugu zalantzarik gabe egoera horretan dauden 84 hizkuntza hautatuz. Horien artean, zoriz, 40 osagaiko bi hazi-multzo eskuratu dira, V_0 eta V_1 . Horien artean hizkuntza hauek ditugu: banjar (bjn), eslovakiera (slk), guarania (gug), assamera (asm), bielorrusia (bel), kirgizera (kir), chichewa (nya), armeniera (hye), hausa (hau), eta letoniera (lvs).

H_0 hazia ezartzeko *ondare* hizkuntzetarako, zalantzarik gabe egoera horretan dauden hizkuntza-multzo txiki bat hautatu da eskuz: aramera (arc), antzinako eliza-eslaviera (chu), koptoa (cop), manxera (glv), antzinako hebreera (hbo), txinera klasikoa (lzh), sanskritoa (san), and asiriera (syc). H_1 hazi alternatibo gisa beste hauek aukeratu dira: antzinako ingelesa (ang), avestera (ave), kornubiera (cor), ge'ez (gez), latina (lat), mandaic (myz), paliera (pli), armeniera klasikoa (xcl), eta anglo-normandiera (xno). Aurreko kasuetan bezala, zalantzarik gabeko hizkuntzak baino ez ziren sartu multzo horietan.

Arrakala digitalaren beheko muturrerako (S kategoria) zerrenda guztietatik kanpo dauden hizkuntzak hautatu dira. Eta honako ezaugarriak dituzte: ez dute wikipediarik (ezta inkubagailu moduan ere), ez daude UDHR zerrendan, ez dute Bibliarik ez zuzentzaile ortografikorik, ezta Apple-ko zein Microsoft-eko euskarrik ere; ez dute aipamenik Omniglot-en ez eta daturik ere ez Crúbadán proiektuan. Aipatu behar da, nolnahi ere, horrek ez duela esan nahi ez dutela aktibitate digitalik, baizik eta egin diren saia-keretan ez dela haien arrastorik agertu. 6.541 hizkuntza dira eta haien artean bi azpimultzo sortu dira zoriz, S_0 eta S_1 , bakoitzean 75 hizkuntza sartuz. Adibide tipikoak honakoak dira: renau (rea), terik (tec), ekialdeko limba (lma), naami (bzy), hegoko puget sound salish (slh), abure (abu), lavukaleve (lvk), tarao (tro), korupun.sela (kpq) eta lachi (lbt).

EGIDSeko sailkapena zenbakietara eramanez, BALIO altuko datuak (hiztunak, wikipediaren tamaina...) eskala logaritmikora eramanez, eta bi datu-transformazio egin dira. Batetik, alfabetoaren arabera karaktere bakoitzean informazio kopuru desberdina metatzen denez gero, karaktere kopurua normalizatu da hizkuntzaren karaktereen entropiaren bidez. Adibidez, txinerako karaktere bati nederlanderaren lau karaktere dagozkio. Bestetik, wikipedian makinaz sortutako artikuluen eragina minimizatzeko, alemaneko 450 karaktereren baliokidea den kopurua gainditzeko artikulua baino ez dira kontuan hartu. Doikuntza horiekin wikipedia gehienek luzera heren bat laburrago geratzen da,

baina kasu batzuetan handitu egiten da, txekieraren kasuan esaterako. Volapük hizkuntzarena muturreko adibidea da, sailkapen ofizialean duen 37. postutik 163.era iragan baita.

EMAITZAK

I

S_0 , H_0 , V_0 eta T_0 lau hazietan oinarrituta entrenatzen dira hainbat sailkatzaile entropia maximoaren teknika erabiliz. Lehen sailkatzaileak 4 kategoriatan bereizten ditu (S-motel, H-ondare, T-oparo eta V-bizi kategoriekin); bigarrenak 3 kategoriatan (S-motel, H-ondare, VT-bizioparo) digitalki bizirik dauden hizkuntzak, V-bizi eta T-oparo, bilduz; hirugarrenak 3 kategoriatan (SH-motelondare, V-bizi, T-oparo), baina kasu horretan digitalki hildakoak bilduz; eta azkenak 2 kategoriatan (SH-motelondare, VT-bizioparo), aurretik bildutako bi multzoak bakarrik utziz.

Aurretiazko emaitzak etsigarriak izan ziren, zeren eta, 10 karpetako balidazio gurutzatua⁴ erabiliz emaitzen %40a baino ez ziren zuzenak. Baina, esan bezala, kopuru handiak eskala logaritmikoetara eramanda, emaitzen hobekuntza nabarmena lortu zen, doitasuna % 85-100 tartean geratuz (ikus 1. taula).

1. taula⁵: sailkapenaren doitasuna 10 karpetako balidazio gurutzatuz

# feat	Seed 0				Seed 1			
	SH-VT	S-H-VT	SH-V-T	S-H-V-T	SH-VT	S-H-VT	SH-V-T	S-H-V-T
33	95.0	99.3	92.3	90.7	99.3	98.6	94.3	87.9
18	97.2	99.3	91.4	96.4	99.3	98.6	95.0	89.3
10	97.9	99.3	92.9	95.7	100.0	99.3	93.6	90.0
8	97.1	99.3	92.9	97.1	100.0	96.4	94.3	85.7
6	97.1	99.3	92.1	93.6	100.0	96.4	95.7	89.3

doi:10.1371/journal.pone.0077056.t001

Entropia maximoaren ereduatan atributuen pisuak erabiltzen dira. Sailkatzen asko laguntzen duten atributuek pisu handiago dute besteek baino. Ondokoa hartu behar da kontuan: hasierako 33 atributuekin (# feat taulan) baino hobeto sailkatzen da pisu txikien duten atributuak kentzen badira. Horri atributu-hautapena deritzo, eta klasikoa da ikasketa automatikoan, emaitzak orokortzeko eta sailkapena azkartzeko (Pajkossy K, (2013). (Zehaztasunetarako ik. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056.s002>)

Atriburuei begira, espero zitekeenez, hizkuntzaren egungo egoera, EGIDS balioa da SIL erakundearen arabera auresale onena (atributu onena), hautapen guztietan aukeratua izan zen-eta. Bigarren onena *Endangered*

Lehen

sailkatzaileak 4 kategoriatan bereizten ditu (S-motel, H-ondare, T-oparo eta V-bizi); bigarrenak 3 kategoriatan (S-motel, H-ondare, VT-bizioparo); hirugarrenak 3 kategoriatan (SH-motelondare, V-bizi, T-oparo) eta azkenak 2 kategoriatan (SH-motelondare, VT-bizioparo)

**170 hizkuntza
inguruko multzo
txiki bat
identifikatu da
(%2) esparru
digitalari
dagokionean
igoera egoeran
edo egoera
sendoan dauden
hizkuntzak
biltzen dituenak,
eta 140 bat
hizkuntza (%1,4)
mugan
daudenak.**

Languages proiektuan kodetutako egoera izan zen (batean izan ezik guztietan hautatua) eta hurrengoak sekuentzia honetan: wikipediaren kalitatea, L1 hiztunen kopurua, Crúbadán bildumaren tamaina, zuzentzaile librearen presentzia eta OLAC datu-baseko online testu-kopurua. Azken hori, *ondare* gisa gordetzeko ahaleginaren adierazle onena gure ustez, %5ean baino ez da aukeratu, eta horrela argi geratu da igoera digitalari begira ez dela oso garrantzitsua.

Hamar sailkatzaile onenekin bozketa bat aurrera eramanez (*bagging* ize-neko teknikaz (Breiman L., 1996)), sailkatzaileek *galzorian* egoera digitala esleitzen diete hizkuntzen %96ri (SH-VT kategoriak erabiliz). Azpimarratu nahi dugu heriotza masiboaren aurrean hori ez dela etorkizunerako aurreikuspena, politika egokien bidez saihestu edo murriztu baitaiteke, baizik eta dagoeneko gertatu den zerbait. Talde horretatik kanpo 170 hizkuntza inguruko multzo txiki bat identifikatu da (%2) esparru digitalari dagokionean *igoera* egoeran edo egoera *sendoan* dauden hizkuntzak biltzen dituenak, eta 140 bat hizkuntza (%1,4) *mugan* daudenak. Hurrengo atalean eztabaidatuko dugu horretaz.


EZTABAIDA

Igoera digitalean gertatzen den arazoen inguruko epai argia lortzen den bitartean, egoera *motel* edo *biziaren* arteko mugan dauden hizkuntzen arteko bereizketa egiteko ez da nahikoa sailkatzaile baten epaia. Ziur asko, hizkuntza bakoitzerako gure datuetan kodetu gabe dauden gertaerak kontuan hartu beharko dira, eta horien arabera aurreikusi mugan dauden hizkuntzen etorkizun digitala. Hizkuntza bakoitzaren etorkizuna irekia da, baina panorama orokor sendoa marraztu dugu, metodoan hainbat aldaketa txiki eginda ere.

Egoera *motelean* dauden hizkuntzen bizi-iraupena bide aldapatsua den bitartean, egoera *biziko* hizkuntzek bere iraupena ziurtatuta dute. Hori dela eta, aipatutako 3 kategoriako sailkatzaileekin ere egin dugu proba, S-H-VT kategoriarekin, egoera *motel* eta *ondare* egoerak ondo bereizteko. Modu horretan trebatutako sailkatzaileak 6-8 atribututan oinarrituta dabilta hobekien, %97,1-%100 tarteko doitasunarekin. Sendotasuna handitzeko esperimentu kopuru handi bat eraman da aurrera, S egoerako hizkuntzen hautapen desberdin askorekin. Esperimentu guzti horien emaitzak bilduta ondorio argi batera iristen da: 8.000 hizkuntza baino gehiago digitalki hilda daude, laurden bat gehiago arrasto digitalik gabeko 6.541 hizkuntzak baino. H (*ondare*) egoeran 300 bat (aldakuntza-marjina handiarekin) hizkuntza leudeke, eta VT kategorian (*bizioparo*) 420 gehienez. Labur esanda, heriotza-tasa %95,5 litzateke, %0,4ko akats-tartearekin.

Lehen irudian S-H-VT sailkatzaile biren emaitza islatzen da. Wikipedian dauden hizkuntzak, inkubagailu egoerakoak barne, bakarrik marrazten dira, abzisetan (x) agertuz hiztun kopurua eskala logaritmikoan eta ordenatuetan (y) wikipediaren tamaina normalizatua, eskala logaritmikoan ere. T (*Thriving-oparo*) egoerako hizkuntzak azaltzen dira, V (*vital-bizi*) egoerakoak (T-V banaketa egin da gero), Hkoak (*heritage-ondare*), Skoak (*still-motel*) eta *borderline-mugan* daudenak. Mugan daudenak sailkatzaile bietan sailkapen desberdina zuten.

1. irudia. Sailkapenaren grafikoa, Wikipediaren tamainan eta hiztun kopuruan oinarrituta⁶.



T (*thriving-oparo*) kategoriako 16 hizkuntzek etorkizun digital oparoa dute, 100 urtera begira behinik behin. EGIDS sailkapenean 0 balioa duen hizkuntza bat, arabiera, ez da T kategorian sailkatu, digitalki indartsu izan arren, ez duelako euskarririk Apple-en aldetik eta datuak bildu zirenean ez zegoelako lehen 20 wikipedien artean.

V (*vital-bizi*) kategorian sailkatutako 252 hizkuntzen artean hazi moduan erabilitako 83ak digitalki indartsuak dira zalantzarik gabe. Esperientziak erakusten duenez, guztien artean gaur egun ez dira 150 baino gehiago egoera *bizian* daudenak. Hizkuntza horiek esparru digitalean *oparo* bihurtzeko lan handia dagoen bitartean (adibidez, hungarierak badu PCtan euskarria, baina Mac-etan ez), zalantza gutxi dugu horietako batzuez;

**Munduko
hizkuntzak
igoera digitalari
begira
automatikoki
sailkatu dira, eta
gure ondorioa da
igoera digitalera
iristen diren
hizkuntzak
gehienez %5
direla.**

digitalizazioaren itsasgoraren eraginez, gutxienez erdia, gehiago agian, egoera onera pasako dira. Kategoriatik horretan daude EGIDSeko 1 kategorian dauden arteko bi heren (%66), 2 kategoriatik ia erdia (%46), 3 kategoriatik %13, 4ko, %8 eta 5eko % 2. Gainontzekoen artean %1a bakarrik agertzen da.

Borderline-muga modura marraztutako 162 hizkuntzen kasua azpimarratu nahi dugu, sailkapen automatikoari dagokionean zalantzak sortzen dituztelako (sailkatzailearen arabera kategoriatik batean edo bestean kokatu daitezke).

H (*heritage-ondare*) kategorian wikipedia duten 51 hizkuntza biltzen dira. Horietatik batzuk, aipatu bezala, hiztunik gabeko hizkuntzak dira. EGIDS eskalan duten batez-bestekoa 7,83koa da, dagokien *ondare* egoera baieztatuz. Adibide gisa hazietan ez zeuden batzuk zehaztuko ditugu ondoren: creera (cre), dalmaziera (dlm), erdiko nederlandera (dum), ido (ido), gotikoa (got), antzinako eskandinaviarra (non), pipil, prusiera zaharra (prg), romagnol-a (rgn) eta samogitian (sgs).

Beltzez marraztutako 307 hizkuntza daude *natibo* digitalen arrastorik gabe. Hiztunen kopurua, batez-beste, 0,7 milioikoa da, eta wikipedia gehienak inkubagailu egoeran daude (hutsak normalizazio-kalkuluak egin ondoren). Kanuri (kau) hizkuntza da horren adibidea, bere hiru dialektoekin, tumari (krt), manga (kby) eta beriberi (knc) EGIDS sailkapenean 6a, 5 eta 3 egoerekin hurrenez hurren. Erabilera indartsua du, 3,76 milioi hiztun, irratia eta telebista, eta erdiko dialektoa behintzat ez dago inolako zerrendetan *galzoriko* egoeran. Baina wikipedia itxi zen bertako hiztunen eduki-ezagatik eta komunitate birtualik ez edukitzeagatik. Eta Crúbadán proiektuan 5.000 hitz biltzen duten hiru dokumentu baino ez ziren bildu.

ONDORIOAK

I

Munduko hizkuntzak igoera digitalari begira automatikoki sailkatu dira, eta gure ondorioa da igoera digitalera iristen diren hizkuntzak gehienez %5 direla. Hizkuntzen eta hizkuntza-familien arabera egoera konplexu samarra da, eta ez da erraza ondorioak laburtzea. Gure estimazio subjektiboaren arabera *inkubagailu* egoeran dauden hizkuntzen artean heren batek baino gutxiagok burutuko dute aro digitalerako trantsizioa. Klنگon hizkuntza zaharra adibide gisa jar dezakegu, ikusteko lagun-talde sutsu bat saiatu daitekeen arren, zailagoa dela komunitate trinko bat sortzea. Wikipediaren hizkuntzen gaineko politikak (https://meta.wikimedia.org/wiki/Language_proposal_policy) eskatzen du “hizkuntza horretan erregularki editatuko duten bost erabiltzaile aktibo izatea gu-

txienez arrakastatsutzat hartzeko egitasmo hori (*at least five active users must edit that language regularly before a test project will be considered successful*); gure iritziz, ezin bihozberagoa da baldintza hori, izan ere, benetako langa askoz altuagoa da. Wikipedia toki egokia da digitalki aktiboak diren hiztunak biltzeko, baina ahalegin horretan sortzen den ohiko emaitza *ondare* motakoa izan ohi da.

Wikipedian lankidetzaz aritzen diren editorez osatutako komunitate bat beharrezkoa da hizkuntza eta kultura web sarera ekartzeko, baina ez da nahikoa hizkuntzaren benetako iraupenerako; testuinguru digital aberatsa behar du *igoera digitalak*, definizioz. Honek ez du ukatzen ondarearen preserbazioaren balioa, baina aro digitalean, hizkuntzaren bizirau-pena hizkuntzaren estandarrarekin dago lotuta, ospea eta funtzio nagusiak biltzen dituen aldaerarekin, hain zuzen.

Aurrekoaren adibide tipikoa piamontera hizkuntza da; 2-3 milioi hiztun ditu Torino inguruan, eta, bertako administrazioaren aldetik badu halako estatus ofizial bat ere; baina ez du presentzia digital nabarmenik. Agian, komunitate itxiago batzuek aukera handiagoa dute, esate baterako faro-*era* hizkuntzak. 50 mila hiztun ditu eta kalitate handiko wikipedia ere garatu dute. Itxaropenerako zantzuak ere badaude esate baterako mendebaldeko flandrieraren kasuan, jakitera eman baita 40.000 aldiz jaitsi dela hizkuntza hori ikasteko app-a. Dena den, orokorrean, aro digitalean hedadura handiko beste hizkuntza nagusi batekin lehiatzen duten hizkuntzentzat aukerak nahiko urriak dira, partikulariki Erresuma Batuko hizkuntza gutxituentzat.

Kasu bakanetan, kurduerarenean esaterako, sumatzen da estandar baten agerpena, hizkuntzaren hiru bertsio (iparraldeko kurmanji, erdialdeko sorani, eta hegoaldeko kermanshahi) mantentzen diren egoeran ere. Baina “*via regia*” modukorik ez dago aro digitalean. Azterketa hau sinkronikoa den arren, tradiziozko alfabetaziorako eta alfabetizazio digitalerako bide diakronikoa ezaguna da. Bide horretan parte hartzen dute honako aldagaiek: argitaratzeko azpiegitura minimoak, estandarra sortzeko beharrak, urte asko hartzen duen heziketa formala zein hizkuntzalaritza konputazionalerako adituen trebakuntzak eta horiek garatzeko beharrezkoak diren tresnak. Agian adibide azpimarragarriena euskararena da, hain zuzen, Europar Batasunaren ikuspegi zabalaren babesa duena. Kontuan izan behar da halere, halako arrakasta-kasuak izatea zaila dela, bereziki ekonomikoki suntsituago eta linguistikoki aniztunago diren hizkuntza-komunitateen artean.

Itzulpen automatikoari dagokionez, badakigu zerbitzu hori gero eta garrantzitsuagoa dela hizkuntzen arteko komunikaziorako. Normalean tresna hori egoera *oparoko* hizkuntzei lotuta agertzen da, Haitiko kreoa

**Itzulpen
automatikoari
dagokionez,
badakigu zerbitzu
hori gero eta
garrantzitsuagoa
dela hizkuntzen
arteko
komunikaziorako.
Normalean
tresna hori
egoera oparoko
hizkuntzei lotuta
agertzen da.**

**Begien aurrean
duguna, ez da
bakarrik
munduko
hizkuntzen
heriotza masibo
bat, iraultza
neolitikoaren
azken ekitaldia
baizik.**

leraren salbuespenarekin (frantsesera itzultzeko) (Spice B., 2012). Halako teknologiarako Google-k neurri handiko corpus elebakarrak eta elebidunak izatea baldintza modura jartzen du. Eta jakina, egoerako *biziko* hizkuntzentzat, akaso, betebeharrak hori ez da arazo izango, baina *mugan* dauden hizkuntzentzat hori benetako oztipoa da.

Egoera digitala askoz okerragoa da kontsentsuko zenbakiek (2.500-3.000 hizkuntza galzorian) adierazten dutena baino. Ikerketa pesimistek ere hizkuntzen %10, 600 bat, arriskutik kanpotzat jotzen dute (Krauss M., 1992), baina adituak gero eta gehiago mintzatzen dira ideia horren aurka (Poser W., 2012). Errealitatean, gaur egun 250 hizkuntza baino gutxiago daude digitalki goiko aldean, eta *mugan* dauden erdiak baino gehiagok Marokoko arabieraren (ary) antza dute. Alegia, hizkuntza nagusi baten dialekto mintzatuak dira, ospe txikia dutenak, baina *akroletoaren*⁷ ospearekin batera bizindarra erakusten ari direnak. Horretan oinarrituta iradoki daiteke heren bat baino gutxiago izango direla etorkizunean *biziak*.

Litekeena da beste 20 bat hizkuntza mintzatu ere igotzea, gaur egun wikipediako inkubagailu egoeran edo aurrekoan izan arren. Baina edozein kasutan aldapa gorako borroka egin beharko dute. Adiera klasikoaren arabera, bizirik dauden 7.000 hizkuntzen artean, agian 2.500ek iraungo dute bizirik beste mende bat. Baina 250 hizkuntza baino ez dute digitalki iraungo, eta besteak, ezinbestean, *ondare* egoerara (Nynorsk) edo desagertzen digitalera (Mandinka) mugituko dira. Horren ondorioz babeste lanak (<http://www.endangeredlanguages.com>) oso garrantzitsuak dira.

Zoritxarrez, ikuspuntu praktikotik, ondareari begirako proiektuak (inkubagailu moduko wikipediak barne) planifikaziorik gabekoak izan ohi dira, ez baitute dokumentazio-programa sistematikorik. Baliabideak maiz alferrik xahutzen dira, aurretik gertatutako galera funtzionalak eta hizkuntza-aniztasunaren aurka doazen pizgarri ekonomikoak kontuan hartuta (Ginsburgh V, Weber S (2011).

Begien aurrean duguna, ez da bakarrik munduko hizkuntzen heriotza masibo bat, iraultza neolitikoaren azken ekitaldia baizik. Adibide gisa har dezagun komiera hizkuntza, wikipedia duten bi aldaerekin (perm-yak, 94.000 hiztun, eta zyrian, 293.000). Aldaera bakoitzean hainbat dialekto daudenez, batzuk dagoeneko desagertuta eta beste batzuk argi eta garbi egoera *motelean* daude. Esperantza argiena hiri nagusian dago, Syktyvkar-en, bertako aldaera estandar bihurtu delako. Behin ortografia estandarizatuta, unibertsitateak (hezkuntzarako hizkuntza nagusia errusiera duena) hizkuntzalari konputazionalengana jo dezake zuzentzaile ortografikoa sortzeko eta alfabetazio digitalerako lehen urratsak emateko (Prószyński G, Novák A., 2005). Baina horrek, alde batetik, onura ekarriko die estandarren hiztunei, baina, bestetik, ziur asko, mendi aldeko eta

ospe txikiko zyryan aldaera atzean uztea ekarriko du seguruena. Gainera, komierarako azaldutako jokalekua optimista dela hartu behar dugu kontuan; ehunka mila hiztun ditu, oraindik populazioaren laurdena, eta unibertsitatea ere badago. Horrez gain, eskualdea garatzeko pizgarri ekonomikoak ere badira (petrolio, zura). Baina munduko hizkuntzen %95ean ez dute aldeko faktore horietako bat edo gehiago, eta eten digitala saihesteko esperantza txikia da. ●

OHARRAK

1. Itzultzailearen oharra: Beñat Garaio proposatutako terminologian oinarrituta: (http://www.soziolinguistika.eus/files/benat_garaio_bat97.pdf). Jatorrizkoa: 0. International; 1. National; 2 Provincial; 3 Wider communication; 4 Educational; 5 Developing; 6a Vigorous; 6b Threatened; 7 Shifting; 8a Moribund; 8b Nearly Extinct; 9 Dormant; 10 Extinct.
2. *Actively engaged in digitally mediated interaction* jatorrizkoan
3. Itzultzailearen oharra: jatorrizko artikuluan zehaztasunak ematen dira % 10 horretaz
4. *10-fold cross-validation* jatorrizkoan.
5. Seed -> hazia, # feat -> atributu kopura.
6. Editoreen oharra: Grafikoan agertzen diren gris koloreak ez dira behar bezain argigarriak. Jatorrizko koloretan ikusteko egin daiteke kontsulta webguneko bertsioan: <http://www.soziolinguistika.eus/BAT111> edo jatorrizko bertsioan <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0077056>
7. Aldakuntzen artean edo continuumean aukera prestigidunena da akroletoa

BIBLIOGRAFIA

- Ad hoc technical expert group on indicators for assessing progress towards the 2010 biodiversity target UNEP/CoBD. (2004). *Indicators for assessing progress towards the 2010 target: status and trends of linguistic diversity and numbers of speakers of indigenous languages*.
- Bickerton D (1981). *The Roots of Language*. Ann Arbor: Karoma, 351 pp.
- Bloomfield L (1927). Literate and illiterate speech. *American speech* 2: 432–439.
- Breiman L (1996). Bagging predictors. *Machine Learning* 24: 123–140.
- Cazden CB (2003). Sustaining indigenous languages in cyberspace. *Nurturing Native Languages* : 53–57.
- Crystal D (2002). *Language death*. Cambridge University Press, 210 pp.
- Darwin C (1871). *The Descent of Man, and Selection in Relation to Sex*. London: John Murray. .
- Dorian NC (1981). *Language death: The life cycle of a Scottish Gaelic dialect*. University of Pennsylvania Press Philadelphia, 202 pp.
- Fishman JA (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened language*, volume 76. Multilingual Matters Ltd, 431 pp.
- Frank RM (2008). The language-organism-species analogy: A complex adaptive systems approach to shifting perspective on ‘language’. In:

- M FR, Dirven R, Ziemke T, Bernárdez E, editors, *Body, Language and Mind*. Vol. 2. Sociocultural Situatedness, Berlin: Mouton de Gruyter. 215–262.
- Ginsburgh V, Weber S (2011). *How many languages do we need?: The economics of linguistic diversity*. Princeton University Press.
- Hiddinga A, Crasborn O (2011). Signed languages and globalization. *Language in Society* 40: 483–505.
- Hosmer D, Lemeshow S (1989). *Applied logistic regression*. Wiley.
- Izreel S (2003) The emergence of spoken Israeli Hebrew. In: Hary B, editor, *Corpus Linguistics and Modern Hebrew: Towards the Compilation of the Corpus of Spoken Israeli Hebrew*, Tel Aviv University Press. pp. 85–104.
- Kegl J (1994). The Nicaraguan sign language project: An overview. *Signpost* 7: 24–31.
- Krauss M (1992). The world's languages in crisis. *Language* 68: 4–10.
- Lewis MP, Simons GF (2010). Assessing endangerment: Expanding Fishman's GIDS. *Revue roumaine de linguistique* 2: 103–119.
- Mapuche indians to Bill Gates: hands off our language. [http://www.smh.com.au/news/biztech/mapuche-indians-to-bill-gates-hands-off-our-language/2006/11/\[24-November-2006, accessed 27-August-2012\]](http://www.smh.com.au/news/biztech/mapuche-indians-to-bill-gates-hands-off-our-language/2006/11/[24-November-2006, accessed 27-August-2012]).
- Menard S (2002). *Applied logistic regression analysis*. Sage Publications, 128 pp.
- Morpurgo-Davies A (1998). *History of Linguistics*. Vol. IV: Nineteenth-Century Linguistics. London and New York: Longman, 464 pp.
- Mosley C (2010). *Atlas of the World's Languages in Danger*. UNESCO Publishing, <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas>. [accessed 17-July-2013].
- Németh L, Trón V, Halácsy P, Kornai A, Rung A, et al.. (2004). Leveraging the open source ispell codebase for minority language analysis. In: Carson-Berndsen J, editor, *Proc. SALT MIL*. pp. 56–59.
- Nettle D, Romaine S (2000). *Vanishing voices: The extinction of the world's languages*. Oxford: Oxford University Press, 243 pp.
- Pajkossy K (2013). *Studying feature selection methods applied to classification tasks in natural language processing*. MSc thesis, Eötvös Loránd University.
- Poser W (2012). Personal communication.
- Prensky M (2001). Digital natives, digital immigrants part 1. *On the horizon* 9: 1–6.
- Prószerky G, Novák A (2005). Computational morphologies for small Uralic languages. *Inquiries into Words, Constraints and Contexts Festschrift in the Honour of Kimmo Koskenniemi on his 60th Birthday* : 116–125.

- Quakenbush JS, Simons GF (2012). Looking at Austronesian language vitality through EGIDS and SUM. In: *Proc. 12-ICAL*.
- Rehm G, de Smedt K (2012). The Norwegian Language in the Digital Age: Norsk i Den Digitale Tidsalderen. *Springer*, 81 pp.
- Requests for new languages/Wikipedia Mandinka. http://meta.wikimedia.org/wiki/Requests_for_new_languages[14-September-2008, accessed 17-July-2013].
- Scannell KP (2007). The Crúbadán Project: Corpus building for under-resourced languages. In: *Building and Exploring Web Corpora: Proceedings of the 3rd Web as Corpus Workshop*. volume 4, pp. 5–15.
- Schmidt A (1985). The fate of ergativity in dying Dyirbal. *Language* : 378–396.
- Senghas A, Kita S, Özyürek A (2004). Children creating core properties of language: Evidence from an emerging sign language in Nicaragua. *Science* 305: 1779–1782.
- Simons GF, Lewis MP (2013). *A global profile of language development versus language endangerment*. <http://www-01.sil.org/~simonsg/presentation/Simons%20and%20Lewis%20ICLDC%202013.pdf>. [Online, accessed 27-June-2013].
- Spice B (2012). *Carnegie Mellon releases data on Haitian Creole to hasten development of translation tools*. http://www.eurekalert.org/pub_releases/2010-01/cmu-cmr012710.php. [Online, accessed 27-August-2012].
- Thangali A, Nash JP, Sclaroff S, Neidle C (2011). Exploiting phonological constraints for handshape inference in ASL video. In: *Proc. 2011 IEEE Conference on Computer Vision and Pattern Recognition (CVPR)*. IEEE, 521–528.
- Varga D, Halacsy P, Kornai A, Nagy V, Nemeth L, et al.. (2007). Parallel corpora for medium density languages. In: Nicolov N, Bontcheva K, Angelova G, Mitkov R, editors, *Recent Advances in Natural Language Processing IV. Selected papers from RANLP-05*, Amsterdam: Benjamins. 247–258.
- Zséder A, Recski G, Varga D, Kornai A (2012). Rapid creation of large-scale corpora and frequency dictionaries. In: *Proceedings to LREC 2012* pp. 1462–1465.

uztaro

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

2019

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2019. urterako harpidetza (4 zenbaki) 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun harremana kudeatzea eta gure jardueren berrin oinarritasuna edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne. Eskubidea daukazu datuak ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D. 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoak markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D. 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus



Euskararen bizitasun digitala ispiluaren aurrean

Josu Waliño

PuntuEUS Fundazioko zuzendaria

josu@domeinuak.eus

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Hizkuntza baten bizitasun digitalak bere osasunaren ezinbesteko informazioa ematen digu. Komunikazio kanal nagusi bilakatu da Ingurune Digitala, eta hizkuntzek bertan duten presentzia kontuan hartu beharrekoa da, honen bizitasun digitala ezagutzeko garaian. Euskararen bizitasun digitalari buruz ari garenean, bi eremutan zentratu gaitezke hau neurtu ahal izateko: euskarak ingurune digitalean duen eskaintza eta eskaria. Hau da, zenbat tresna eta eduki eskaintzen dira ingurune digitalean euskaraz, eta zenbat erabiltzen dira hauek. Bi ikuspegi hauek kontuan hartuta, euskararen bizitasun digitala neurtzeko moduan egon gaitezke. Hau guztia oinarri hartuta, artikulua honen helburua euskararen bizitasun digitala ispiluaren aurrean jartzea da: ingurune digitalean euskarak duen eskaria eta eskaintza aurrez aurre jartzea, alegia. • *Hitz gakoak:* Bizitasun digitala, ingurune digitala, estrategia digitala.

Abstract. A language's digital health provides key information regarding its overall health. The Digital Environment has become the world's principal channel of communication, and languages' presence in that environment must be taken into account when measuring their digital health. When trying to gauge the digital health of the Basque language, two factors need to be borne in mind: the supply of and the demand for Basque content in the digital environment. In other words, we need to measure how many tools and contents are on offer in Basque in that context, and to what extent they are used. By measuring these two factors we can calculate the digital health of the Basque language. Based on this general principle, the aim of this paper is to analyse the digital health of the Basque language, or in other words, to compare the supply of and demand for Basque in the digital environment. • *Key words:* Digital health, digital environment, digital strategy.

SARRERA

I Hizkuntza baten bizitasun digitalak bere osasunaren ezinbesteko informazioa ematen digu. Komunikazio kanal nagusi bilakatu da Ingurune Digitala, eta hizkuntzek bertan duten presentzia kontuan hartu beharrekoa da, honen bizitasun digitala ezagutzeko garaian. Gaur egun, hizkuntza baten osasuna ezagutzeko ezinbestekoa dugu ingurune digitalean bizi duen egoera ezagutzea.

Kontzeptu hau ez da berria, eta euskararen osasunaz aritzean askotan aipatutako gaia da. Euskararen kasuan ere ez da desberdina: euskarak bere etorkizuna jokoan duela badakigu, eta joko zelaietako bat ingurune digitala dela askotan aldarrikatu dugu. Baina hau esaten dugun bakoitzean, berehala dator galdera: hain garrantzitsua izanik, zein da euskararen egoera ingurune digitalean? Edo beste modu batera esanda, nola-koa da euskararen bizitasun digitala? Galdera honi erantzun mota desberdinak eman ohi zaizkio, askotan unearen arabera desberdin ebaluatuz, agian ez dugulako neurketa objektiborik finkatuta, edo, agian, ez dugulako esparrua behar bezala ezagutzen.

Abiapuntu honetatik, azken hilabeteotan hainbat gunetan azaldu dugu euskarak etorkizuna izango badu ingurune digitalean egoki garatuko duen estrategia digitala ezinbestekoa duela (Waliño, 2018). Eusko Ikaskuntzak aurrena eta ondoren Soziolinguistikaren Klusterrak 2018ko udazkenean antolatutako jardunaldietan azaldutako tesia izan da hori. Bertan, Euskararen Estrategia Digitalaren gakoak honela definitzen genituen:

Euskarak ingurune digitalean bizi duen egoera kontuan hartuta, adostasunean oinarritutako Estrategia Digital baten beharra dago. Euskara ardatz izango duen Estrategia Digitala, honako gakoetan oinarritu beharko litzateke gutxienez:

- Bitartekotza
- Burujabetza teknologikoa
- Edukien garapena
- Sustapena
- Gidaritza

Euskara ardatz izango duen Estrategia Digital propioa garatuz, euskararen bizitasun digitalean eragitea da helburua. Eta bizitasun digitalari buruz ari garenean, bi eremutan zentratu gaitezke hau neurtu ahal izateko: euskarak ingurune digitalean duen eskaintza eta eskaria. Hau da, zenbat tresna eta eduki eskaintzen dira ingurune digitalean euskaraz, eta zenbat erabiltzen dira hauek. Bi ikuspegi hauek kontuan hartuta, euskararen bizitasun digitala neurtzeko moduan egon gaitezke.

**Euskarak
ingurune
digitalean bizi
duen egoera
kontuan hartuta,
adostasunean
oinarritutako
Estrategia
Digital baten
beharra dago.
Euskara ardatz
izango duen
Estrategia
Digitala.**

**Artikulu honen
helburua
euskararen
bizitasun digitala
ispiluaren
aurrean jartzea
da: ingurune
digitalean
euskarak duen
eskaria eta
eskaintza aurrez
aurre jartzea,
alegia.**

Hau modu zuzenean erantzuteko egokiena ikuspegi kuantitatiboan zen-
tratzea litzateke: euskarak ingurune digitalean duen eskaintza zenbatekoa
den kuantifikatu, eta eskaria, hau da, erabiltzaile kopurua ere antzera
neurtu ahal izatea. Zoritxarrez, errealitatea ez da hain sinplea, eta, on-
dorioz, kopuru hauek ezin dira modu objektiboan neurtu. Ez daukagu
neurtzerik zenbat eduki argitaratzen den sare sozialetan euskaraz, edo
erabiltzaileek zenbat webgune bisitatzen dituzten hizkuntza bakoitzean.
Datu horiek ez daude eskuragarri, horregatik neurketa kuantitatiboa
egitea ez da hain sinplea.

Ondorioz, euskararen bizitasun digitalaren neurketa subjektiboa den
heinean, unearen eta balorazioaren arabera erantzuna desberdina izan
ohi da: batzuen ustez euskararen egoera ingurune digitalean osasuntsua
da, eta horretarako datu eta erreferentzia zehatzak aurkeztu ohi dira.
Kontrara, euskararen egoera kezkarria dela pentsatzeko arrazoi eta
datuak ere badaude. Bi planteamenduak defendatzeko datuak badaude,
baina ez dira objektiboak.

Nik ere, onartu behar dut, ez dudala beti erantzun bera ematen, unearen
eta aldartearen arabera optimistago edo pesimistago sentitzen bainaiz
gai honen inguruan, eta, esan bezala, datuen irakurketa subjektiboa den
heinean modu batera zein bestera interpretatu ohi dut egoera.

Analogia bat egitera ausartuko naiz: imajina dezagun Euskal Herrian
euskarazko kultur eskaintza erdararen parekoa bilakatzen dela: euskaraz
argitaratzen den literatura eta musika biderkatzen da, zinematan euskal
produkzioak atzeritik etorritakoekin lehiatzen dira, eta azken hauek
euskaraz ikusteko aukera ere badugu. Antzerkiak euskaraz zein erdaraz
ikusgai daude aretoetan, maila berean. Euskal kulturgintza osasuntsu
bat dugu Euskal Herria horretan, kuantitatiboki eskaintza oparoa dago,
maila guztietan erdararen parekoa gutxienez. Baina erabiltzaileak ez
dira eroso sentitzen: erdara kontsumitzen jarraitzen dute, bertako pro-
dukzioa ona izan arren arrotza egiten zaie, atzerriko lanak euskaraz izan
arren nahiago dituzte erdaraz kontsumitu, ohituraz erosoago sentitzen
direlako. Egoera horretan ere, euskal kulturgintza osasuntsu dagoela
ezin esan, eskaintza ona da, eskaria ez hainbeste. Zein da eskaintza
oparo horren etorkizuna? Ondorioa industriak markatuko du: zertarako
sortu eta itzuli euskaraz ez bada kontsumituko? Zergatik inbertitu eus-
karaz ez badago publikorik? Inbertsioen norabidea publikoaren eskariak
adierazten duenaren baitan geldituko da.

Euskararen bizitasun digitala antzeko moduan neurtu daitekeela esan
daiteke. Hau guztia oinarri hartuta, artikulu honen helburua euskararen
bizitasun digitala ispiluaren aurrean jartzea da: ingurune digitalean eus-
karak duen eskaria eta eskaintza aurrez aurre jartzea, alegia. Horretarako,

euskararen bizitasun digitala hiru mailatan baloratzen ahaleginduko naiz: gutxiegi, nahikoa eta gehiegi. Behin hori eginda ondorioak ateratzeko oinarri bat izan dezakegu.

GUTXIEGI

I

Euskara gutxiegi dugu ingurune digitalean. Euskaldunok eremu guztietan nahi dugu euskaraz bizi, baita ingurune digitalean ere: euskarazko edukia kontsumitu sarean, euskarazko bideo-jokotara jolastu, Interneten bilaketak euskaraz egin eta ahots bidezko aginduak euskaraz eman gure autoari. Baina ez dugu horretarako aukerarik euskara ez baitago beste hizkuntzen pare garatua ingurune digitalean.

2016ko udaberrian Euskaltzaindiak “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” izeneko ekitaldia antolatu zuen Bilbon. Bertan, “Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen” izeneko ponentzia (Waliño, 2016a) aurkeztu genuen PuntuEUS Fundazioaren izenean eta honakoa adierazten genuen:

“Euskara biziberritzeko erronka berrien inguruko hausnarketa abiatzean, ezin Internet eta komunikazio digitalak alde batera utzi. Andrés Kornai hizkuntzalariak 2013an argitaratutako “Digital language death” ikerketaren arabera munduko hizkuntzen %5 baino ez da erabiltzen Interneten, eta horrek gainerako %95a heriotzara kondenatuko du.


XXI. mendeko komunikazioak sarea du ardatz, eta hizkuntza bat bertan egotea ez da nahikoa bere desagerpen digitala ekiditeko. (...) Euskararekiko konpromiso digitala zabaltzea ezinbestekoa da gaur egun dugun %17ko erabilera tasa gainditu eta euskararen presentzia sarean indartzeko.” [Waliño, 2016a]

PuntuEUS Behatokiaren (PuntuEUS Fundazioa, 2018) arabera 2017. urtean %16koa izan da euskararen erabilera Interneten, hau da, Euskal Herriko webgune guztiak aintzat hartuz gero, euskarazko edukia duten webguneak 26.663 dira, guztien % 16 bataz beste. Kaleko erabilera baino zerbait gehiago, baina ez asko, euskararen kale erabilera %12,6koa baita azken neurketaren Altunaren arabera (Altuna, 2016).

Gaur egun, ingurune digitalean ikus-entzunezkoa da pisu gehien duen arloa (Sandvine, 2018). Interneten 2018an mugitu zen trafiko guztiaren %57 bideoa zen eta beste %8 bideo-jokoak. Trafiko nagusi horretan euskarak ez du tokirik (Waliño, 2017): ez dago apenas euskarazko edukirik Netflix edo Youtube bezalako plataforma erraldoietan, eta bideo-jokoen munduan ere hizkuntza nagusiak baino ez daude. Baina, ikusi dugun moduan, ingurune digitalean euskarak duen eskaintza baloratzeko ga-

**Gaur egun,
ingurune
digitalean
ikus-entzunezkoa
da pisu gehien
duen arloa.
Interneten
2018an mugitu
zen trafiko
guztiaren %57
bideoa zen eta
beste %8 bideo-
jokoak. Trafiko
nagusi horretan
euskarak ez du
tokirik: ez dago
apenas
euskarazko
edukirik.**

raian, ezin gara testu hutsera mugatu, ikus-entzunezkoak, bideo-jokoak, eta beste alor batzuk ere hartu behar dira kontuan, eta hor euskarak oso presentzia txikia du.



Edukien alorrean euskararen egoera mugatua bada ere, teknologiaren arloan ezin esan hobea denik. Gaur egun teknologiarekin dugun harremanean hizkuntza ezinbestekoa dugu: ingurune digitala zabaltzen ari da, eta sortzen ari diren eremu berrietan euskara kanpo ari da gelditzen: automobil edo telebistak interfazez hornituta datoz, baina euskararik gabe. Berdin bideo-joko plataforma, etxeko gailu adimendunak, eta bes-telako inguruneak ere. Teknologiarekin dugun harreman hau, gainera, gero eta gehiago hizkuntzaren bidez egiten dugu, ahoz ematen dizkiogu aginduak mugikorrari, edo etxeko laguntzaile adimendunari, baina agindu horiek ezin dira euskaraz eman, nahiz eta euskararentzat hizkuntza teknologia asko garatu den Euskal Herrian.

Europako Batasunak hainbat plan izan ditu hizkuntza teknologien alorrean I+G+b proiektuak bideratzeko azken urteotan. Hauen artean, 2017. urtearen hasieran aurkeztutako “Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project” (Europako Parlamentua, 2017) txostena azpimarratzekoa da. Bertan Europak bizi duen eleaniztasunak suposatzen duen arazoa aurkeztzen da, eta Hizkuntza Teknologiak hori garatzeko suposatzen duen aukera.

“The EU is a unique endeavour involving more than 500 million citizens sharing about 80 different languages, and while multilingualism is a key feature, it is also one of the most substantial challenges for the creation of a truly integrated EU. Language barriers have a profound effect on cross-border public services, on fostering a common European identity, on workers’ mobility, and on cross-border e-commerce and trade, in the context of a Digital Single Market. The emergence of new technological approaches, based on increased computational power and access to sizeable amounts of data, are making Human Language Technologies (HLT) a real solution to overcoming language barriers. However, several challenges, such as market fragmentation and unsubstantial and uncoordinated funding strategies, are hindering the European HLT community, including research and industry.” [(Europako Parlamentua, 2017)]

Hizkuntza teknologiak ezinbesteko tresna dira gaur egun hizkuntzen bizitasun digitala bermatzeko, baina euskara Ingurune Digitalean garatuko bada garapen hau ez da mundu globalizatuan lehiatzen diren erraldoien eskutik iritsiko. Meta-net sareak landutako “Euskara aro digitalean” liburu zurian (Rehm, 2012) adierazten den moduan, euskararentzat garatutako teknologia gehiena Euskal Herrian garatu da, bertako eragile, enpresa, unibertsitate eta ikerketa-zentroen eskutik.

Euskal Herria aitzindaria izan da alor honetan, eta euskararentzat goimailako teknologia garatu da unibertsitate zein enpresa eta ikerketa-zentroetan. EHuko IXA Taldeak 2018ko apirilaren 16an Eusko Legebiltzarreko Kultura, euskara eta kirol batzordean egindako agerraldian (Eusko Legebiltzarra, 2018) “Hizkuntza-teknologiaren abagunea” (IXA Taldea, 2017) izeneko txostena aurkeztu zuen, eta bertan honakoa azpimarratzen dute:

“Kalitate handiko hizkuntza teknologia garatzea ezinbestekoa eta presazkoa da euskararen kasuan. Ezinbestekoa, hizkuntzaren beraren irautea bermatu nahi bada; eta presazkoa, inondik ere, teknologia hauen bilakabidea eta berritze abiadura ikusita atzean geratzeko arriskua benetakoa baita. Euskal komunitatearen ikuspegitik, bada, helburu polita –eta egingarria– litzateke epe laburrean –edo ertainean– teknologia horiek guztiak aurreko atalean aipatutako egoera ertain edo on horietara ekartzea.

Teknologia horiek bultzatzea ohikoa da gure inguruko administrazioetan. Laguntzak bi arlotan bana daitezke, lotuta badaude ere: ikerkuntza eta garapena, batetik, eta hizkuntzen babesa, bestetik. Euskararen kasuan biak uztar daitezkeelakoan gaude.” [IXA Taldea, 2017]

Ikusten denez, euskararentzat hizkuntza teknologia garatu den arren, oraindik urrun gaude gaur egun behar den mailara iristeko. Meta-net sa-

**Hizkuntza
teknologiak
ezinbesteko
tresna dira gaur
egun hizkuntzen
bizitasun digitala
bermatzeko,
baina euskara
Ingurune
Digitalean
garatuko bada
garapen hau ez
da mundu
globalizatuan
lehiatzen diren
erraldoien
eskutik iritsiko.**

**Teknologikoki
ere, euskara
hizkuntza
nagusien pare
jarri behar dugu
horretarako
artearen
egoerako
hizkuntza
teknologiak
garatuz.
Euskarazko
edukien eta
tresnen eskaintza
zabaltu eta
bideragarri
egingo duen
erabiltzaile
komunitate
aktiboa garatu
behar dugu.**

rearen txostenean adierazten den moduan, euskara oraindik ere arrisku handiko hizkuntzen multzoan dago, ez dagoelako behar bezain garatua.

Hau ikusita esan daiteke euskararen bizitasun digitala ez dela nahikoa. Euskarak eduki gehiago behar ditu sarean, Euskal Herrian argitaratzen diren webguneetan euskarak presentzia handiagoa behar du, eta gaur egun nagusi diren ikus-entzunezko plataformatan euskarazko eskaintza indartu behar da. Teknologikoki ere, euskara hizkuntza nagusien pare jarri behar dugu horretarako artearen egoerako hizkuntza teknologiak garatuz. Euskarazko edukien eta tresnen eskaintza zabaltu eta bideragarri egingo duen erabiltzaile komunitate aktiboa garatu behar dugu.

NAHIKOA

I

Euskara hizkuntza txikia izanik eta duen hiztun kopuruaren arabera, osasuntsu dago ingurune digitalean. Andras Kornai hizkuntzalariak hala adierazi zuen Berria egunkariari duela hilabete gutxi emandako elkarrizketan (Orzaiz, J., 2018):

“Ehunka hizkuntzaren egoera aztertu duzu zure lanean. Euskararena ere bai?”

Bai, eta adibide polita da, heriotza digitala saihestu eta goraldia bermatzeko gaitasuna duelako. Esparru digitalari dagokionez, osasuntsu sumatzen dut, beste hizkuntza asko ez bezala. Estatistika ugari erabili ditut bizirik dauden hizkuntzen eta hilzorian direnen profilak alderatzeko, eta aldagai guztiak aintzat hartuta, euskara egoera onean dagoela uste dut.” [Orzaiz, J., 2018]

Eusko Jaurlaritzak ere behin baino gehiagotan antzeko iritzia azaldu du. 2016ko maiatzaren 16an ‘Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteztat’ (Eusko Jaurlaritza, 2016a) txostenaren aurkezpen ekitaldian (Eusko Jaurlaritza, 2016b), Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak honela laburtu zuen euskararen bizitasun digitala:

“Gurera ekarriz, maiz entzun dugun legez, euskararen osasun digitala ona dela nabarmendu behar da. Hona hemen hainbat datu hori erakusten dutenak:

— Munduko hizkuntzen %5a besterik ez da erabiltzen Interneten, eta horietako bat euskara da, zeina sareko nabigazio hizkuntzen artean 44. tokian dagoen.

— Twitterreko lehenengo 33 hizkuntzen artean dago euskara.

— Wikipedia 292 hizkuntzatan dago, eta horietako bat euskara da. Euskarazko Wikipedian 245.841 artikulutik gora daude egun, eta 31. postuan dago, Europar Batasunean ofizialak diren hainbat estatu hizkuntzaren gainetik.

— Facebook, Google eta beste sare sozial zein web zerbitzu ezagunetako asko (Firefox nabigatzailea, Wordpress plataforma, Moodle LMSa...) euskaraz erabiltzeko aukera dago.

— Euskaraz idatzi, nabigatu, komunikatu, jolastu eta lan egiteko aukera dugu; izan ere, horiek denak egiteko aukera eskaintzen baitute euskarara itzuli edota lokalizatutako tresnek.

Agerikoa da, beraz, aurrerapauso handiak eta nabarmenak egin dituela euskarak azken urteetan Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) alorrean eta Interneteko esparruan; hala ere, ezin da ahaztu, aurrerantzean hizkuntza bizia izango bada, euskara teknologia berrietan integratzen jarraitzeko ahalegin bateratuak egiten segitzea ezinbestekoa dela.” [Eusko Jaurlaritza, 2016b]

Euskararen bizitasun digital ona adierazteko erabilitako datu horietako batzuk hobeak dira gaur egun. Adibidez, Wikipediaren kasuan, 350.000 artikuluen langa gainditua dago eta gaur egun euskarazko Wikipedia 29. tokian kokatzen da (Wikipedia 2019) munduko zerrendan.

Esan daiteke Wikipedia proiektuaren kasuan bezala, euskararen bizitasun digital onaren arrazoi nagusia bere komunitate aktiboa dela. Euskarak komunitate digital aktiboa du bere inguruan, etengabe edukiak sortu eta teknologiak euskarara egokitzen dituzten pertsona, entitate eta erakundeak ditugu. Komunitate honi esker bideratu zen .EUS domeinuaren sorrera, eta Interneten lehen mailako domeinua izateak euskarari beste hizkuntza askok ez duten babes berezia ematen dio sarean. Ildo hori sustatzeko politika aktiboak eta diru-laguntzak ere bideratu dira administrazioetik, eta horrek guztiak euskarak duen bizitasun digital ona (Waliño, 2016b) izan du emaitza, beste hizkuntza batzuekin gertatzen ez den moduan.

Egoera hau azaltzeko, Andras Kornaik “Goraldi digital” kontzeptuaz hitz egiten du Berriako elkarrizketan, heriotza digitalaren kontrako prozesu moduan:

“Heriotza digitalaren kontrako prozesua da. Digitalki hilik edo hiltzorian dagoen hiztun komunitate bat hasten bada bere hizkuntza online erabiltzen eta baliabideak bere mintzairara ekartzen, gero eta presentzia handiagoa izanen du eremu digitalean. Horretarako, baina, komunitate indartsua behar da, belaunaldi aldaketa bermatuko duena.” [Orzaiz, J., 2018]

Euskararen kasuan, komunitate digital aktiboa badago, baliabideak badaude, eta oinarri hau kontuan hartuta, euskarak “Goraldi digital” egoera bizi duela esan liteke.

GEHIEGI

I

Islandia da munduan Internet gehien erabiltzen duen herrialdea (Fontaine, 2016), eta, horrek, albiste ona izan beharko lukeen arren, ondorio negatiboak

Esan daiteke Wikipediaren proiektuaren kasuan bezala, euskararen bizitasun digital onaren arrazoi nagusia bere komunitate aktiboa dela. Euskarak komunitate digital aktiboa du bere inguruan, etengabe edukiak sortu eta teknologiak euskarara egokitzen dituzten pertsona, entitate eta erakundeak ditugu.


Hizkuntza bat bere lurraldean ofizial izatea ez da nahikoa bere bizitasun digitala bermatzeko, erabiltzaileek edukien kontsumoa hizkuntza nagusien alde bideratzen badute.

izan ditu hizkuntzaren egoeran. The Guardian egunkariak argitaratutako artikulu batean (Henley, 2018) azaltzen zuenez, Islandiera itotzen ari da mundu digitalean. Bere 340.000 hiltunek eduki digital ia guztiak ingelesez kontsumitzen dituzte. Eiríkur Rögnvaldsson hizkuntzalari islandiarrak “minorizazio digitala” deitzen dio ataka horri: errealitatean gehiengoak hitz egiten duen hizkuntza mundu digitalean zokoratua denean. Honi erantzuteko, Islandiako estatuak berariazko plana garatu du, inbertsio bereziak aurreikusiz hizkuntza teknologien garapenean (Hu, 2018):

“The state plans to spend the equivalent of \$20 million over the next five years to support public and private initiatives to build Icelandic-language technologies.”
[Hu, 2018]

Ikusten denez, hizkuntza bat bere lurraldean ofizial izatea ez da nahikoa bere bizitasun digitala bermatzeko, erabiltzaileek edukien kontsumoa hizkuntza nagusien alde bideratzen badute. Islandieraren kasua nabarmena da, eskaintza badago bere hizkuntzan, baina eskariak ingelesaren alde egin du, ugaritasuna eta ohitura nortasunaren aurretik jarritz.

Munduko beste hizkuntza nagusien kasuan ere ez dago orekarik Interneteko bizitasun digitala eta hizkuntzaren errealitate soziolinguistikoaren artean. Hurrengo grafikan ikus daitekeen moduan, hiltun gehien dituzten hizkuntzak ez dira sarean gehien erabiltzen direnak. Hemen ere ingelesaren nagusitasunak gainerako hizkuntzak gailentzen ditu.



Hau ikusita, euskararen kasuan sarean dugun eskaintza eskariarekin alderatzea ezinbestekoa dugu. Ez du ezertarako balio euskarazko edukiak argitaratzea euskaraz kontsumitzeko ohiturak indartzen ez badira. Esaterako, webgune askok erabiltzaileak bere nabigatzailean ezarritako nabigazio-hizkuntzan erakusten dute edukia, baina Euskal Herriko erabiltzaileen %3k dauka nabigazio-hizkuntza moduan euskara lehenetsita. Ondorioz, edukia erdaraz jasotzen dute erabiltzaile gehienek modu lehenetsian. Mugikorren kasuan egoera antzekoa da: *Interneten ere Lehen Hitza euskaraz* (Lehen hitza euskaraz, 2019) kanpainaren baitan aztertutako ia 4.000 gailutatik %65 euskaraz jar daitezke, baina erabiltzaileen gehiengo batek hizkuntza ez aldatu eta mugikorra erdaraz erabiltzen jarraitzearen aldeko hautua egin du.

Merkatuaren logika honi jarraituta, eskaria eta eskaintzaren arteko lotura erabatekoa da. Lorea Arakistainek Sarean.eus-en (Arakistain, 2017) idatzitako artikulu batean honela azaltzen zuen:

“Mugikorraren hizkuntza eta nabigazio-hizkuntza ez dira eremu pribatuak: bisi-tatzen dituzun webguneek, deskargatzen dituzun aplikazioek eta hauen atzean dauden pertsonak badakite zein hizkuntzatan daukazun zure gailuak, guzti-guztiek. Eta, datu horietan oinarrituta eta eskari-eskaintzaren logikari jarraituta hartzen dituzte erabakiak.” [Arakistain, 2017]

Zein izango da honen ondorioa? Googlek datu hau ikusita seguruena Android sistematik euskara kentzea erabaki lezake. Zertarako gastatu dirua euskaldunok erabiliko ez dugun hizkuntza bat eskaintzen?

Andras Kornai berak ere, Berrian emandako elkarrizketan honela azaltzen zuen egoera hau:

“Hortaz, Interneteko baliabideak hizkuntza batera itzultzea ez da nahikoa mintzaira hori biziberritzeko?”

Ez, hizkuntza horrek ez baitu baliorik izanen komunikaziorako tresna gisa. Garrantzitsua da, noski, online baliabideak hizkuntza guztietan eskuragarri jartzea, baina horrekin bakarrik nekez lortuko dugu mintzaira gutxitu bat biziberritzea. Adibide bat jarriko dizut: latina. Inork ez du latinez hitz egiten, hizkuntza hila da; eta, hala ere, webgune, artikulu eta baliabide ugari daude latinera itzulita. Horrek esan nahi du latina biziberritzeko bidean dagoela? Ez. Presentzia digitala izan dezake, baina mende ugari daramatza hilik. Hortaz, digitalki prestatuta dauden hiztunak behar dira beste ezer baino gehiago.” [Orzaiz, J., 2018]

Hau guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da ezagutza eta kontzientzia-zioa lantzea, erabileraren alderdian eraginez. Eskaintza handia izan de-

Euskararen kasuan sarean dugun eskaintza eskariarekin alderatzea ezinbestekoa dugu. Ez du ezertarako balio euskarazko edukiak argitaratzea euskaraz kontsumitzeko ohiturak indartzen ez badira.

***Euskarak badu
eskaintza sarean,
badago edukia
eta badaude
tresnak, baina ez
dira nahikoa,
ingurune digitala
aldatuz baitoa.***

zakegu baina eskaria txikia da, eta bereziki gazteen artean kontzientzia piztea ezinbestekoa da, Andras Kornaik aipatutako belaunaldi aldaketa bermatu nahi badugu.

ONDORIOAK

I Euskararen bizitasun digitala ispilaren aurrean jartzen dugunean, eskaintza eta eskaria aurrez aurre talka egiten ikus ditzakegu: euskarak badu eskaintza sarean, badago edukia eta badaude tresnak, baina ez dira nahikoa, ingurune digitala aldatuz baitoa. Datuek erakusten digute eskaintza mugatua dela, eta hain aldakorra den ingurune digitalean ezinbestean areagotu behar dugula euskararen bizitasun digitala bermatu nahi badugu.

Bestalde, erabiltzaileek hizkuntza nagusien alde egiten dutela kontuan izanik dugun eskaintza gehiegi ere izan daitekeela ondorioztatu daiteke. Honek kontraesana dirudi, baina euskararen bizitasun digitala ez da eskaintzara mugatzen, erabilerarik gabeko eskaintzak ez baitu etorkizunik. Erabiltzaileak trebatu eta motibatu behar ditugu, gure komunitate digitala indartu eta ingurune digitala hain berezkoa duten belaunaldi berriak sarean euskaraz kontsumitu eta sortzera bultzatu.

Ondorioz, aztertutako datuak oinarri hartuta, “nolakoa da euskararen bizitasun digitala?” berriz galdetuko bagenu, honela erantzun genezake: euskararen bizitasun digitala ona da, baina tresna eta edukien eskaintza ingurune digitalaren aldetetara egokitu behar ditugu, eta erabiltzaileak kontzientziatu eta aktibatu euskararen alde ingurune digitalean ere. Euskararen bizitasun digitala bermatu nahi badugu eskaintza eta eskaria, biak, indartu behar ditugu.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Altuna, O. (2016). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. Euskal Herria, 2016. Soziolinguistika Klusterra. <http://www.soziolinguistika.eus/kale-neurketaeh>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Arakistain, L. (2017). *Lehen Hitza ohiko galderak* - <https://www.sarean.eus/lehen-hitza-ohiko-galderak/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Europako Parlamentua (2017). *Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project*. <https://labur.eus/ormkC>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Eusko Jaurlaritzak (2016a) *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat*. Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritzak, 2016. <https://labur.eus/gomendioak>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Eusko Jaurlaritzak (2016b): *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat*. Albistea. http://www.irekia.eus/eu/news/32675?criterio_id=

- 774257&page=2&track=1. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Eusko Legebiltzarra (2018): <https://labur.eus/aMNjV>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Fontaine, Paul (2016). Iceland Tops The World In Per Capita Internet Use. <https://grapevine.is/news/2016/01/29/iceland-tops-the-world-in-per-capita-internet-use/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Henley, J (2018). Icelandic language battles threat of 'digital extinction'. *The Guardian*. <https://www.theguardian.com/world/2018/feb/26/icelandic-language-battles-threat-of-digital-extinction>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Hu, C. (2018). Iceland's battle against digital extinction. *Quartz*. <https://qz.com/1381024/the-icelandic-language-fights-digital-extinction/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- IXA Taldea (2017) *Hizkuntza-teknologiaren abagunea*. Eusko Legebiltzarra <http://www.legebiltzarra.eus/irud/11/00/009531.pdf>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Lehen hitza euskaraz (2019). Lehen hitza.eus <https://www.lehenhitza.eus/mugikorak/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Orzaiz, J. (2018). *Hizkuntza askok ez bezala, osasun digital ona dauka euskarak*. Berria https://www.berria.eus/paperekoa/1857/008/001/2018-11-02/hizkuntza_askok_ez_bezala_osasun_digital_ona_dauka_euskarak.htm. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- PuntuEUS Fundazioa (2018). *PuntuEUS Behatokia 2018*. <https://www.domeinuak.eus/eu/behatokia>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Rehm G, Uszkoreit H. (2012). *Euskara aro digitalean, laburpen exekutiboa*. META-NET White Paper Series, Springer. <http://www.meta-net.eu/whitepapers/volumes/basque-executive-summary-eu>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Sandvine (2018). *Global Internet Phenomena Report* <https://www.sandvine.com/phenomena>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Waliño, J. (2016a). *Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen*. Euskera 61, Euskaltzaindia (42-44. or) <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Waliño, J. (2016b). *Gailurra beti dago gorago*. Gailurra beti dago gorago. Josu Waliño. <https://www.sarean.eus/gailurra-beti-dago-gorago/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Waliño, J. (2017). *Minutu bat euskaraz Interneten*. <https://www.sarean.eus/minutu-bat-euskaraz-interneten/>. [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Waliño, J. (2018). *Euskararen Estrategia Digitala, hausnarketarako ideiak*. <https://www.sarean.eus/euskararen-estrategia-digitala-hausnarketarako-ideiak/> [Azken kontsulta: 2019-04-01].
- Wikipedia. List of Wikipedias (2019). https://meta.wikimedia.org/wiki/List_of_Wikipedias. [Azken kontsulta: 2019-04-01].



bat

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA



**HARPIDETU
EDO
OPARITU**



Urtean 40 euro



ABANTAILAK:

> Hiru hilez behin,

BAT aldizkaria etxean bertan.

> Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn jaso.

→ **www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza**

943 592 556

bat@soziolinguistika.eus

3

Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean; Euskararen Aholku Batzordearen begirada

Maite Goñi

Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune digitalaren Batzorde-atalaren zuzendaria
euskaljakintza@gmail.com

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune digitalaren Batzorde-atalak hainbat zeregin hartu ditu bere gain azken urteetan, besteak beste, ingurune digitalean euskara sustatzeko egon litezkeen aukera eta arriskuei adi egotearena. Testuinguru honetan kokatu behar da 2016an argitaratutako “Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat” liburuxka. Bide-orri honen helburu nagusia da ingurune digitalean, euskararen esparruan, erabakiak hartu edota ekimenak bideratzeko aukera eta ahalmena duen edonori -bereziki Administrazioari- norabide horretan aholkua eskaintzea eta balizko erronken berri ematea. Artikulu honetan, erronka nagusiak zeintzuk izan daitezkeen aipatzen dira. Horrekin batera, Ingurune digitalaren Batzorde-atalak erronka horiek identifikatze aldera emandako zein hurrengo bide-orrirako ematen ari den urratsak ere azaltzen dira. • **Hitz gakoak:** *Ingurune digitala, zaintza teknologikoa, euskara, hizkuntza-teknologiak, informazio eta komunikazio teknologiak (IKT).*

Abstract. Over recent years, the Digital Environment Section of the Basque Language Advisory Board has undertaken a series of tasks, including that of monitoring the potential opportunities and risks of the digital environment in relation to Basque language promotion. It is in this context that we must place the booklet published in 2016 entitled: ‘ICT in Basque: recommendations for policy-makers’. The principal aim of this roadmap is to offer advice to those working in the field of Basque promotion who have both the opportunity and authority to make decisions or channel actions in the digital environment (mainly public administrations) and to highlight the challenges which exist in this area. In this paper, we identify the main potential challenges and describe the work carried out by the Digital Environment Section of the Basque Language Advisory Board in this sense, through both its past and future roadmaps. • **Key words:** *Digital environment, technology monitoring, Basque, language technologies, information and communication technology (ICT).*

SARRERA

I 2014ko abenduaren 1ean, Euskararen Aholku Batzordearen (EAB hemendik aurrera) osaera, funtzionamendua eta lan-programa aztertu ziren EABaren Osokoak egindako bilkuran. Horrela, 2015-2016 aldian lanean jardungo zuten batzordeak eta haien eginkizun nagusiak zehaztu ziren. IKT Batzorde-atal Bereziari zegokionez, besteak beste, honako eginkizun hauek aurreikusi ziren bilkura hartan:

- Euskarazko IKTen gainerako datuen bilketa sistematizatua antolatzeko irizpideak finkatzea.
- Interneten euskarazko edukiak areagotzeko ekimenak eta lehen-tasunak zehaztea.
- Euskarazko tresna teknologikoak sortu eta sustatzeko lehentasunak finkatzea.
- Euskarazko IKTen ikusgarritasuna zabaltzeko bideak definitzea.
- IKTetan euskara garatzera zuzendutako diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertzea.

Testuinguru honetan kokatu behar da EABaren IKT Batzorde-atalaren helburu nagusienetako bat: **IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak egitea**. Hau da, ingurune digitalean euskararen esparruan erabakiak hartu edota ekimenak bideratzeko aukera eta ahalmena duen edonori norabide horretan aholkua eskaintzea. Helburu hau gogoan, batzordearen lana hainbat zereginetan banatu zen:

1. Euskarazko IKT alorrean egon zitezkeen beharrak identifikatzea.
2. Identifikatutako beharren azterketa eta lehenespena egitea.
3. Lehentasun horietan sakontzea, eraginkortasun eta egingarritasunaren baitako sailkapena eginez.
4. “Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat” dokumentua aurkeztea.

Komeni da argitzea, gaur egun, errealitate berrietara egokitu nahian, batzordeak izena aldatua duela. Horrela, Ingurune Digitalaren Batzorde-atala izena hartu du azken legealdian, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) kontzeptua gaindituz.

GOMENDIOEN SORRERA

I Aipatutako helburua gogoan, hau da, IKTetan eta ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak egitea, batzordekideei testuinguru anitz eta eragile ezberdinegandik jasotako egitekoen zerrenda luze bat helarazi zitzaion. Haiek

**Euskararen
Aholku
Batzordeko
Ingurune
digitalaren
Batzorde-atalak
hainbat zeregin
hartu ditu bere
gain azken
urteetan, besteak
beste, ingurune
digitalean
euskara
sustatzeko egon
litezkeen aukera
eta arriskuei adi
egotearena.**

**Ondoko
lehentasun-
zerrendara iritsi
zen batzordea
azterketa prozesu
sakon baten
ondoren: 1.
Euskararen
IKTen egoeraren
inguruko datuak
bildu.
2) Interneten
euskarazko
edukiak sustatu.
3) Euskarazko
tresnak sortu eta
sustatu...**

abiapuntu, ondoko lehentasun-zerrendara iritsi zen batzordea azterketa prozesu sakon baten ondoren:

1. Euskararen IKTen egoeraren inguruko datuak bildu:
 1. Datuak lortu (erabilera, sartzea...). Euskararen IKTen egoeraren inguruko datu eguneratuak izateko bilketa sistematizatu eta hori euskararen adierazle sisteman integratu.
 2. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak... identifikatu eta ahalik eta azkarren itzuli/lokalizatu
 - a. Zaintza teknologikoa ziurtatu.
 - b. Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.
2. Interneten euskarazko edukiak sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere):
 1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
 2.
 - a. Ikus-entzunezko alorrean eragin.
 - b. Bideo-jokoen alorrean eragin.
 3. Publikoa den edukia sareratu (EITBren edukiak garrantzi handia duela kontuan izanda).
3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatu.
 1. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.
 2. Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak ahalik eta azkarren lokalizatu.
 3.
 - a. Hainbat aplikaziotarako tresnen garapena sustatu.
 - b. Administrazio publikoetan informatikako tresnak euskaraz konfiguratu.
4. Euskarazko IKTen ikusgarritasuna, garapena eta promozioa sustatu.
 1. Estrategikoak diren enpresekin etengabeko harremana eta elkar-lanerako bideak sustatu.
 2. PuntuEUS fundazioaren garapena sustatu.
 3. Hizkuntzen industria indartzeko egitasmoak bultzatu.
5. Diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertu.
 1.
 - a. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak ematean.
 - b. Administrazioaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatuz.
 2. Irismen maila kontuan izan dirua banatzerakoan eta neurketa sistema bateratua erabili.

LEHENETSITAKO GOMENDIOAK ETA JARDUERA ZEHATZAK

I

Hobeste ariketa areago eraman nahian, atalak edo arloak alde batera uztea eta, proposamenen eginkortasun eta eraginkortasuna aintzat hartuta, **hamabi gomendio lehenestea** erabaki genuen batzordekideok. Jarraian topa daitezke lehenetsitako gomendioen behin betiko zerrenda eta gomendio bakoitzean proposatutako ekintza zehatzak:

1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
 - a. Unibertsitate, GLAM (galeriak, liburutegiak, artxiboak eta mu-seoak) eta Wikipediaren arteko lankidetza bultzatu.
 - b. Wikilari egoiliarak sustatu.
 - c. Unitate didaktiko bat sortu irakasleek eta ikasleek Wikipedia eta Wikidia ezagutu eta ekarpenak egiten ikasteko.
 - d. Euskal Wikipediaren edizio topaketak eta maratoiak antolatu.
2. Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkar-lanerako bideak sustatu.
 - a. SPRIren nazioarteko delegaritzen eredua jarraitu eta ordezkariak izendatu intereseko enpresa hauetan nahiz Eusko Jaurlaritzan.
 - b. Saio mugatu bat egin eragile nagusi horietako bat edo birekin, Google eta Facebookekin, esaterako.
 - c. Enpresa hauek Euskal Herrian lortzen duten balio ekonomi-koaren neurketa egin. Handia bada, haien produktuak euskara ditzaten eskatu.
 - d. PuntuEUS Fundazioak azken urteetan enpresa horietako ba-tzuekin izandako harremanaren ondorioz eskuratutako ezagu-tzaren berri izateko bidea egin.
3. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kon-tuan izan diru-laguntzak ematean.
 - a. Proiektuek ekoizten duten edukia zenbatu/neurtu.
 - b. Sare sozialetan duten irismena aitzat hartu.
4. Administrazioaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft po-litika arautu, lizentzia libreak bultzatuz:
 - a. Proiektuetarako sortzen diren lan guztiak, euskaraz egon ala ez, lizentzia libreekin argitara daitezen sustatu.
 - b. Aurretik lizentzia libreekin argitaratu dituzten eskatzaileen proiektuak lehenetsi.
 - c. Diruz laguntzen diren proiektuen sarreraren %50 edo gehiago diru publikoa den proiektuetako edukietan ezinbestean lizentzia libreak izan ditzaten eskatu, kasu berezietan salbuespenak ipiniz.

**Proposamenen
eginkortasun eta
eraginkortasuna
aintzat hartuta,
hamabi
gomendio
lehenestea
erabaki genuen
batzordekideok.**

**Bideo-jokoen
alorrean eragin:
a) Merkatuan
dauden bideo-
joko
arrakastatsuenak
euskaratu
(libreak badira)
edo euskara
daitezen sustatu
(ez badira
libreak).
b) Bideo-jokoen
munduko
eragileekin
harremanak
mantendu eta
bitartekaritza
lana egin (euren
jokoak euskara
ditzaten eta
etorkizunean
aterako
dituztenak
euskaraz ere
plazara ditzaten).**

- d. Lizentzia dualak sustatu. Hots, arrazoi praktikoengatik eduki bat lizentzia librerik gabe erabili behar bada, proiektua diruz lagundua izan dadin eduki berbera lizentzia librearekin ere argitara dadin sustatu.
 - e. Eusko Jaurlaritzak eduki libreen gordailu publiko eta doakoa sortu.
 - f. Eusko Jaurlaritzak GPL lizentzia eta Creative Commons lizentzien azken bertsioen eta ondorengo kalitatezko itzulpenak eta lokalizazioak bermatu.
5. Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sartzea...).
- a. Diruz laguntzen diren proiektu guztien arrakasta neurtzeko behar diren datuak lortu.
 - b. Neurketa estandar bat diseinatu.
 - c. Neurgailu bat egokitu, "Piwik" edo antzeko bat, eta hura erabil dadin eskatu.
 - d. Urtero, edo behintzat, aldiro, inkesta bidezko emaitzekin erkatu sistema ezberdinek eman ditzaketan datuak.
 - e. Aginte taula sinple eta eraginkor bat osatu ekimen ezberdinak bilduko dituen.
 - f. Laguntzen diren IKTek euskararen sustapenean duten eragin-kortasuna neurtzeko parametroak erabaki eta taula batera ekarri.
6. Ikus-entzunezkoen alorrean eragin.
- a. Euskaraz diharduten telebistetako edukiek lizentzia librea izan dezaten sustatu, edonork erabiltzeko moduan ipiniz.
 - b. ETBko edukiak erraz topatzeko moduan ipintzeko aukerak aztertu.
 - c. Diruz laguntzen diren ikus-entzunezko edukiak libre izan daitezen bultzatu.
 - d. Gazteentzako ikus-entzunezkoak sarean egon daitezen sustatu.
 - e. Euskara eta gazteak lotzen dituzten ekimenak identifikatu eta babestu.
 - f. Gazteak euskaraz sor dezaten bultzatu (lehiaketak, youtuberrak...).
 - g. Ikus-entzunezkoen inguruan dabilen industria harremanetan ipini eta elkarlanerako sare bat sor dezaten sustatu.
7. Bideo-jokoen alorrean eragin.
- a. Merkatuan dauden bideo-joko arrakastatsuenak euskaratu (libreak badira) edo euskara daitezen sustatu (ez badira libreak).
 - b. Bideo-jokoen munduko eragileekin harremanak mantendu eta bitartekaritza lana egin (euren jokoak euskara ditzaten eta etorkizunean aterako dituztenak euskaraz ere plazara ditzaten).
 - c. Bideokontsolak eta jokoen plataformak lokalizatzen saiatu.

- d. Bideo-jokoen joerak jarraitu, arrakasta izaten hasten diren bezain laster haien euskaratzea bultzatzeko.
 - e. Euskaraz dauden kontsola, plataforma eta jokoen hedapenean lagundu.
 - f. Euskaraz arituko diren *gamer*-ak eta *gameplay*-ak sustatu.
 - g. Bideo-joko ikasketen eskaintza (ikasketa ofizialak, tailerrak...) euskaraz ere egon dadin sustatu.
8. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak eta bestelakoak identifikatu eta ahalik eta azkarren itzuli/lokalizatu.
- a. Datuen bilketa egitean, gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak, etab. zeintzuk diren galdetu.
 - b. Aplikazio, CMS, sare sozial, eta abarrak libreak direnean, euskarazko lokalizazioa eta itzulpena ondo daudela ziurtatu eta eguneratuta mantendu.
 - c. Jabedunen kasuan, enpresa horiekin bitartekaritza lana egin eta euskara ditzaten ahalbidetu edota bidea erraztu (estilo liburu bat sortu itzulpen hauek egiteko, hiztegi terminologikoa...).
 - d. Euskaraz sortutako aplikazioak bultzatu eta babestu.
9. Zaintza teknologikoa ziurtatu.
- a. Eragile ezberdinek (erakunde, akademia, adituak...) parte hartuko duten IKT eta Internet ikertegia sortu.
 - b. IKT eta Interneti buruzko euskarazko argitalpen eta komunikateak indartu.
 - c. Prospektibarako diziplina anitzeko lan taldeak osatu, etorkizunari begirako gai hauen inguruko ikerketak egingo dituztenak.
10. Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.
- a. Komunitate hauei esker ona eman eta berariazko laguntza eskaini (euren lana aitortu, baliabideak edo sostengu ekonomikoa eskaini diru laguntza espezifiko edo ekimen zehatzen bidez, eta abar).
 - b. Komunitate hauek biltzeko ekimenak bultzatu eta proiektu bateratuak egiteko erraztasunak eman.
 - c. Komunitate hauen arteko etengabeko harremana sustatu.
11. Publikoa den edukia sareratu.
- a. Publikoa den eta euskaraz dagoen edukiaren inbentarioa egin (ikus-entzunezkoak, aldizkariak, entziklopediak, tesiak...) eta eduki hori sareratzeko nahiz lizentzia libreekin ipintzeko aukerak aztertu. Eduki horiek sareratzeko lehentasunak ezarri, besteak beste, irismena kontuan izanik.
 - b. ETB 1eko edukiek lizentzia librea izan dezaten sustatu, edo nork erabiltzeko moduan ipiniz.

**Sarean euskara
sustatzen ari
diren ekimenak
identifikatu eta
bultzatu:**
**a) Komunitate
hauei esker ona
eman eta
berariazko
laguntza eskaini
(euren lana
aitortu,
baliabideak edo
sostengu
ekonomikoa
eskaini diru
laguntza
espezifiko edo
ekimen zehatzen
bidez, eta abar).**
**b) Komunitate
hauek biltzeko
ekimenak
bultzatu eta
proiektu
bateratuak
egiteko
erraztasunak
eman.**

**2016ko
maiatzaren 16an
aurkeztu zen
publikoki
“Euskarazko
IKTak:
Gomendioak
herri-
aginteentzat”.**

- c. ETBko “Nahieran” dagoen edukiari “aurkibidea” ipini, era-biltzaileek errazago topa dezaten edukia. Beste telebista batzue-tako eduki librea (Goiena...) “Nahieran” integratzea sustatu.
- d. Diruz laguntzen diren edukiak libre izan daitezen eta denon eskura ipin daitezen bultzatu.
- e. Googlerekin, besteak beste, etengabeko harremana ahalbidetu eta sareratutako eduki publikoaren berri eman (ahotsa, ikus-en-tzunezkoak, testua...). Zenbat eta eduki gehiago indexatu euskaraz, orduan eta hobeto garatuko dituzte euren produktuak euskaraz ere erabili ahal izateko.
- f. Euskal bideoteka edo mediateka sortu eta bertan dokumentalak, filmak, sailak, eta abar ipini, edonork kontsulta eta erabil ditzan.

12. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.

- a. Euskarazko hizkuntza-teknologiak bultzatzeko berariazko plana garatu.
- b. Erosketa Publiko Berritzailearen edo antzeko tresnen bidez, administrazioak hizkuntza- eta ahots-teknologiak kontsumitzea bultzatu.
- c. Euskarazko hizkuntza-teknologiak software eta gailu ohikoe-netan egon daitezen bultzatu.
- d. Euskarazko hizkuntza-teknologiaren zabalkundea bultzatu.

2016ko maiatzaren 16an aurkeztu zen publikoki “Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat” (E liburuxka. Hura eskuratzeko interesa izanez gero, IREKIA ataletik eskura daiteke, bibliografian eskaintzen den estekari jarraituz. Bertan, gomendio bakoitzaren azalpen sakonagoa irakurri ahal izango da; izan ere, ondoko galderen erantzuna topatu ahal izango baita gomendio bakoitzarekin batera:

- Zertan datza gomendioa?
- Zergatik da garrantzitsua sustatzea?
- Zein ekimen zehatz egin daiteke hura bultzatzeko?

IKT Batzorde-atal Bereziaren lana izan zen, beraz, hasierako zereginen proposamen zerrenda luzea aztertu, proposamen berriak luzatu, moldatu eta lehenestea. Halaber, eginkizun zehatzak eta horiek gauzatzeko ekimenak proposatzea. Ibilbide honetan, batzordekideez gain, kanpoko hainbat eragile adituren aholkua ere kontuan izan zen.

Leheneste prozesua argitze aldera, komeni da jakitea arrazoi ezberdinak izan zirela kontuan hasierako zerrenda luze hartatik proposamen batzuk lehenesteko eta beste batzuk baztertze. Esaterako, batzuk ez ziren lehenetasunen zerrendara iritsi garrantzia kontuan izanda, alegia, beste ekimen batzuk garrantzitsuagozat jo zirelako. Beste batzuk, ordea, ga-

rrantzitsuak izanagatik ere, ulertu zen abian zeudela une hartan eta, hortaz, beste ekimen batzuk sustatzea eraginkorragoa izan zitekeela.

Inori ez dio ihes egiten gomendioak neurri eta zailtasun ezberdinetakoak direnik; edonola ere, bere horretan aurrera egitea erabaki zen, erakunde bakoitzari aukera emanez, bere ahalbide eta ahalmenen baitan, gomendio batzuei ala besteei heltzeko.

Hari beretik, garrantzitsua da kontuan izatea proposatutako ekintzak adibide zehatzak baino ez zirela. Helburu nagusia 12 egitekoen garrantzia azpimarratzea, haien inguruko gogoeta eta eztabaida piztea eta, noski, argi pixka bat eskaintzea izan baitzen. Hain aldakorra den testuinguru honetan, gerta zitekeen erabakia hartzeko orduan aipatzen diren ekimenak baino zerbait eraginkorragoa egin ahal izatea edo aipatutako proposamenen bat bideragarri ez izatea.

HURRENGO BIDE-ORRIA LANTZEN

I

Hurrengo bide-orria lantze aldera, ekimen ezberdinak burutu dira Ingurune Digitalaren Batzorde-atalean.

Alde batetik, txostena argitaratu eta bi urte geroago, 2018an, gomendioen ordura arteko betetze mailaren azterketa egitea erabaki zen, alegia, argitara eman zenetik azterketa burutu zen arte gomendio bakoitza herri-aginteez zein neurritan bete zuten ikertzea. Horrekin batera, ordura arte betetako gomendioen jarraipena egiteko adierazleak proposatu ziren eta 12 gomendioak erabat betetzeko urratsak identifikatzeko ahalegina ere egin zen. Horiek denak “*Euskarazko IKT-ak: gomendioak herri-aginteztat*” dokumentuaren diagnostikoa izeneko lanerako barne-dokumentuan bildu ziren. Jarraian aurkezten dira bertatik ateratako hainbat ondorio:

1. Txostena 2020an iraungiko da

Gomendioak testuinguru jakin batean egin dira, eta epe jakin batean indarra galduko du euren proposamenak. Adostasun handia azaldu da 2020. urtea epemuga gisa jartzeko. 2020rako bete ez diren gomendioetatik abiatuta, elkarriketatuek proposatzen dute txostenaren hurrengo edizioa egin beharko litzatekeela, hori bai, txostena bera egiteko prozedura, helburuak eta abarrak berraztertuz.

2. Ez dago guztiz bete den gomendiorik

Proposatutako jarduerak kontuan hartuta, ez dago erabat bete den gomendiorik. Nolanahi ere, 1, 3, 5 eta 6 gomendioak izan dira betetzemaila altuena izan dutenak. Bereziki aipatzekoa da euskarazko Wikipedia

***Txostena
argitaratu eta bi
urte geroago,
2018an,
gomendioen
ordura arteko
betetze mailaren
azterketa egitea
erabaki zen,
alegia, argitara
eman zenetik
azterketa burutu
zen arte
gomendio
bakoitza herri-
aginteez zein
neurritan bete
zuten ikertzea.***

**Emandako
gomendioei
jarraipena egin
nahi izan diegu
ahots ezberdinak
batzordera
ekarritz; eta
esparruari
dagokion zaintza
egin nahi izan
dugu, egon
litezkeen aukera
nahiz mehatxu
ezberdinen berri
izateko.**

sustatzeko herri-aginte ezberdinetatik egin den ahalegina (1), diru-laguntzak ematean eduki propioen sorkuntza kontuan hartu izana (3) eta euskarazko ikus-entzunezkoen alorrean egin diren ekimen azberdinak (6).

3. Hainbat gomendio (2, 5, 9 eta 12) nagusitzen hasi da

Gomendio guztien edukia esanguratsua dela esan daiteke. Edonola ere, hainbat gomendioaren (2, 5, 9 eta 12) garrantzia azpimarratzekoa da. Horien baitan, besteak beste, euskal hiztun komunitatearen ingurune digitaleko politika bateratzea, euskarazko ingurune digitalaren bilakaerari buruzko datu eraginkorrak izatea politika eraginkorrak zehazteko edota euskarazko ingurune digitalaren inguruko ikerketa etengabe egiteak bultzada handia eman diezaioke euskararen presentziari ingurune digitalean.

4. Gomendio berriei begira

Elkarrizketatuek lehentasunezkoztat jotzen dute txostenean dagoeneko jasota dauden gomendioei heltzea; hala ere, bi gai berri ateratzen dira hainbatek proposatuta: datu handiak edo datu masiboak (Big Data) eta sakelako kontsumoa. Bide-orri berrian sartzeko egokiak izan daitezkeen gaiak lantzeko orduan, horien inguruko gogoeta bultzatuko da mahai-gainera litezkeen beste gai berri batzuekin batera.

Arestian aipatu bezala, hurrengo bide-orria lantze aldera, ekimen ezberdinak burutu dira Ingurune Digitalaren Batzorde-atalean. Batetik, aipatu bezala, gomendioen betetze maila aztertu da. Bestetik, eragile ezberdinak gonbidatu ditugu euskararen egungo egoera ingurune digitalean hobeto ulertzen saiatzeko. Helburua bikoitza izan da. Lehenik, emandako gomendioei jarraipena egin nahi izan diegu ahots ezberdinak batzordera ekarritz; eta, bigarrenik, esparruari dagokion zaintza egin nahi izan dugu, egon litezkeen aukera nahiz mehatxu ezberdinen berri izateko. Beraz, une honetan esan dezakegu iturri ezberdinetatik -diagnosi txostena, gonbidatutako eragileak eta beste- jasotako informazio aberatsa dugula esku artean hurrengo bide-orriari heltzeko, zeina 2020. urtean argitaratzea aurreikusten dugun. ●

BIBLIOGRAFIA

- Euskararen Aholku Batzordea (2016). *Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat*. Gasteiz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/32675-euskarazko-iktak-gomendioak-herri-aginteentzat-dokumentua-aurrezteu-bilbon>
- Euskararen Aholku Batzordea (Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia) (2018). "Euskarazko IKT-ak: gomendioak herri-aginteentzat" dokumentuaren diagnostikoa. Argitaratugabeko txostena.

4

Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean

Aitzol Astigarraga

aitzolete@gmail.com

Xabier Cañas

xabiercanas@gmail.com

Euskal Wikilarien Kultura Elkarte (EWKE)

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Behin baino gehiagotan aztertu izan da euskararen eta IKTen arteko harremana: nolakoa da gure hizkuntzaren osasun digitala? Izango al du tokirik etorkizun digitalizatuan? Ez dira, guretzat behintzat, erraz erantzuteko galderak. Artikulu honetan, Euskarazko Wikipediaren talaiaetik helduko diogu gaiari. Wikipedia guztien artean, 29. postuan dago euskarazkoa eta eredu gisa aipatu izan da han eta hemen. Entziklopedia digitalaz arituko gara beraz, bere ezaugarriez, edukiaz, elikatzen duen komunitateaz eta egun dauzkan zailtasun eta erronkez ere bai. Wikipediari emandako begirakoak euskararen osasun digitala hobetzeko pistak eman ditzakeelakoan egingo dugu. • *Hitz gakoak:* Euskarazko Wikipedia; Eduki digitalak; Komunitatea; Ekosistema; EWKE elkarte.

Abstract. The relationship between Basque and ICT has been analysed on more than one occasion: Is Basque in good digital health? Will there be room for it in the digital future? These questions are not easy to answer (at least not for us). In this paper, we analyse the issue from the perspective of the Basque Wikipedia. Of all the Wikipedia language versions, the Basque one is 29th on the popularity ranking, and is considered a role model in many countries. This paper therefore focuses on digital encyclopaedias, their characteristics, contents, the community that feeds them and related difficulties and challenges. We carry out this analysis in the belief that an examination of Wikipedia will provide insight into how we can improve the overall digital health of the Basque language. • *Key words:* Basque Wikipedia; Digital content; Community; Ecosystem; EWKE association.

SARRERA

I Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean: horixe X. Sozio-linguistika Jardunaldietan¹ jarri ziguten gaia, Bilbon 2018ko azaroaren 6ko bilkurara gonbidatu gintuztelarik. Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko (EWKE)² kide gisa, Euskarazko Wikipediaren talaiatik jarri ginen itsaso digitalari begira. Aurkezpen hartan jorratutakoak dira, hain zuzen ere, artikulua honetara ekarri ditugunak.

Komunikazioaren eta teknologiaren garaiotan, euskararen egoera eta erronka berrien inguruko hausnarketa abiatzean, ezin inolaz ere digitala albo batera utzi. András Kornai hizkuntzalariak garbi adierazi zuen 2013an (Kornai, 2013): hizkuntza guztien artean %5ak baino ez dauka erabilera aktiboa Interneten, eta horrek gainerako %95a heriotza digitalera kondenatuko du. Hizkuntza baten eremu digitaleko osasunaren adierazle gisa, besteak beste, Wikipedia proposatzen du Kornaik. Bere hitzetan, giltzarria da hizkuntza eta kultura eremu digitalean kartzeko.

Bestalde, Euskararen Aholku Batzordeak, Euskarazko IKTak txostena argitaratu zuen 2016an (EAB, 2016), IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak emanaz. Lehenetsun handieneko gomendioen artean, Euskarazko Wikipedia sustatzea agertzen da lehenbiziko postuan.

Horixe beraz artikulua honen abiapuntua. Wikipediaren eta euskararen osasun digitala estuki lotuta baldin badaude, nolakoa da Euskarazko Wikipediaren egoera? Euskaldunon informazio beharrei erantzuten die? Nork eta nola elikatzen du?

Galdera horiek banan bana aletzen joateko, ondoko puntuak landuko ditugu:

- Wikipedia gaur egun dena izatera nola iritsi den. Testuingurua, barne dinamika, erabiltzaile komunitatea eta, oro har, bere funtzionamendua.
- Euskarazko Wikipediaren erradiografia eta ezaugarriak
- Euskal Wikilarien Kultura Elkartea (EWKE). Nola sustatu deza-kegu Euskarazko Wikipedia?
- Arazoak, ondorioak eta aurrera begirakoak.

Wikipediaren eta euskararen osasun digitala estuki lotuta baldin badaude, nolakoa da Euskarazko Wikipediaren egoera? Euskaldunon informazio beharrei erantzuten die? Nork eta nola elikatzen du?

**Wikipedia
entziklopedia bat
da, digitala,
eduki librez
hornitua eta
eleaniztuna.
"Edonork editatu
dezekeen
entziklopedia
librea".**

WIKIPEDIARI BURUZ

Historia (edo historiaurre) laburra

2000. urtean Jimmy Walesek³ Nupedia egitasmo entziklopedikoa jarri zuen martxan. Bere asmoa, adituek egindako ekarpenekin *online* entziklopedia librea eraikitzea zen. Adituen ekarpenekin soilik osatutako entziklopedia, mundu akademikoan horren ezaguna den parekoen ebaluazio sistema (edo *peer review*)⁴ erabiliaz. Jimmy Wales konbentziturik zegoen akademia munduko jendeak boluntario gisa egingo zituela ekarpenak bertan. Urtebete pasa zen eta esperimentuak ez zuen arrakastarik izan. Ekarpak tantaka zetozen eta gainera, berrikuspen sistema konplikatuak artikuluen argitaratzea asko zailtzen zuen. Orduan, sortzaileek azpiegitura aprobetxatze aldera egitasmoa irekitzea erabaki zuten, edonork editatzeko aukera zabalduz. Wikipedia izena jarri zioten saiakera berriari. 2001eko urtarrilean izan zen hori.

Arrakasta berehalakoa izan zen. Lehen urtean 20.000 artikulua sortu ziren eta bigarren urtean berriaz, aurrekoan halako bost! Lehen bertsio hura ingelesez zegoen bakar bakarrik baina berehala bildu ziren hizkuntza berriak: martxoan zabaldu zen alemanez eta handik gutxira beste hizkuntza handiak. Euskarazko lehen artikulua, *Lurra*⁵ urte bereko abenduak 6an argitaratu zen. Azkar igo ginen beraz Wikipediaren trenera. Nupedia egitasmoari buruz, zer esan: 2003an itxi zuten, eta tarte horretan 24 artikulua soilik osatu zituzten.

1. irudia. Euskarazko lehen artikulua Wikipedian. 2001eko abenduak 6.

19:59, 6 abendua 2001ko berrikusketa

Lurra

Eguzki handi batek, lau planeta erraldok, bost txikiagok, berrogei satellite baino gehiagok, 100.000 satellite baino gehiagok, eta beharbada 100.000 milioi izar lokak eratzen dute Eguzki sistema, eta hala ere, batean baino ez dugu bizitza aurkituko: Lurran.

Grekotarrek, dagoeneko, Lurra esfera bat zela zeritosen, hasieran filosofia zela kausa (Filosofian, esfera, formarik petoena baita), baina gero behaketen bidez ere baieztatu zuten.

Aristoteles iparralderantz bidaiatuz aurrean izar berriak agertzen eta atzean utzitakoak desagertzen zirela ohartu zen. Aldiberean, Lurrak illargian uesten zuen itzala esfera bat zelako eta unti bat itsasorategen denean lehenengoz kasioa eta geroago mastak desagertzen direlako fenomenoak egiaztatu zituen. Hori guztia ez lirateke izango Lurra esfera bat ez balitz.

Grekotarrek ere Lurra bira egiten zuela iradoki zuten baina Erdi Aroko jakitun guztiek deitoratu zuten uste hori. Hau dela kausa **Galileo** sutean hiltar egon zen.

Hala eta guztiz ere, **Copernico**-ren teoriek Lur higie baten teoriek logikabatu zuten. 1851-ean beste jakitun frantziar batek esperimentu ospetsu bat egin zuen. Jean Bernard leon **Foucault**-k Pariseko eleiza baten sabaiait pendulu handi bat eskegi zuen eta lurra zirkulu bat margoitu zuen. Lurra errotatu ezean penduluak bere plano gordeko zukeen, hau da, ez zukeen bira egingo zirkuluan, baina Lurra errotatu balitz penduluak bira egingo zukeen zirkuluan. Eta penduluak bira egin zuen!!!! Hori, Lurra errotatzen zen, penduluak bere bideari eusten zuen bitartean. Ekuadorretik iparralderantz norabide baterantz bira egiten du, eta Ekuadorretik hegoalderantz aurkako norabiderantz. Ekuadorrean ez du batere birarik egiten eta lurburuetan (poloetan) eguneko bira bat egiten du. Lurburu eta Ekuadorren tartean motelago egiten du bira.

Haizea ere Lurraekin batera mugitzen da Ekuadorren abiadurarekin mugituko balitz Lurra motelago doala Ekuadorretik iparralderantz eta haizeak ekialderantz joko balu, arinago joango litzateke eta beraz, espiral baten moduan eskerretarantz egingo luke bira. Ekuadorretik hegoalderantz berriz, eskumatarantz egingo luke bira. Hori Coriolis eragina deritzo, Gaspard Gustav **Coriolis**-koa hori behatu zuen lehena izan baitzen.

Testua Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziari jarraituz erabili daiteke; baliteke beste klausularen batzuk ere aplikatu behar izatea. Xehetasunen berri izateko, ikus erabilera-baldintzak.

Pribazitate politika Wikipediari buruz Lege oharra Garatzaileak Cookie adierazpena Mugikorreko bista



Argazkia: euWikipedia.

Entziklopedia digital librea

Hitz egin dezagun bada guztiok ezagutzen dugun plataformaz. Wikipedia entziklopedia bat da, digitala, eduki librez hornitua eta eleaniztuna. “Edonork editatu dezakeen entziklopedia librea” bezala deskribatu ohi da. Ingeleseztan sortu bazen ere, hasieratik izan du bokazio eleaniztuna. Jimmy Walesek, honela deskribatzen du: “Kalitate oneneko entziklopedia askea sortzeko ahalegina da, munduko edozein erabiltzailei bere hizkuntzan zuzendua.”

Bere izaera eleaniztuna ezagutzea beharrezkoa da egitasmoa bere osotasunean ulertzeko. Wikipedia ez da bat eta bakarra, asko daude eta beraien artean ezberdinak eta beregainak dira. Euskarazkoa ez da ingelesaren, katalanaren edo frantsesaren kopia hutsa. Wikipedia bakoitzeko erabiltzaileek erabakitzen dute zer eta nola landu beren entziklopedian. Bertsio bakoitzaren artikuluen kalitatea eta gaien ugaritasuna, atzean dagoen komunitatearen bizitasun edo aktibitate digitalaren ondorioa da. Horregatik bat egiten dugu Kornaik esandakoarekin: hizkuntza komunitatearen parte hartze edo bizitza digitalaren erakusgarri dela, alegia.

Wikipediako artikuluek linkak edo loturak dauzkate, irakurtzen ari garen gaiarekin lotutako orrialdeetara salto egin nahi badugu ere, informazio gehigarri bila. Horrekin batera, Wikipedian agertzen den informazioa egiaztagarria izan behar da, iturri fidagarrietan oinarritutakoa. Wikipedia ez da beraz norberaren ideiak, iritziak, ikerketak... argitaratzeko leku bat. Eduki originalik ezin da publikatu bertan. Gai jakin bati buruz, iturri fidagarrietan beste batzuek argitaratutakoa laburbildu edo jasotzeko lekua da.

Wikipedia elkarlanean oinarritzen da, ordainsaririk gabe idazten duten boluntarioen ekarpenekin. Internetarako sarbidea duen edozein pertsonak Wikipediako artikuluetan idatzi eta aldatetako egin ditzake. Erabiltzaileek modu anonimoan lagun dezakete, izengoitiz edo, nahi izanez gero, beren benetako identitatearekin. Wikipedian parte hartzen duen boluntarioari wikilari deitu ohi zaio. Wikipediaren oinarri nagusiak bost euskarritan⁶ laburbilduta daude:

1. Wikipedia entziklopedia bat da.
2. Wikipediak ikuspegi neutral bat erabiltzen du.
3. Wikipedia eduki askea da, edonork erabil, edita eta bana dezakeena.
4. Wikipedian dihardutenek errespetuz eta gizalegez tratatu behar dute elkar.
5. Wikipediak ez du arau finkorik, azaldu ditugun bost euskarrietatik aparte.

**2001. urtean
sortu zenetik
azkar hasi da
online
entziklopedia
librea, gaur egun
kontsultarako
webgune
erabiliena
bihurtzeraino.
302 hizkuntza
edo bertsio
ezberdin dauzka
eta guztira 39
milioi artikulua
biltzen dituzte.**

Esan behar da, Wikimedia Fundazioa ez dela inondik inora arduratzen entziklopedia birtualaren lanik garrantzitsuena eta intentsiboena antolatu, kudeatu edo kontrolatzeaz: artikuluak argitaratzea, berrikustea eta hobetzea. Lan ikaragarri hori wikilarien komunitate erraldoiaren esku dago.

2001. urtean sortu zenetik azkar hasi da *online* entziklopedia librea, gaur egun kontsultarako webgune erabiliena bihurtzeraino. 302 hizkuntza edo bertsio ezberdin dauzka eta guztira 39 milioi artikulua biltzen dituzte. Egutero, mundu osoko ehunka milaka lagunek editatzen dute eta milaka artikulua berri sortzen dituzte, *online* entziklopediaren ezagutza handitzeko. Adin, kultura eta jatorri guztietako pertsonak egin dezakete beren ekarpena, testuak idatziz, erreferentziak eguneratuz edo irudi edo bestelako multimedia edukia gehituz. Ekarpenera bera da balioesten dena eta ez erabiltzearen esperientzia edo izan dezakeen curriculum.

Wikipedia ez da jabetza pribatua ez eta, ohiko zentzuan ulertuz gero, jabetza publikoa ere, ez baita inongo administrazio publiko, estatu edo gobernurena. Norena da, orduan? Zentzurik hertsienean guztion ondarena da eta, beraz, herri-ongiari dagokio (ingelesezko *commons* edo gaztelarazko *procomún*) (Lafuente 2007). Eduki guztia Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (zehazki CC-BY-SA)⁷, edozein pertsonak edukiak kopia, banatu eta aldatu edo moldatu ditzakeelarik nahieran, beti ere iturria aipatuz gero.

Wikipediaren kudeaketa eta mantentze-lanak, funtsean, argitaratzaileen eta erabiltzaileen esku daude. Irabazi asmorik gabeko fundazio bat bada, Wikimedia Fundazioa, Wikipediari eta bere “anai-arrebei” (Commons, Wikidata, Wikiteka, Wikiliburuak, etab.)⁸ laguntza ematen diena. Laguntza hori, funtsean, jarduerak sustatzera eta zerbitzarien azpiegitura teknikoa mantentzera bideratzen da. Guzti horren finantziaketa erakunde eta erabiltzaileen borondatezko dohaintzetatik lortzen da.

Esan behar da, hala ere, Wikimedia Fundazioa⁹ ez dela inondik inora arduratzen entziklopedia birtualaren lanik garrantzitsuena eta intentsiboena antolatu, kudeatu edo kontrolatzeaz: artikuluak argitaratzea, berrikustea eta hobetzea. Lan ikaragarri hori wikilarien komunitate erraldoiaren esku dago.

Wikipedia zuzeneko lankidetzak da, paperean oinarritutako kontsultatuturri tradizioetatik arras desberdina. Paperean argitaratutako entziklopediak ez bezala, Wikipedia etengabe sortu eta eguneratzen da. *Work-in-progress* egoeran dago beti, aldaketa etengabe. Artikuluak garatu ahal, osatuagoak eta orekatuagoak izaten dira. Inork ez du espero artikulua osatu bat idaztea lehen zirriborroan. Normalean, artikuluak oso txikiak dira hasieran eta gero, erabiltzaile askoren ekarpenei esker, hazten eta hobetzen doaz. Adibide gisa jarri dugun *Lurra* artikulua (euskaraz argitaratu zen lehenbizikoa), 114 wikilari ezberdinen 440 ekarpen edo edizio izan ditu sortu zenetik gaur arte. Oso erraza da, orrialdearen goiko aldean *Aldatu* loturan klik eginez hasten da guztia.


Euskarazko Wikipedia (EW)

Sarritan entzun dugu EW osasuntsu dagoela. Horren erakusgarri gisa, artikuluko kopuruaren arabera Wikipediaen ranking-a erabili ohi da: zerrenda horretan, artikuluko kopuruari erreparatuta, 29. postuan dago gaur egun EW¹⁰, estatu hizkuntza diren eta milioika hiztun dauzkaten beste batzuen aurretik: turkiera, daniera, bulgaria edo greziera besteak beste. Baina, hala ere, goiko postuetatik oso urrun. Hiztun bakoitzeko artikuluko kopuruari erreparatuko bagenio zerrenda horretan oraindik eta gorago agertuko ginateke.

Ingeleseko bertsioak ia 6 miloi artikuluko dauka (bera da artikuluko gehien daukana eta WP guztien erreferentzia) eta euskaraz berriz 340.000 daukagu. Ikaragarritzko aldea dago, bai.

Zenbaki horiek biltzen dutena irudikatzeko ahaleginean, kalkulatuta dago Wikipediatako ezagutza jasotzeko zenbat liburuki behar diren: ingelesez 2798 liburuki¹¹, eta euskaraz 128¹². 2. irudian ikus daitekeen bezala, egongela handia behar da Wikipedia jasotzeko. Bataren eta bestearen arteko aldeak hor jarraitzen du. Hala ere, 1999ko Lur Entziklopedia Tematikoa 13 liburukiz osatua zegoen. Zalantzarik gabe, ezagutza modu egituratuan biltzeko orain arteko ahaleginik handienaren aurrean gaude.

2. irudia. Wikipediaen tamaina liburukitan adierazita. Ezkerraldean ingelesezkoa eta eskuinaldean euskarazkoa.



Argazkia: euWikipedia.

Ingeleseko bertsioak ia 6 miloi artikuluko dauka (bera da artikuluko gehien daukana eta WP guztien erreferentzia) eta euskaraz berriz 340.000 daukagu. Ikaragarritzko aldea dago, bai.

**Euskarazko
Wikipediaren
erronka
nagusiena
eraginkortasuna
bilatzea da,
alegia, beste
eragileekin
elkarlana
sustatzea.**

Baina nortzuk daude Euskarazko Wikipediaren atzean? Bada, komunitate trinko eta saiatu bat. Tarteka ekarpenen bat egiten duten 400 laguneko taldea baldin badago ere, Wikipediaren muina 25 lagun inguruko taldeak osatzen du, hilerio 100 ekarpenetik gora egiten dituztenak¹³.

EW ez da bat-batean iritsi gaur egun daukan bolumena izatera. Artikulu kopuruaren bilakaerari erreparatzen badiogu¹⁴, 2007an 17.000 artikuluen muga gainditu zuela ikusiko dugu. 2011. urtean, 70.000 artikulutara iritsi zen, 2014an 200.00 artikulutara eta 2018ko uztailaren 18an 300.000. artikulura iritsi zen, *euskararen jatorria*¹⁵ artikulua erekin.

Gure komunitatearen tamaina kontutan hartuta, ikaragarritzko ahalegina egin da hemezortzi urteotan artikulua sortu eta gai ezberdinei buruzko edukia euskaraz jartzeko.

Tamalez, egiten den lan guztia ez da oraindik nahikoa euskal hiztunen ezagutza beharrak asetzeko. Komeni da kontuan hartzea, kantitatea garrantzitsua izanda ere, arreta berezia jarri beharko litzatekeela edukien kalitatean datozen urteetan. Gaur egun dagoen lankide masa kritikoa, baina, ez da nahikoa erronka horiei euren kabuz aurre egiteko eta ez da erraza izango, hiztun kopuruari erreparatuz, lankide kopurua modu naturalean handitzea. Euskarazko Wikipediaren erronka nagusia eraginkortasuna bilatzea da, alegia, beste eragileekin elkarlana sustatzea.

ZERGATIK SUSTATU WIKIPEDIA?

I

Sarean euskaraz nabigatzea, erreka gurutzatzeko harri batetik bestera saltoka ibiltzea bezalakoa da. Ez da erraza beste aldera bustialdirik hartu gabe iristea!

Erreka gurutzatzeko harri berri bat jarri nahi dugunean, hau da, eduki digitala euskaraz sortu edo garatu nahi dugunean, erabaki korapilatsuena gure kabuz proiektu digital berria sortu edo lehendik dagoen beste batekin bat egitea izan ohi da. Oro har, lehenengo aukeraren alde egiten dugu – bakarrik edo beste batzuekin sarean –, eta, bertan, edukien ikusgarritasun eskasari eta motibazioaren galera mailakatuari aurre egin behar izaten diogu sarritan. Gure proposamena bestelakoa da, estrategia osagarri gisa Wikipedian inplikatzearena. Norbere egitasmoetan egin-dako ekarpenekin Wikipedia ere elikatzea alegia.

Norberaren akzio eremua albo batera utzi gabe, Wikipedia sustatzeko argudioak biltzen ahaleginduko gara. Erreka gurutzatzeko harriak bata bestearengandik hurbilago jartzeko ahalegina litzatekeena.

Zergatik sustatu Euskarako Wikipedia?

Lehenik eta behin, hor dagoelako. Gaur egun, 5. orrialderik bisitatuena da Interneten¹⁶ -bere aurretik Google, YouTube, FaceBook eta Baidu-, publizitaterik gabe gainera. Horrez gain, Wikipedia ez da enpresa pribatu baten jabetzakoa ez eta nazioarteko korporazio handi bateko parte ere, eta ez da gure datuekin salerosketan aritzen. Posizionamendu horri esker, informazio bila sarera jotzen dugunean -urrutiko lekuak ezagutzeko; idazle, bertsolari edo aktore baten berri jakiteko; historiako gertakari konkretu bat kontsultatzeko-, Wikipedia izaten da lehenbiziko emaitza. Ikusgarritasun hori aprobatxatu beharko genuke euskarazko edukietarako sarbide gisa.

Bigarrenik, informazio iturri klasikoen (akademikoak eta tradizio handikoak) erabilera atzera geratu da azken urteotan. Paperezko entziklopediak desagertu dira (Encyclopædia Britannica¹⁷ ez da dagoeneko argitaratzen). Online kontsultagarri izatea eta doakotasuna giltzarri dira aukera egiteko orduan. Horrek gurea bezalako hizkuntza gutxituentzat aukera berriak zabaltzen ditu; izan ere, entziklopedia bat argitaratze eta mantentzearen gastuak desagertzen baitira.

Hirugarrenez, ezagutzaren arloan lan egiten duten erakunde eta elkarten ekarpenekin, fidagarritasunean irabaziko luke. 2005ean, *Nature* aldizkariak ingelesezko Wikipedia eta Britannica entziklopediak konparatu zituen zientzia alorreko artikuluei zegokienez (Giles 2005). Ikerlan horrek pareko fidagarritasun-maila zeukatela erakutsi zuen (42 artikulua aztertu zituzten eta 4na akats larri antzeman zieten batari eta besteari). Jendearen Wikipediarekiko pertzepzioa aldatzen hasteko balio izan zuen. Gurean, kalitateari dagokionez, mugarri izan zen 2010ean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ekimenez *Lur hiztegi entziklopedikoaren* eta *Lur entziklopedia tematikoaren* edukiarekin Euskal Wikipedia aberastea¹⁸. Guztira 11.015 sarrera landu ziren. Kalitatean jauzi handia eman genuen ekarpen horrekin. Lan horretan aritu ziren wikilariak oreka falta nabarmendu zuten orduan: “artikulu bikainekin batera, badira oraindik aski kaskarrak direnak”¹⁹. Ordutik hona erreferentzia sistemak indartu dira eta edukien kopurua zabaldu eta hobetzeko ahalegin handia egin da. Wikipediako artikuluen kalitatea neurtzeko sistema bat dago gaur egun, artikulua batek izan duen garapena neurtzen duelarik kalitate irizpide ezberdinen arabera²⁰. Bide horretatik egindako ekarpen berriak behar ditugu beraz.

EWKE ELKARTEA

I

2016an, wikilari talde batek elkarte bat osatzeko asmoa erakutsi genuen. Euskal Wikilarien Kultura Elkartea (EWKE) izena eman genion eta, batez ere, erakundeekin bitartekaritza lanak errazteko eta elkarteekin lanki-

Paperezko entziklopediak desagertu dira (Encyclopædia Britannica ez da dagoeneko argitaratzen). Online kontsultagarri izatea eta doakotasuna giltzarri dira aukera egiteko orduan. Horrek gurea bezalako hizkuntza gutxituentzat aukera berriak zabaltzen ditu.

**Egitasmo honen
ekarpen eta
berrikuntza
nagusia,
unibertsitate eta
ikastetxeetako
irakasle eta
ikasleen parte
hartze aktiboa
da. Izan ere,
auzolan erraldoia
jarri dugu
martxan
unibertsitateko
ikasleek klaseko
lan gisa
Wikipediako
artikuluak idatz
ditzaten.**

detza sustatzeko sortu genuen. Gure helburua ezagutza dagoen lekuetara iristea da, Wikipedia eta Wikimediako egitasmoak ezagutzera ematea, jendaurrera begirako ekitaldiak antolatzea eta, ahal denean, lankidetzak sortu eta sustatzea.

Hezkuntza egitasmoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan, 12-16 urteko ikasleentzat kalitatezko 1.000 artikuluko egitasmoa²¹ jarri genuen abian 2017an. Egitasmo honen ekarpen eta berrikuntza nagusia, unibertsitate eta ikastetxeetako irakasle eta ikasleen parte hartze aktiboa da. Izan ere, auzolan erraldoia jarri dugu martxan unibertsitateko ikasleek klaseko lan gisa Wikipediako artikuluko idatz ditzaten. Eredua beste herrialde batzuetan (Jemielniak et al. 2016) (Minguillón et al. 2018) erabilitako berbera da: Unibertsitateko ikasleek euren ikasgaiaren barruan aurkeztu beharreko lanak erabiliko dira, Wikipediara igoz egiten den sorkuntza guzti hori. Irakasleek lan hori ebaluatuko dute, ikasgaiaren barruan eta, gainera, zuzenketak egingo dituzte, artikuluen kalitatea bermatzeko. Zalantzarik gabe, EWKeren egitasmorik handinahikoena da, bere baitan beste egitasmo txikiago ugari biltzen dituen eta 2019an, aurten, amaituko dena.

3. irudia: EHUko Gipuzkoako campusean egindako editatoia. Familia argazkia.



Argazkia: Theklan, CC BY-SA 4.0.

**Egitasmo
honetan,
liburuzainek,
liburuak
zaintzeaz gain,
idazleak ere
zaintzen dituzte
Wikipedian,
haien artikulua
sortuz,
gaurkotuta
mantenduz eta
ahalik eta
baliabide gehien
eskainiz.**

Gainerakoan, Txikipediaren eta Wikipediaren funtzionamendua berbera da, tresna eta baliabide berberak dituzte. Wikipedia guztien artean aitzindaria izan da egitasmo hau eta nazioartean ere interesa piztu du.

6. irudia. Txikipedia: 8-13 urte artekoentzako entziklopedia librea.



IDAZLEZAINAK

I

Kultur ondarearekin lan egiten duten erakundeak GLAM akronimoaren baitan biltzen dira, (Galeriak, Liburutegiak, Artxiiboak eta Museoak). GLAMwiki inizatibak berriz, kultur erakundeen ondarea hedatzen laguntzea du helburu, horretarako Wikipedia baliatuz. Hortxe kokatzen da Idazlezainak Wikiproiektua²³. Bere xede nagusia da sortzaile eta hauen obrei buruzko artikulua sortzea, hobetzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetara itzultzea. Liburuzainez osatutako lantaldea osatu da helburu horrekin. Liburutegiak, zerbitzu publiko gisa, tokiko egileak (idazleak, poetak, ilustratzaileak, artistak...) babesteko eta sustatzeko bokazio du, haiek baitira gertaera literarioaren muina eta iturburua. Egitasmo honetan, liburuzainek, liburuak zaintzeaz gain, idazleak ere zaintzen dituzte Wikipedian, haien artikulua sortuz, gaurkotuta mantenduz eta ahalik eta baliabide gehien eskainiz.

Idazlezainak proiektuan Donostiako liburutegietako 15 liburuzainek parte hartzen dute. Donostia Kultura, Koldo Mitxelena Kulturunea eta HABE Liburutegia erakundeetako liburuzainak dira.

2018/19ko erronka nagusia literatura unibertsala da. Hezkuntza Egitasmoarekin bat eginez, literatura unibertsaleko obrak sortu edo eta lantzen dituzte asteroko dinamikan. 2018an landutako artikulua liburu batean jaso ziren egindako ahaleginaren erakusgarri (Literatura unibertsaleko 54 autore 2018).

7. irudia: Idazlezainak taldea Wikipediari buruzko formazio-saioa jasotzen.



Argazkia: lurre, CC BY-SA 4.0.

Wikiproiektu hau, Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako egileen eta obren inguruko informazioa eta ezagutza modu askean hedatzeko helburuarekin jaio zen.

8. irudia. Bernardo Atxaga Donostiako Haur Liburutegian.



Argazkia: Xabier Cañas, CC BY-SA 4.0.

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Wikiproiektu hau, Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako egileen eta obren inguruko informazioa eta ezagutza modu askean hedatzeko helburuarekin jaio zen.

2015eko udazkenean abiatu zen, Donostiako Haur Liburuaren Dokumentaziogunea, Irakasleen Unibertsitate Eskola eta euskal wikilari talde baten arteko elkarlanetik.

Donostiako Irakasle Eskolako ikasleak dira protagonista nagusi. Wikipediako editore bihurtu eta Haur eta Gazte literatura irakasgaiko edukiak lantzen dituzte urtero Wikipedian. Bestetik, Haur Liburutegiaren Dokumentaziogunea dago, ikasleek artikulua zuzen dokumentatzeko eta erreferentziak txertatzeko bibliografia eta datuak biltzen dituztenak. Eta, azkenik, EWKE elkarteak trebakuntza eta baliabide teknikoak arduratzen da.

2016 eta 2017ko uzta liburu batean jaso genuen (Haur eta gazte literatura 2016), egindakoaren erakusgarri gisa. Aurtun, laugarren aldiz jarri da martxan egitasmoa.

9. irudia: "Amona zure lholdi" libururako Asun Balzolak egindako marrazkia.
Donostiako Haur Liburuaren Dokumentazio gunean dago jatorrizkoa.



Lankidetzarako eskema edo egitura, 10. irudiak erakusten du

10. irudia: Haur eta Gazte Literatura egitasmoaren lankidetza-eskema.



ULIAKO LORE BARATZAK

Wikiproiektu honen helburua Euskal Wikipedian artikulua sortzea edo aberastea izan da, Uliako Mintegietako parkean dauden landare eta zuhaitz bitxi guztientzako artikulua euskaraz sortuz²⁴.

Horrekin batera, mundu digitala eta parkearen arteko lotura gisa, parkeko zuhaitzetan egurrezko QRak jarri ziren. QRpedia²⁵ aplikazioa baliatu zen horretarako, eta ondoren QR bakoitza egurrean inprimatu zen parkeko zuhaitzetan zintzilikatzeko. QR kodea telefonoarekin irakurrita bisitariak bere hizkuntzako Wikipedian ikus dezake landarearen izena eta deskribapena.

2017ko martxoaren 25ean, Wikipedian landutako 81 artikulua 330 orrialdeko liburu bihurtu genituen eta denon eskura dago (Uliako Mintegietako parkea: Ezkutuko altxorra hirian bertan 2017).

11. irudia. Uliako Mintegietako altxorra QR kodeen bidez eskuragarri.



Argazkia: Ksarasola, Xabier Cañas CC BY-SA 4.0.

WIKIEMAKUMEOK

Wikipedia hura elikatzen duen komunitatearen isla den neurrian, komunitate horren desoreka eta gabeziak jasotzen ditu. Horien artean nabarmenena, genero desoreka²⁶.

Alde horretatik, arrakala hori txikiagotzeko eta erreferentziazko emakumeak Wikipedian bistartzeko helburuarekin, lan bikaina egiten ari da WikiEmakumeok²⁷ taldea.

Zaila da ikuspegi orokor bat ematea Wikipedian urte honetan lortutakoaren inguruan, wikilarien lana etengabea delako, eta iturri ezberdinetatik edaten duelako. EWKerekin elkarlan zuzenik izan ez bada ere, WikiEmakumeok bezalako ekimenek egindako ekarpena nabarmentzeko modukoa da, erreferentziazko emakumeak bistaraziz eta kalitateko artikulua landuz.

WikiEmakumeok bezalako ekimenek egindako ekarpena nabarmentzeko modukoa da, erreferentziazko emakumeak bistaraziz eta kalitateko artikulua landuz.

**Wiki txiki
infernu handi
efektua deitu
diogu, izen
bereko
programari
erreferentzia
eginez. Bere
momentuan
konturatu ginen
telebistako
programak herri
jakin bat
bisitatzean
(demagun
Eskoriatza),
herriari
dagokion
Wikipediako
artikuluaren
bisitek gora
egiten zutela.**

Aipatu berri ditugun egitasmo horiek dira gutxi asko EWKE sortu zenetik martxan jarritako nabarmenenak. Azpimarratu nahi dugu haietan sustatzaile lana egin dugula guk, ez gara inolaz ere edukia jarri dugunak. Ezagutza sortzen den lekuetara joan gara eta WPn parte hartzeko gonbita egin diegu. Garai bateko atez ateko entziklopedia saltzaileen gisan, etxez etxe joan gara geure liburua erakutsiz eta ‘erosteko’ konbentzitu ditugu. Diferentzia batekin, gure liburua hutsik zegoen eta eurak izan dira edukiz bete dutenak.


HERRI TXIKI INFERNU HANDI

Elkarlan zerrenda luzea ikusita badirudi EWri ez zaiola dantzarako bikotekiderik falta. Eta, azkenaldian behintzat, hala da. Baina, hasieran aipatu dugun bezala, gurea bezalako komunitate txikiarentzat ezinbestekoak dira eraginkortasuna eta lankidetzak.

Baina beste edozein entziklopediari bezala, EWri balioa irakurleek ematen diote. Nola jakin edukia irakurleentzako erabilgarria den ala ez? Esperimentu txiki baten berri eman nahi genuke.

Wiki txiki infernu handi efektua deitu diogu, izen bereko programari erreferentzia eginez. Bere momentuan konturatu ginen telebistako programak herri jakin bat bisitatzean (demagun Eskoriatza), herriari dagokion Wikipediako artikuluaren bisitek gora egiten zutela baita. Hamabigarren irudiak Eskoriatza eta Elizondo artikuluei dagozkien orrialde bisitak erakusten ditu²⁸. Bisita kopuruari erreparatuta, erraz igarri daiteke programa noiz eman zuten telebistaz.


12. irudia. Eskoriatza eta Elizondo artikuluen bisitak Euskarazko Wikipedian, 2017ko urriak 5 eta 18 artean.



Poztekoa da hori. Imajinatzen ditugu ikus-entzuleak sofán jarrita telebistaren aurrean mugikor edo tabletari begira halako herrik honenbeste biztanle dauzka eta antzeko datuak komentatzen.

Ez dakit nola baina okurritu zitzaigun, badaezpada, bilaketa berbera egitea gaztelerazko Wikipedian, eta 13. irudiko emaitzak erakutsi zizkigun²⁹:


13. irudia: Elizondo eta Escoriaza artikuluen bisitak gaztelerazko Wikipedian, 2017ko urriak 5etik 18ra bitarte.



Harrigarria ez al da? Egun berean, euskarazkoak halako hamar dira gaztelerazko Wikipediak jasotako bisitak.

Antzeko neurketa egin genuen *Maialen Lujanbio*³⁰ artikuluekin. Kasu honetan, 2017ko abenduko bisitak bistaratuko ditugu, ikusteko ea finalak eraginik izan zuen bisita kopuruan. Hamalaugarren irudiari erreparatuz gero, finalaren egunak bat egiten du bisiten gorakada nabarmenarekin.

14 irudia: Maialen Lujanbio artikuluen bisitak Euskarazko Wikipedian.




Neurketa egin genuen Maialen Lujanbio artikuluekin. Kasu honetan, 2017ko abenduko bisitak bistaratuko ditugu, ikusteko ea finalak eraginik izan zuen bisita kopuruan.

Ezinbestekoa da jarrera proaktiboa sarean ere, nabigatzaile eta bilatzaileak euskaraz konfiguratu eta lehen hitza euskaraz eginez. Bestela, alper alperrik gabiltza euskarazko edukiak sustatzen, gero eduki horietara iristerik ez badaukagu.

Aurrekoan bezala ariketa errepikatuz gero gaztelerazkoarekin fenomeno bera azalduko zaigu. Euskarazkoak halako sei dira gaztelerazko bisitak!

15. irudia: Maialen Lujanbio artikularen bisitak gaztelerazko Wikipedian.



Zein ote da horretarako arrazoia? Bi bururatzen zaizkigu guri:

- Wikipedia (edo Internet) gaztelaniaz kontsultatzeko ohitura handia euskaldunen artean.
- Nabigatzailea gazteleraz konfiguratuta edukitzea mugikor edo ordenagailuan.

Biak ala biak izango dute eragina seguru asko, baina batez ere bigarrenak asko kezkatzen gaitu. Informazioa euskaraz izan, hura jaso nahi, baina nabigatzailea erdaraz konfiguratuta daukagunez ezin iritsi bertara.

Euskaraldian 196.000³¹ lagunek parte hartu genuen, *belarriprest* zein *ahobizi*. Egunerokoan, kalean, lanean, gure hizkuntza ohiturez gogoeta egiteko balio izan zuen kanpainak, baita zenbait ohitura eta inertzia aldatzen ahalegintzeko ere. Baina eta sarean? Gure plaza digitalean *ahobizi*, edo *klikbizi*, al gara?

Ezinbestekoa da jarrera proaktiboa sarean ere, nabigatzaile eta bilatzaileak euskaraz konfiguratu eta lehen hitza euskaraz eginez^{32 33}. Bestela, alper alperrik gabiltza euskarazko edukiak sustatzen, gero eduki horietara iristerik ez badaukagu.

ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

I Sarean bizirik dauden hizkuntzen % 5 horretan jarraitu nahi badugu, euskal komunitate digital aktiboa behar dugu nola edukiak kontsumitzerakoan hala sortzerakoan. Artikulua Kornairen hitzekin zabaldu dugu

eta bukaeran ere ekarri nahi genuke hizpidera. Zera diosku Wikipediari buruz: hizkuntza baten kultura webean txertatuko duen wikilari komunitatea beharrezkoa da, baina ez da baldintza nahikoa benetako biziraupenerako (Kornai, 2013). Ez ditzagun bada bistaz galdu bi jarraibide nagusi:

Wikipedia ez da zentrala

Wikipediako artikulua bat idazteko, gauza bakarra da ezinbestekoa: gutxienez iturri fidagarri bat izatea, izan egunkari, aldizkari edo, are hobeto, akademiako argitalpen edo beste edozein entziklopedia (esaterako, *Auñamendi Eusko Entziklopedia*³⁴). Zentzu horretan Wikipedia informazioaren eraldatzailerik bat baino ez da. Wikipedia bezalako proiektu batek arrakasta izan badu mundu digitalizatu eta informazioz eta albistez gainezka dagoen honetan, informazio guzti hori sintetizatze eta antolatze izan duen gaitasunagatik izan da (Saorín 2012). Izatez, wikipediagintza sintesi lan batean oinarritzen baita. Baina ez dago sintesirik aurretik hausnarketa eta ikerketa zabalak bermatzen dituen kultura sistema baten ezean. Wikipedia informazio sistemaren katebegi bat baino ez da, inportantea bai, baina soilik bat gehiago. Bere benetako zentzua hartzen duena sistema orokorrago batean bere bezero eta hornitzaile funtzioa betetzen duenean.

Gaiarekin analogia ekologiko bat egiten badugu, Wikipediak informazioaren *harrapakari* baten antzera funtzionatzen du. Harrapakinak informazio iturri fidagarriak dira. Eta lan horretaz etekina ateratzen duena, nola ez, irakurlea da, kasu honetan, euskarazko informazio fidagarri eta azkarra nahi duen irakurlea. Badira, beraz, informazioaren kate honetan hiru funtzio orokor elkar eragiten dutenak eta elkarren menpeko direnak: badira lehenik *informazio sortzaileak* eta horiek dira egunkariak, aldizkariak, ikerketak eta goian aipatu ditugun gainerako bigarren mailako informazio iturriak. Bigarrenik, *informazio eraldatzailerik* daude, aurrekoek sortutako informazio guztia erraz irakurtzeko sintesia egiten dutenak; hor kokatuko genuke Wikipedia. Azkenik, eta beraz, *kate trofiko* honetan garrantzitsuenak, *irakurleak* edo *kontsumitzaileak* ditugu. Garrantzitsuenak ditugu zeren edozein idatziren helburu irakurria izatea baita; ez du zentzurik idazteak bestearentzat ez bada. Irakurriak izateko idazten dugu. Irakurlerik gabe, gureak zentzua galtzen du.

Wikipedia indartsu eta handi bat izatea ezinbestekoa da, baina ez dugu mundu digital osasuntsu bat izango euskarazko informazio iturri askotakoak eta fidagarriak ez baditugu. Eta are gutxiago informazioaren kontsumitzaile euskaldun kopuru kritiko bat ez badugu. Katearen hiru atalak lanean aritu behar dira elkarrekin, elkarri lagundu behar diote, *irabazi-irabazi* formulak bilatu behar dituzte euskararen arlo digital txikian eraginkorra-

**Wikipedia
indartsu eta
handi bat izatea
ezinbestekoa da,
baina ez dugu
mundu digital
osasuntsu bat
izango
euskarazko
informazio iturri
askotakoak eta
fidagarriak ez
baditugu**

goak izateko. Uste dugu goian eman ditugula horren adibide esanguratsu batzuk eta bide hori jorratzen eta egonkortzen jarraitu behar dugula.

Birziklatu! Ez dugu beste mundurik (euskaldunok behintzat)

Oparotasunean ez dago estutasunik eta zilegi izan daiteke esfortzuen xahutzea, baina ia gai guztietan hain eskas dabilen gure hizkuntzaren alorrean, eraginkorrak eta besteekiko lehiakorrak izateko dugun bide bakarra gure ekoizpenen balioa biderkatzea da, eta horretarako, denon arteko lankidetzaz ezinbestekoa da. Wikipedia, proiektu kolaboratibo gisa, izugarri egokia da gurea bezalako inguru digital batentzat, berberetaren kontzeptua (Lessig 2008) informazioa libre zabaltzearen ondorio nagusietako baita. Wikipediak aukera ematen du egun bakarreko agerkari batean hil behar zuen albisteak edo irudiak bizi berri eta eraldatu bat izateko; batetik bi egiteko; transformatzeko eta berregiteko.

Horretarako uste dugu denon indarrak optimizatzea ezinbesteko dela, batek egiten duen lana lehen helburu horretan soilik gera ez dadin, izan unibertsitateko lan baten aurkezpena, eskualdeko mapa edo albiste bat. Gaiak eta ezagutzak, baliozkoak direnean, berrerabili eta birziklatu egin beharko genituzke, bigarren eta hirugarren bizitza bat izan dezaten, baina batez ere, momentu jakin batean, norbait informazio horren beharren badago, modu erraz eta azkar batean eskura izan dezan.●

OHARRAK

1. <http://www.soziolinguistika.eus/jardunaldia>
2. <http://wikimedia.eus/>
3. https://eu.wikipedia.org/wiki/Jimmy_Wales
4. https://eu.wikipedia.org/wiki/Parekoe_n_ebaluazio
5. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Lurra>
6. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Bost_euskarriak
7. <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>
8. <https://www.wikimedia.org/>
9. <https://wikimediafoundation.org/>
10. https://meta.wikimedia.org/wiki/List_of_Wikipedias#All_Wikipedias_ordered_by_number_of_articles
11. https://en.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Size_in_volumes
12. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Wikipediaren_tamaina#Kalkulua
13. <http://eu.wikiscan.org/>
14. [https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskarazko_Wikipedia_\(webgunea\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskarazko_Wikipedia_(webgunea))
15. https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskararen_jatorria
16. <https://www.alexa.com/topsites>
17. https://eu.wikipedia.org/wiki/Encyclop%C3%A6dia_Britannica

18. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Lur_Hiztegiak_Wikipediaratzeko_Lantegia
19. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Lur_Hiztegiak_Wikipediaratzeko_Lantegia#Euskal_Wikipediaren_educien_aldetik
20. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Artikulu_nabarmenduak
21. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza>
22. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Azala>
23. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Idazlezainak>
24. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:UliakoLorebaratzak>
25. <https://qrpedia.org/>
26. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Genero_oreka
27. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:WikiEmakumeok>
28. <https://tools.wmflabs.org/pageviews/?project=eu.wikipedia.org&platform=all-access&agent=user&start=2017-09-25&end=2017-10-15&pages=Elizondo> | Eskoriatza
29. <https://tools.wmflabs.org/pageviews/?project=es.wikipedia.org&platform=all-access&agent=user&start=2017-09-25&end=2017-10-15&pages=Elizondo> | Escoriaza
30. https://eu.wikipedia.org/wiki/Maialen_Lujanbio
31. https://www.berria.eus/paperekoa/1967/002/001/2018-11-23/ekiteko_garaia.htm
32. <https://www.lehenhitza.eus/>
33. <https://librezale.eus/2018/12/01/izan-ahobizi-digital/>
34. https://eu.wikipedia.org/wiki/Au%C3%B1amendi_Eusko_Entziklopedia

ERREFERENTZIAK

- Euskararen Aholku Batzordea (IKT Batzorde-atala). Euskarazko IKTak. Gomendioak herri-aginteentzat. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016. <https://labur.eus/0LLLG>
- Giles, Jim. Internet encyclopaedias go head to head. *Nature* aldizkaria, 438, 900–901 orr., 2005.
- Haur eta gazte literatura. 2016 eta 2017an landutako artikulak. EWKE. PediaPress 2017.
- Jemielniak, D., Aibar, E. . Bridging the gap between wikipedia and academia. *Journal of the Association for Information Science and Technology*, 67(7), 1773-1776 orr., 2016.
- Kornai, András. Digital language death. *PloS one*, vol. 8, no 10, p. E77056, 2013.
- Lafuente, Antonio. Los cuatro entornos del procomún. 2007. <http://hdl.handle.net/10261/2746>
- Lessig, Lawrence. *Remix: Making art and commerce thrive in the hybrid economy*. Penguin, 2008.
- Literatura unibertsaleko 54 autore. Idazlezainak 2018. Donostia, EWKE. 2018.
- Minguillón, J., Aibar, E., Lerga, M., Lladós, J., & Meseguer-Artola, A. (2018). Wikipedia in academia as a teaching tool: from averse to proactive faculty profiles. *arXiv preprint arXiv:1801.07138*.
- Uliako Mintegietako parkea. Ezkutuzko altxor bat hirian bertan. Uliako Auzo Elkarte. PediaPress 2017.
- Saorín, Tomás. *Wikipedia de la A a la W*. Barcelona: Editorial UOC. 2012.



Soziolinguistika

aldizkaria

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK	AGORTUA	41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA	76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)
2/LURRALDE TASUNA		42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK	77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)
3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA	AGORTUA	43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK	78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA	AGORTUA	44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA	79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN
6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA		45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN	81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN
7-8/HERRI BALTIKOAK	AGORTUA	46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN	82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA		47/DONOSTIA-BAIONA EUROHORIA	83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN
10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZA: NORMALIZAZIOA	AGORTUA	48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN	84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA
11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN	AGORTUA	49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA	85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
12/HIZKUNTZEN GEROA EUROPAR BATASUNEAN		50/UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA	86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ
13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA		51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA	87-88/EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA
15/IRLANDERA GAUR EGUN	AGORTUA	52/EUSKARA ETA ETORKINAK	89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK	AGORTUA	53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA	90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA
17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA		54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN	91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN
18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN		55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN	93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
19/HIZKUNTZA HERRIOTZA		56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN	94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK
20-21/HIZKUNTZA PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN		57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN	95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK
22-23/SOZIOLOGIAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK		58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN	96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN
24/EUSKARAREN ERROKKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN		59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN	97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA	AGORTUA	60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK	98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA
26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN		61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLOGIAZKO IKERKUNTZA	99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKO (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK
27/EUSKARA BATUAK 30 URTE		62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAZKO (1981-2011). (II) ERABILERA
28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN		63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO	101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO
29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN		64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK	102/IX. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK (II) ERABILERA
30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ		65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA	103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK
31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ		66/TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA	104/HIZTUN BERRIAK
32/NEURKETA SOZIOLOGIAZKOAK EUSKAL HERRIAN		67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ	105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA		68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA	106/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO IKERKUNTZA 2016KO DATU ESTATISTIKOAK
34/UEMA 1991-2000		69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK	107/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)
35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA		70/EUSKARAREN LEGEAK	108/OSASUNGINTZA ETA EUSKARA
36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA		71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ	109/XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK
37/EUSKAL SOZIOLOGIAZKO INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA		72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?	110/ARNASGUNEAK ETORKIZUNEKO ERROKAK
38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN		73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!	
39/ESLOVENIA		74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK	
40/QUEBEC		75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN	

5

Euskara ingurune digitalean hedatzeko ditugun hiru erronka: zaintza-sistema, adimen artifiziala eta lankidetzatza teknologikoa

Josu Aztiria Urtaran

Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia unitateko zuzendaria. Elhuyar Fundazioa

j.aztiria@elhuyar.eus

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Hizkuntzen arteko arrakala digitala handitzen ari dela dio Europako Parlamentuak 2018ko irailaren 11n onartu zuen “Language equality in the digital age” txostenak. Era berean, Islandia, Frantzia edo Espainiako Gobernuak hizkuntza-teknologien eta adimen artifizialaren alorrean berariazko plan indartsuak martxan jartzeko ekimenak abiatu dituzte. Euskararen bizitasun digitala baliabide urriko beste hizkuntza asko baino hobea izan arren, ez dago arriskutik kanpo, eta azkar baino lehen heldu beharko genioke erronka teknologiko eta sozial honi. • **Hitz gakoak:** *Adimen artifiziala, hizkuntza-teknologiak, bizitasun digitala, ingurune digitala, burujabetza teknologikoa.*

Abstract. According to the ‘Language equality in the digital age’ report approved by the European Parliament on 11 September 2018, the digital divide between languages is growing. Moreover, the Icelandic, French and Spanish governments have set in motion ambitious plans in the specific fields of language technologies and artificial intelligence. Although the resources available for fostering the digital health of the Basque language are more plentiful than those available to many other languages, the risk remains, and we must act swiftly to rise to this technological and social challenge. • **Key words:** *Artificial intelligence, language technologies, digital health, digital environment, technological sovereignty.*

Ingurune digitala, hiztun gutxiko eta baliabide urriko hizkuntzentzat, aterpe zein arrisku-esparru izan daiteke. Hizkuntza batek ingurune digitalean duen egoerari bizitasun digitala deitzen zaio, eta zenbat eta hobeto egon ingurune digitalean, orduan eta bizitasun digital hobeia izango du.

Urteotan, sarritan egokitu zait okzitanieraren¹ eta aragoieraren² bizitasun digitala eta garapen teknologikoa aurrera eramateko aholkularitza-lana egitea. Aipatutako hizkuntza-komunitateek estrategia eta baliabideak (urriak badira ere) izan badituzten arren, oinarritzko oztopo batekin egiten dute topo: estandarrik ez izatea. Alegia, estandarrik ez izateak proiektuen kostuak biderkatzea, eraginkortasuna murriztea eta biziberritzerako ekimenen eragina ahultzea dakar. Hizkuntza batek ingurune digitalean duen egoera azken hamarkadetan egin duen lanaren emaitza da sarri, honenbestez, hizkuntza estandarrik, euskalgintza sozialik, erakundetzerik eta hezkuntza egindako lanarik gabe euskarak ezinezkoa izango luke orain ingurune digitalean dituen baldintzak izatea. Baliabide gutxiko hizkuntza-komunitateek beraz, bizitasun digitalean aurre-pausoak emateko estrategia diseinatzerakoan ikuspegi globalarekin eta hizkuntza-biziberritzeko estrategia oso baten baitan heldu behar diote erronkari³.

Alderantzizkoa ere gertatzen da, ordea: estatu-egiturak, babes juridiko erabatekoa, hizkuntza estandarra eta ezagutzaren unibertsaltasuna bermatuta izan arren ingurune digitalean ahul egotea. Adibidez, Islandiako Gobernuak argi ikusi du hori, eta oso kezkatuta dago islandieraren egoerarekin; izan ere, ingurune digitalean ingelesak Islandiako gazteen artean duen nagusitasunak kaleko eta aurrez aurreko komunikazio-harremanetan eragin du, islandiera egunerokotasunetik ordezkatzeko arriskuarekin. Islandiako Gobernuak islandierak ingurune digitalean duen ahulezia eta horrek gainera kale-erabileran izan duen eragina ikusirik, 3,5 milioi euro inbertituko ditu urtero hizkuntza-teknologietan, islandiera punta-puntako teknologia eta sektoreetan presente egon dadin eta ingelesaren ozeanoan ito ez dadin⁴.

Europako puntako hizkuntza-teknologietako adituek aspaldi ohartarazi dute Europako hizkuntza gehienek ez bide dutela biziraungo aro digitalean. Europako 80 bat hizkuntzetatik 30etan hizkuntza-teknologiek duten babes-maila aztertuta, adituen konklusioa da 30 hizkuntza horietatik 21etan “hutsa” edo “eskasa” dela digitalki garatzeko babes edo laguntza. Azterketa META-NET sareak garatu zuen, 34 herrialdetako 60 ikerketa-zentroz osatutako bikaintasun-sare europarrak, eta tartean euskararen liburu-zuria ere irakurgai duzue⁵.

Azterketaren emaitzak oso dira kezagarriak. Europako hizkuntzarik gehienek behar baino baliabide gutxiago dauzkate, eta haietariko zenbait

***Ingurune
digitalen
ingelesak
Islandiako
gazteen artean
duen
nagusitasunak
kaleko eta aurrez
aurreko
komunikazio-
harremanetan
eragin du,
islandiera
egunerokotasu-
netik
ordezkatzeko
arriskuarekin.***

Ezinbestekoa da euskararen eta hizkuntzen bizitasun digitala neurtzeko metodologiak, sistemak eta jarraipenerako adierazleak martxan jartzea, kalitatearen kudeaketaren maximari jarraituz, neurtzen ez den hori ezin baita hobetu.

erabat baztertuta daude. Zentzu horretan, Europako hizkuntzetariko asko ez daude prest etorkizunari aurre egiteko.

2018ko irailaren 11n Europako Parlamentuak⁶ “Language equality in the digital age” txostena onartu zuen, aldeko 592 botorekin, kontrako 45ekin eta 44 abstentziorekin.

Txostena irakurtzea biziki gomendatzen diot irakurleari, baina, laburbilduz, META-NET sareak egiten duen diagnostikoa berresten du eta hizkuntzen arteko arrakala digitala handitzen ari dela dio argi bezain zorrotz. Horretarako, hainbat politika, gomendio eta ekimen ematen ditu. Esaterako: hizkuntza-teknologietan eta adimen artifizialean ikerketa eta garapena egiteko plan anbiziotsu bat martxan jartzea burujabetza teknologikoari begira; Europako hizkuntza-teknologiaren industria indartzea eta enpresa teknologikoak sustatzea; eta kode irekiko tresnak eta hizkuntza-baliabideak berrerrabiltzeko politikak zehaztea.

Europako Parlamentuak hizkuntza-teknologiak bultzatzeko egitasmoak martxan jartzea onartu du, eredu ditugun Islandia bezalako herrialdeek hizkuntza-teknologiaren aldeko apustu sendoa egin dute eta Espainiako Gobernuak ere berea garatu du 90 milioi eurotako aurrekontuarekin⁷. Eusko Jaurlaritzak honenbestez, lehenbailehen heldu beharko lioke indartsu erronka sozial eta teknologiko honi. Euskararen garapenaren teknologikoan urrats kualitatiboak emateko, lurraldeko ekonomia indartzen laguntzeko eta gure eguneroko bizitza irisgarriagoa egiteko ezinbesteko egitasmo teknologikoa martxan jarri, alegia.

Baina nola dakigu hizkuntza baten osasun eta bizitasun digitala zenbatekoa den? Nola jakin heriotza digitalaren edo goraldi digitalean dagoen?⁸

Ezinbestekoa da euskararen eta hizkuntzen bizitasun digitala neurtzeko metodologiak, sistemak eta jarraipenerako adierazleak martxan jartzea, kalitatearen kudeaketaren maximari jarraituz, neurtzen ez den hori ezin baita hobetu. Beharrezkoa da, beraz, hiltun gutxiko hizkuntzen kasuan bereziki, bizitasun digitalaren aldizkako monitorizazio-prozesu bat egitea ingurune digitalean hizkuntza batek dituen gabeziak eta indarguneak antzeman ahal izateko. Diagnostiko-prozesu hori ezinbestekoa da gero zuzentze-neurriak behar bezala bideratzeko, ondo egin diren esparruei eusteko eta ahul daudenak indartzeko.

1. ADIERAZLE BERRI BAT IKTAK ETA INTERNETIK HARATAGO: INGURUNE DIGITALA

I

Abiapuntua zein den eta neurtu beharreko eremua ongi zehaztea ezinbestekoa da lehendabizi eta ingurune digitalaz hiru eremu nagusi hartu

behar dira kontuan: Informazio eta Komunikazio Teknologia; Interneteko edukiak eta teknologia; eta hizkuntza duten teknologia.

Beraz, IKT alorra edo Internet alorra haratago doan ikuspegia lantzea ezinbestekoa da eta bizitasun digitalaz eta mundu digitalaz hitz egitea egokiagoa da. Ingeleseko *Digital environment* terminoak jaso nahi dugun guztia batzen du eta, ingurune digitala terminoa erabiltzea egokiagoa dela ebatzi diote adituek.

Ingurune digitala honela definituko genuke, beraz: Pertsonen artean, eta, makinaren eta pertsonen artean komunikazio eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalen osatzen dute ingurune digitala.

Ingurune digitalak bere baitan kontuan hartu beharreko eremuak zehaztea ere komeni da, alorrari dagozkion adierazleak identifikatzeko, beraz teknologia, baliabide eta aplikazio zehatz hauez dihardugu ingurune digitalaz ari garenean

Hortaz, euskararen eta hizkuntza baten bizitasun digitalaz ari garenean, pertsonen artean, eta, makinaren eta pertsonen artean komunikazio eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitaletan euskararen presentzia zein den aztertu beharko genuke.

2. EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA ETA INGURUNE DIGITALA: EUSKARAREN BIZITASUN DIGITALAREN EMAITZAK

Ibilbide honetan, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek sustatutako Euskararen Adierazle Sistemak (EAS) ingurune digitala ere aintzat hartzen hasi da dagoeneko. Lan horretan, azkeneko bi urteetan, aipatu erakundeek bultzatutako Euskararen Adierazle Sistemaren ingurune digitaleko adierazleak modu berezian landu dituzte Soziolinguistika Klusterrak eta Elhuyarrek elkarlanean.

Lantalde horretako partaide izan dira Iñaki Martínez de Luna, Euskararen Adierazle Sistema proiektuaren zuzendaria; Maite Goñi, Euskararen Aholku Batzordeko kidea eta IKT batzorde-ataleko arduraduna; Joseba Laka, Tecnaliako European Software Institute-ko zuzendaria; eta Josu Waliño, PuntuEus Fundazioko zuzendaria.

Adierazlean zehazterako orduan honako irizpideak hartu zituzten aintzat, hala nola jarraikortasuna bermatzea, bideragarriak izatea eta konparagarriak izatea. Lehenengo aukeraketan hogeitaz adierazle proposatu ziren eta horietatik lau aukeratu ziren, bakoitzaren neurketaren bidera-

IKT alorra edo Internet alorra haratago doan ikuspegia lantzea ezinbestekoa da eta bizitasun digitalaz eta mundu digitalaz hitz egitea egokiagoa da.

**Sare sozialetan
euskararen
erabilera
zenbatekoa den
neurtzeko,
Twitter hartu da
erreferentzia
moduan.**

garritasun teknikoa eta ekonomikoa aintzat hartuta, eta kontuan hartu zen neurketa modu sistematikoan eta bestelako hizkuntzekiko modu konparagarrian egiteko aukera ere.

Honakoak:

- Euskararen erabilera sare sozialetan.
- Euskarazko eskaintza web-dukietan.
- Euskararen erabilera web-dukietan.
- Euskarazko eskaintza ingurune digitaleko azpiegiturretan

Sare sozialetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtzeko, Twitter hartu da erreferentzia moduan. Neurketarako, Euskal Herriko Twitter-erabiltzaileen errolda bat sortu da, modu automatikoan, ikasketa automatikoko algoritmoen bitartez. Euskal Herriko Twitter erabiltzaileen lagina osatzea ez da lan erraza, ez baitago Euskal Herriko erabiltzaileen erregistrorik. Mota honetako erregistro baten antzekoena UMAPeko erabiltzaileen zerrenda litzateke, baina zerrenda horretan Euskal Herriko erdal hitzunik falta dira.

Ondoren, errolda horretako erabiltzaile guztien mezuak bildu, eta hizkuntzaren arabera sailkatzen dira automatikoki. 2018ko ekaineko datuen arabera, erabiltzaile horien mezuen % 18 euskarazkoak ziren, % 69 gaztelaniaz idatziak daude, eta % 5 frantsesez.

2019ko martxoan neurketa berriz ere eguneratuta da errolda berrituz eta algoritmoak finduz ⁹. Ondorioz, neurketaren emaitzak honakoak izan dira: % 9 euskarazkoak ziren, % 81 gaztelaniaz idatziak daude, eta % 5 frantsesez zein ingelesez.

Erabilera-emaitzei dagokienez beraz, gaztelania nagusi da Euskal Herriko Twitter erabiltzaileen artean. Bigarren hizkuntzarik erabiliena euskara da, baina alde handia dago batetik bestera. Frantsesa eta ingelesa paretsu daude.

Web-dukietako euskarazko eskaintza neurtzeko, PuntuEus behatokiko¹⁰ emaitzak hartu dira aintzat. Behatoki horren atzean dagoen monitorizaio-sistemak Euskal Herrian erregistratutako webgune guztietako web-orriak deskargatu, eta hizkuntzaren arabera sailkatzen ditu. Behatoki horren azken emaitzen arabera, Euskal Herriko webguneen % 12k dituzte euskarazko dukiak, % 82k gaztelaniazkoak, eta % 16k frantsesezkoak. Hau da, Twitter-eko azken datuan antzeko datuak ematen dira.

Ingurune digitaleko azpiegiturretako euskarazko eskaintza neurtzeko adierazlea hiru azpi-adierazletan banatu da: euskarazko eskaintza aplikazio mugikorretan, euskarazko eskaintza web-zerbitzuetan eta euska-

razko eskaintza oinarritzko tresna eta sistema eragileetan. Lehenengoa neurtzeko, Espainian eta Frantzia gehien erabiltzen diren aplikazio mugikorrak identifikatu eta haien hizkuntza-eskaintza aztertzeko sistema automatiko bat inplementatu da. Azpi-adierazle horren arabera, euskarazko eskaintza % 25koa da, eta gaztelania eta frantsesezkoa, berriz, % 100koa. Web-zerbitzu, oinarritzko tresna eta sistema eragile erabilienak identifikatzeko, erabilera-estatistikak baliatu dira. Azkeneko bi azpi-adierazleen arabera, gaztelania eta frantsesezko eskaintza % 100koa da, eta euskarazkoa, berriz, % 40koa web-zerbitzuetan, eta % 62koa oinarritzko tresna eta sistema eragileetan.

Esan beharra dago oso hizkuntza gutxiarekin egiten ari dela horrelako neurketa landua, sakona eta sistematikoa. Horrek aukera paregabea emango digu euskarak ingurune digitalean duen presentzia modu zehatzean neurtzeko. Honela, estrategia eraginkorrak definitu ahal izango ditugu hizkuntza gero eta sendoagoa izan dadin ingurune digitalean.

Ingurune digitalean euskarak zenbaterainoko presentzia duen neurtzeko ekimenak, nazioartean bestelako hizkuntzekin egiten ari diren proiektuak eta literatura zientifikoko zenbait lan hartu dira abiapuntutzat ingurune digitaleko adierazleak aukeratzeko. Horrela, aintzat hartu dira IKT batzorde-atalak euskararen bizitasun digitalaren gainean egiten duen hausnarketa eta haren egoera hobetzeko proposatzen dituen ekimenak. Kontuan hartu dira, halaber, PuntuEUS behatokia eta DLDP (Digital Language Diversity Project) Europako proiektua.

Bestalde, nazioarteko hainbat aditu eta erakundek aurrera emandako proiektuak eta ikerketak ere aintzat hartu dira.

Ikusirik adierazle interesgarri ugari identifikatu direla, PuntuEUS Behatokiaren ibilbidea eta bizitasun digitalak hizkuntza gutxiagotuentzat duen garrantzia, Hizkuntzak Ingurune Digitalean Neurtzeko Behatokia baten sorrera interesgarria izan liteke. Ingurune digitala duen presentzia monitorizatuko luke, hizkuntzen arteko alderaketak egiteko baliagarria litzateke eta sakabanatuta dauden egitasmoan biltzeko bidea izan liteke.

3. ADIMEN ARTIFIZIALA ETA HIZKUNTZA-TEKNOLOGIAK: GILTZARRIA DEN ESPARRUA

I Euskarazko hizkuntza-teknologietan ibilbidea ez zen atzo goizean hasi. 2001ean hasi ziren hainbat erakunde ikerketan eta baliabideak sortzen euskararentzat, eta orain egindako ibilbide oparo horren ondorioz euskarazko hizkuntza-teknologiak beste hainbat eremu aurreratuetara eramateko gai gara. Euskararentzat ikertzetik, euskaratik ikertzera pasa

**Ingurune
digitaleko
azpiegituretako
euskarazko
eskaintza
neurtzeko
adierazlea hiru
azpi-adierazletan
banatu da:
euskarazko
eskaintza
aplikazio
mugikorrean,
euskarazko
eskaintza web-
zerbitzuetan eta
euskarazko
eskaintza
oinarritzko tresna
eta sistema
eragileetan.**

**Azken urteotan,
euskarazko
hizkuntza-
teknologietan
ibilbide oparoa
egin da eta beste
hizkuntzen-
gandik oraindik
urrun bagaude
ere (Ingelesa eta
gaztelania, kasu),
beste hizkuntza
gutxiagotu asko
eta estatu-
hizkuntza askok
ez duten oinarri
teknologikoa
dugula esan
daiteke.**

gara, alegia; hau da, euskararentzat oinarritzko baliabideak eta tresnak sortzetik, euskaratik sektore ekonomiko aurreratuenetara (Fabrikazio aurreratua eta biozientziak, kasu) aurrera eramateko gai gara. Hizking 21, Anhitz, Berbatek, Be2Tek, ElkarOla, BerbaOla, Modela, Quales eta Modena ikerketa-proiektu estrategikoetan hala egin dugu, Eusko Jaur-laritzak Etortek eta Elkartek deialdien bidez finantzatu direnak.

Orain, DLNP4 ikerketa-proiektu estrategikoa jarri da martxan ikasketa sakoneko teknikak hizkuntza-teknologietan aplikatu eta euskarazko hizkuntza-teknologiek artearen egoeran jauzi kualitatibo handi bat eman dezaten. Itzulpen automatikoan azken urteotan eman diren aurrerapenak (Modela proiektua, kasu¹¹), beste hainbat esparrutara eraman nahi ditugu, hala nola: hizketaren teknologietara, testuen meatzaritza eta hizkuntza-baliabideetara.

Bide honetan guztian elkarlanean aritu gara Vicomtech, Tecnalia, EHU/UPVko Ixa eta Aholab ikerketa-taldeak eta Elhuyar Fundazioa.

Azken urteotan, esan bezala euskarazko hizkuntza-teknologietan ibilbide oparoa egin da eta beste hizkuntzengandik oraindik urrun bagaude ere (Ingelesa eta gaztelania, kasu), beste hizkuntza gutxiagotu asko eta estatu-hizkuntza askok ez duten oinarri teknologikoa dugula esan daiteke.

Euskararen garapena murriztagoa da gaztelaniarekin eta ingelesarekin alderatuz, batez ere, baliabide gutxiago dituelako. Hizkuntza-baliabide gutxiago, estatu-babesa murriztagoa delako, hiztun gutxiago dituelako, finantza-baliabideak eskasagoak direlako eta merkatu-aukerak ere murriztagoak; hau da, eskala-ekonomiak martxan jartzeko zailtasun handiagoa dituelako.

Oro har, esan daiteke babes estatala ez duten gainerako hizkuntza gehienak antzeko egoeran daudela, hau da, hiztun gehien dituzten estatuko hizkuntzen azpitik. Gaztelania eta frantsesa, aldi berean, ingelesa baino garapen-egoera txikiagoan daude hizkuntzaren eta hizketaren teknologiei dagokienez. Berdin esan daiteke, hala nola, alemana edo portugesa bezalako beste hizkuntzetan. Hori, berriz ere, hiztunen kopuruarekin dago lotuta, baliabideekin eta merkatu-aukerek.

Hala ere, ezin da txartzat jo hiztunen kopurua eta estatukoa ez den izaera kontuan hartzen baditugu. Esan dezakegu ia maila berean dagoela hiztun gehiago dituzten estatuko hizkuntza asko bainoeta horietako batzuk baino hobeto ere bagaudela. Hori da, hein handi batean, arestian aipatutako eragileek azken hamarkadetan egiten duten ahaleginari esker eta ikerketa-proiektuak finantzatzeko ateak ere ireki dituztelako erakunde publikoek.

4. ADIMEN ARTIFIZIALA ETA IKASKETA SAKONA: HIZKUNTZA-TEKNOLOGIEN MOTORRA

Azken urteotan, teknologia asko eta asko, besteak beste, adimen artifizialaren bidez bultzatu eta indartu dira, eta zehazkiago ikasketa sakoneko (Deep learning) teknologien bidez.

Ikasketa sakona Ikasketa automatikoaren (Machine Learning) adar bat da, zehazki sare neuronal sakonak (Deep Neural Networks) erabiltzen dituen. Sare neuronal bat giza garunaren jardura simulatzeko sortutako teknologia da eta matematika-eredu sofistikatuak erabiltzen dituzte datuak modu konplexuan prozesatzeko. Sare neuronal sakonak gaur egun hizkuntza-teknologien adar guztietan ari dira aplikatzen, emaitza oso onak lortu dira orain arte eta itxaropentsu egoteko arrazoiak baditugu.

Zalantzarik gabe, hizkuntzaren eta hizketaren teknologia historiako unerik onenean daude une honetan, hainbat arrazoiengatik.

— Alde batetik, globalizazioaren eta IKTen garapenaren ondorioz, testuzko eta ahozko informazio kopuru izugarria formatu digitalean aurki dezakegu, honenbestez, baliabide ugari ditugu eskuragarri bildu, tratatu eta prozesatzeko.

— Bestetik, aipatutako datu- eta informazio-kopuru horren erabilgarritasunak errazago egiten du teknologien garapena, eta lortutako emaitzak askoz ere hobekiago dira, sistemek ikas ditzaketenean adibide asko daudelako.

— Azkenik, hizkuntzaren teknologiek hainbat hamarkadatan izan duten bilakaerak (eta, bereziki, ikasketa sakonari esker) esparru akademikotik atera eta pertsonen eguneroko bizitzara eta jardura ekonomikoaren gero eta eremu gehiagotara erabiltzeko aukera erreala ematen du. Egituratu gabeko testu-informazioaren ulermenaren, sintesiaren, sailkapenaren edo itzulpen automatikoaren hobekuntza ematen ari diren urratsek gizartearentzat balioa sortzen dute, eta produkzio-sektore guztietan zeharkako aplikazioak sortzeko gai gara kalitate handiarekin.

Argi dago beraz, hizkuntzaren teknologien merkatua azkar hazten ari dela. Aholkularitza-enpresa askoren ustez munduko merkatuaren hazkunde handia emango da hurrengo urteetan. Azken urteotan egindako merkatu-behaketek, adimen artifizialarekin eta lengoia naturalarekin lotutako aplikazioen eztaba, eta testu eta datu digitalen hazkunde esponentzialak hazkunde handia egongo dela aurreikusten dute.

Gainera nazioarteko enpresa teknologiko handiek hizkuntza-teknologien alde apustu handia egin dute. Besteak beste, Google Translate itzultzaile

Egituratu gabeko testu-informazioaren ulermenaren, sintesiaren, sailkapenaren edo itzulpen automatikoaren hobekuntza ematen ari diren urratsek gizartearentzat balioa sortzen dute, eta produkzio-sektore guztietan zeharkako aplikazioak sortzeko gai gara kalitate handiarekin.

**Hizkuntza baten
biziberritzean
ingurune
digitalean
bizitasun digital
ona izatea
ezinbestekoa
bada, ezin dugu
erraldoi
teknologikoen
esku gure
hizkuntzetan
giltzarriak diren
garapen
teknologikoak.**

automatikoa, Siri laguntzailea edo Amazon Echo adimen-bozgorailu adimenduna dira adibide esanguratsuenak. Horrek argi adierazten du erraldoi teknologiko handiek hizkuntza-teknologiaren eta bere hobekuntza adimen artifiziala aplikatzeko estrategian buru-belarri daudela sartuta.

Hala ere, horrek ez gaitu engainura eraman behar, eta oker egongo ginateke erraldoi teknologikoen esku utziko bagenu gure hizkuntzen garapen teknologikoa: lan asko dago erraldoi teknologikoek estaltzen dutena baino harago egiteko. Alde batetik, enpresa horiek azken erabiltzailearen kontsumo-aplikazio generikoetan zentratzen dira, eta ez dute lan egiten eremu espezifikoetara egokitzen. Eta bestetik, hiztun asko baliabide asko eta merkatu-aukerak dituzten hizkuntzetan zentratzen dituzte ahalegin guztiak.

Amaitzeko, hizkuntza baten biziberritzean ingurune digitalean bizitasun digital ona izatea ezinbestekoa bada, ezin dugu erraldoi teknologikoen esku gure hizkuntzetan giltzarriak diren garapen teknologikoak. Subiranotasuna ere ezinbestekoa dugu esparru teknologikoan. Europako Batzordeak, Espainiako Gobernuak, Islandiako Gobernuak edo Frantziako gobernuak argi dute hori¹².

5. IKERKETA-ZENTRO, ENPRESA ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN ARTEKO LANKIDETZA EZINBESTEKOA

Euskarazko hizkuntza-teknologiak sektore ekonomiko aurreratuera eramateko oinarri teknologikoa eta gaitasun organizatiboa dugula erakutsi berri dugu azken urteotan Honenbestez, elkarlan publiko-soziala ere beharrezkoa izango dugu egitasmo teknologiko erraldoi honetan aurrera jarraitzeko.

Bide honetan aipamen berezia merezi du Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Erakiz egitasmoaren barruan Langune, Soziolinguistika Klusterra, Emunek eta Elhuyarrek elkarlanean Ibili Hizkuntza Berrikuntzarako Laborategi Kooperatiboaren sorrera sustatuko duela.

IBILI proiektu kolaboratibo eta esperimentalak euskararen sustapena eta hizkuntza berrikuntza uztartuko ditu. Hizkuntza Berrikuntzarako Laborategi Kooperatiboaren proiektua Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren barruan kokatuko da eta helburu izango du euskal gizarteko sektore desberdinetan proiektu berritzaileak sorrarazi eta bultzatzea, egungo testuinguru eleaniztunean euskara bilakatu dadin alor horietako komunikatzeko hizkuntza nagusi.

Izaera kooperatiboa edukiko du laborategi honek, unibertsitate, zentro teknologiko, ikergune, aholkularitza, eragile eta enpresen arteko elkarlana

bultzatuko duen gune ireki eta dinamiko gisa. Laborategitik aterako diren proiektuek euskararen biziberritzean inpaktu esanguratsua izatea bilatuko dute erakunde sustatzaileek, betiere Euskal Herriko zein kanpoko esperientzia aurreratutako kontuan izanda. Bestalde, euskararen erabilera bultzatzeko lanean orain arte modu estrategikoan landu ez diren alorrak landuko dira eta, gainera, ezinbestean, teknologia izango du ardatz.

Bide honetan ere garrantzitsua izango da EHU/UPVko Ixa Taldeak bultzatzen ari den HiTZ Zentroaren eraketa (Hizkuntza Teknologiko Zentroa/Basque Center for Language Technology). Egituratzeko prozesuan dagoen arren elkarlan teknologiko publiko-sozialaren bidean eragile garrantzitsua izan daiteke.

6. HIZKUNTZEN LANKIDETZA TEKNOLOGIKORAKO ARRAKASTA-KASUAK: LINGUATEC ETA DLDP PROIEKTUAK

I

6.1 Mugaz gaindiko Linguathec proiektua: euskara, okzitania eta aragoiera lankidetzan

Elhuyarrek urteak daramatza Lo Congres Permanent de la Lengua Occitana akademiarekin batera okzitania eta euskararen garapen teknologikoa bultzatzeko lankidetzan. Euskararen ibilbidean ikasitakoa, sortutako baliabideak tresnak okzitanierarentzat baliagarriak izan zitezen. Honenbestez, hain proiektu eraman ditugun elkarrekin aurrera:

- Euskara-okzitania hiztegi automatikoa
- Okzitanierarentzat corpus-baliabideen sorkuntza
- Okzitanierantzatzat zuzentzaile ortografikoa eta testu-igarlea.
- Erregeletan oinarritutako itzultzaile automatiko baten garapena
- Terminologia kudeatzeko plataforma.
- Eta azkenik; okzitanieraren garapen digitalerako bide-orri baten (2016-2020) diseinuan parte hartu genuen.

Proiektu hauek guztiak Euskadi-Akitania deialdiaren bidez lagunduak izan dira, eta lankidetzaren horretatik sortu genuen LINGUATEC proiektua¹³. LINGUATEC proiektuaren helburu nagusia, aragoiera, euskara eta okzitania hizkuntzen arteko lankidetzaren da, alegia, hizkuntz horietarako baliabide linguistiko, tresna eta soluzio berriak garatu eta probatzea.

Besteak beste hauek izango bide dira proiektuaren emaitzak:

- Aragoieraren digitalizazioaren bide-orria,
- Okzitanierarako lexikoi elebarrak eta elebidunak, baita analizatzaile morfosintaktiko eta sintaktikoa ere,

***Izaera
kooperatiboa
edukiko du
laborategi honek,
unibertsitate,
zentro
teknologiko,
ikergune,
aholkularitza,
eragile eta
enpresen arteko
elkarlana
bultzatuko duen
gune ireki eta
dinamiko gisa.***

**Praktikan
erakutsi dugu
euskarak
ingurune
digitalean egin
duen ibilbidea
ere beste hainbat
hizkuntzentzat
baliagarria izan
daitekeela eta
hizkuntza-
lankidetzak
teknologiaren
esparrura ere
eramatearen
beharra.**

- Ipar Euskal Herriko euskararako hizketaren sintesirako sistema bat,
- Hizketaren ezagutza euskararentzat eta teknologia hori ondoren baliatu okzitaniera eta aragoierarentzat.
- Euskara Eskuz Esku egitasmoa Euskaltzaindiaren eskutik.
- Sare neuronaletan oinarritutako itzultzaile automatikoen hobekuntza euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa hizkuntza-bikoteetan.
- Erregeletan oinarritutako itzultzaile automatikoen garapena gaztelania-aragoienara eta frantsesa-okzitaniera hizkuntza-bikoteetan.

Helburu horiek lortuta aukera berriak sortu nahi ditugu herrialde mugakide horien arteko lankidetzak, ezagutzaren transferentzia eta hizkuntza-soluzioak garatzeko. Hizkuntza-aplikazio berri horien erabilera zabalduko dugu, hizkuntzarekin diharduten profesionalentzat onuragarri izango diren soluzioak eskainiz, eduki eleaniztunei sarbide emanaz eta mugaz haraindiko hizkuntza teknologiaren inguruko kluster bat garatuz. Praktikan erakutsi dugu euskarak ingurune digitalean egin duen ibilbidea ere beste hainbat hizkuntzentzat baliagarria izan daitekeela eta hizkuntza-lankidetzak teknologiaren esparrura ere eramatearen beharra.

6.2 Baliabide urriko Europako hizkuntzak elkarlanean: euskara, sardiniera, bretoiera eta kareliera elkarrekin bizitasun digitalaren alde

Europako hizkuntza-aniztasunaren mosaiko aberatsak oso errepresentazio urria du baliabide digitaletan, eta Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetan eskuragarri dauden zerbitzuetatik kanpo geratzen dira ia beti. Hizkuntza nagusietako hiztunekin alderatuta, EBko baliabide urriko hizkuntzen hiztunek aukera gutxiago izaten dute beren hizkuntza arlo digitalean erabiltzeko. Mundua gero eta digitalagoa den honetan, hiztun asko oso ataka gaiztoan daude: ‘hizkuntzaren eten digitala’ delakoari aurre egin behar diote, ezin baitituzte beren hizkuntzak garatu hizkuntza nagusien garapen digitalaren erritmo berean. Hizkuntza gutxituen garapen eta hornikuntza digitalaren abiada azkartzen ez den bitartean, hizkuntza horietako hiztunak gero eta marjnatuago eta baztertuago egongo dira, are gehiago gazteak hizkuntzaren arlo horretara erakartzea funtsezkoa dela kontuan izanik.

The Digital Language Diversity Project Erasmus+ programak diruz lagundutako barruan kokaturiko hiru urteko proiektu bat izan da¹⁴. Proiektuaren helburua Europar Batasuneko hizkuntza gutxituen errepresentazio urria duten hizkuntzetako hiztunak ahalduntzea izan du helburu, edukiak beren hizkuntza gutxituan sortzeko eta partekatzeko ezagutza eta

trebetasunak garatuz. Eduki digitalak eta laguntza teknikoak izatea ezin bestekoa da hizkuntzan oinarritutako aplikazio digitalak garatzeko, horiei esker hizkuntza gutxituen erabilera digitala areagotu baitaiteke.

DLDPren eginkizuna izan da Europako hizkuntza gutxituen iraunkortasuna mundu digitalean bermatzea. Horretarako hiztunak ahalduntzea genuen helburu, edukiak beren hizkuntza gutxituan sortzeko eta partekatzeke ezagutza eta trebetasunak garatuz.

Hizkuntza-aniztasun digitalaren (Digital Language Diversity, DLD) proiektuaren helburuak honako hauek izan dira beraz:

— Inkesta: Europako hizkuntza-aniztasun digitala zehazten duen inkesta gauzatzea, zehazki, European hitz egiten diren lau hizkuntza gutxitu hauen gaitasun digitala: euskara Espainian, bretoiera Frantzia, kareliera Finlandian eta sardiniera Italian.

— Digital Survival Kit: Gomendio sendoa, argi eta egingarriak eskaini dira hizkuntzaren beharren eta egin daitezkeen ekintzen inguruan hizkuntza “digitalki martxan” jartzeko: erronkak eta zailtasunak zein diren, lehen ekintzak zein arlotan bideratu behar diren, zein tresna dauden erabilgarri; gomendioak ‘hizkuntza digitalaren bizi-raupen kit’ deituriko izenekoaren bidez eman dira, funtsean erabilera digitala biziartzeko gomendio-multzoa izango da. Proiektu honetan parte hartzen ez duten beste hizkuntza batzuen gaitasun digitala neurtzeko autoebaluazio-tresna bat ere eskaini da

— Trebakuntza: Europa osoan aplikatu daitezkeen trebakuntza-programa, hizkuntza gutxituen hiztunei zuzendua, eduki digitalak eta hizkuntza-irakaskuntza materialak euren hizkuntzetan ekoizten laguntzeko.

— Bide-orria: arduradun politikoei eta interes-taldee zuzendutako bide-orri bat, erronka instituzional eta teknologikoak zehazten dituen. Bertan proposatutako soluzioek gailu digitaletan Europako hizkuntza guztien erabilera zabalagoa izan dadin lagunduko dute.

Argitaratu diren hizkuntza gutxituen erabilera digitala neurtzeko egin genuen inkestaren emaitzak, eta laburbilduz ondorio hauek atera genituen:

— Hiztunek argi eta garbi adierazi dute bere hizkuntzak digitalki erabili nahi dituztela, arlo soziolinguistiko guztietan eta hizkuntza nagusiak erabiltzen diren xede guzti eta berberetarako.

— Sare sozialek aukera paregabea eskaintzen dute hizkuntzak biziberritzeko esparru gisa, baina eremu soziolinguistiko hori oraindik mugatua da.

— Hizkuntza horiek eremu publikoan gero eta gehiago erabiltzeko eskari nabarmena dago.

Hiztunek argi eta garbi adierazi dute bere hizkuntzak digitalki erabili nahi dituztela, arlo soziolinguistiko guztietan eta hizkuntza nagusiak erabiltzen diren xede guzti eta berberetarako.

— Hizkuntza gutxituen hiztunei babesa eta adorea eman behar zaie beren hizkuntzak digitalki erabiltzeko, eta nabarmendu eduki digitalaren sortzaile gisa garrantzi handia dutela.

— Hizkuntza horietarako egiturazko laguntzarik ez egotea konpondu beharreko arazo larria da. Izan ere, hizkuntza horien garapen digitala ez da bideragarria aktibista eta boluntario gutxi batzuen lanaren mende baldin badago.

7. DEKALOGOA BAT ETA IKUSPEGI BERRITUA

Urte hauetan guztietan badira asmatu ditugun estrategiak eta badira hobetzeko alderdiak ere, beraz bidean ikasitakotik hemen doaz baliabide urriko hizkuntzen bizitasun digitala eta zehazki garapen teknologikoa hobetzeko proposatzen dudak dekalogoak:

1. Estrategia teknologikoa ongi diseinatu: Oinarri linguistiko bakoitza, baliabideak eta tresnak ongi diseinatu behar dira, produktu eta aplikazio desberdinetan erabiliko direla aurreikusiz. Hasieran sortu behar dira oinarritzko baliabideak eta tresnak, eta geroago sortu merkatu-aplikazioak. Ez da alderantziz egitea komeni.

2. Inpaktu soziala lehenetsi: Aplikazio eta produktu zehatzak lehenetsi lehendabizi, eragin eta erabilera soziala izango duenak: zuzentzaileak, ahotsaren sintesia, bilatzaileak, itzultzaile automatikoa... Honekin batera sortzen ditugun baliabide eta aplikazioan inpaktu soziala neurtu.

3. Elkarlana eta lehia uztartu: Elkarlan erreala eraman aurrera, lehiatu merkatu-aplikazioetan, baina saihestu bikoizketa oinarritzko baliabide eta tresnetan. Hizkuntza-teknologietan ikertzen ari diren zentroen saretzea eta koordinazioa ezinbestekoa, elkarlana bultzatu eta bikoizketak saihesteko.

4. Hizkuntza-teknologiaren berriazko plana: Hizkuntzaren diagnostiko teknologiko batetik abiatu eta ondoren bide-orri teknologikoa zehaztu. Hizkuntzen teknologiak bultzatzeko berriazko plana eta erorketa publiko berritzailea jartzea.

5. Burujabetza teknologikoa: Burujabetza teknologikoa lortzea hizkuntzaren prozesamenduan eta adimen artifizialean, enpresa erraldioen menpekotasuna gutxitzeko eta tokiko enpresa teknologikoak garatzeko.

6. Kode irekia: Software eta kode librean oinarritzea baliabideak eta tresnak. Erakunde publikoak teknologia erosten badu egin indarra kode librean aska dezaten.

7. Zaintza-sistema: Euskarak ingurune digitalean duen presentzia neurtzeko adierazle-sistema adostua eta eguneratua izatea. Hizkuntzak Ingurune Digitalean Neurtzeko Behatokia baten sorrera intergarria izan liteke

8. Hizkuntza-lankidetzaren: Beste hizkuntzekiko ezagutza eta praktiken transmisioa areagotzea. DLDP eta Linguatex bezalako proiektuen ugaritzea eta hedatzea.

9. Enpresen eta negozioen garapena: Hizkuntzen Industria elkartzea eta dinamismo enpresariala garatzea. Sektore ekonomiko eta esparru sozial berrietara zabaltzea

10. Formakuntza: Goi-mailako formakuntza sustatzea.

Amaitzeko, Andoni Sagarnak euskaltzain izendatu zuten sarrera-hitzaldian esandakoak ¹⁵ ekarri nahi ditut gogora, urteak pasa diren arren indarrean dauden ideiak baitira eta bikain laburbiltzen du artikulua honen mamia.

Dagoeneko metatua dugun jakintzan eta praktikan oinarrituz, Hizkuntzaren Ingeniaritzako produktuen eta zerbitzuen industria bultzatzea, hedadura handiko hizkuntzen merkatuetan errentagarritasuna bilatuz, bide batez euskarak datorren munduan bizirik irauteko beharrezkoak izango dituen tresnak landuz.

Mundu globalizatuan buru-belarri sartuta gaudelarik, jakintzan oinarritutako organizazioak behar ditugula esaten digute adituek. Hara hor bete-betean baldintza hori betetzen duen jardura bat. Baliteke ni ameslari bat izatea, baina uste dut areto honetan bertan dauden dozenaerdi bat lagunek estrategia horretan sinetsiko balu, bideragarria litzatekeela. (Sagarna, 2007) ●

OHARRAK

1. Lo Congr s permanent de la lenga occitana. Feuille de route 2015-2019 pour le num rique occitan garatu du Elhuyarrek, hau da, okzitanieraren garapen digitalerako bide-orria: <https://www.locongres.org/fr/lo-congres-fr/les-chantiers/feuille-de-route>
2. Aragoiko Gobernua ere aragoieraren garapen digitalerako bide-orria diseinatu eta gartzen hasi da: Un diccionario y un traductor digital para el aragon s. <http://aragonhoy.net/index.php/mod.noticias/mem.detalle/area.1341/id.219955>. Informazio gehiago aragoieraren inguruan: <http://www.lenguasdearagon.org/poetefa/>
3. Garabide. Euskararen berreskuratzearen liburu bilduma argitaratu zuen hizkuntza-lankidetzan eragiteko eta ezinbesteko corpus teoriko eta praktikoa garatu du. : <https://www.garabide.eus/euskara/proiektuak/euskararen-berreskuratzea-liburu-bilduma>
4. The Guardian egunkariaren erreportaje honetan: "Icelandic language battles threat of 'digital extinction'", <https://bit.ly/2CKzqSR>
5. <http://www.meta-net.eu/whitepapers/volumes/basque>
6. Europako Parlamentuak "Language equality in the digital age" txostena onartu zuen, aldeko 592 botoarekin, kontrako 45ekin eta 44 abstentziorekin (<https://bit.ly/2CKzqSR>)
7. Espainiako Gobernuak Plan de Impulso de las Tecnolog as del Lenguaje" jarri du martxan: (<http://www.agendadigital.gob.es/tecnologias-lenguaje/Paginas/plan-impulso-tecnologias-lenguaje.aspx>)
8. Azaroaren 6an, Soziolinguistika Klusterrak antolatutako jardunaldian parte hartu zuen Andras Kornai irakasleak eta elkarriketa egin zion Berriak: https://www.berria.eus/paperekoa/1857/008/001/2018-11-02/hizkuntza_askok_ez_bezala_osasun_digital_ona_dauka_euskarak.htm.

9. Euskal Herriko Twitter erabiltzaileen erradiografia labur bat: <https://hizkuntzateknologiak.elhuyar.eus/eu/bloga/2019-04-10/Euskal-Herriko-Twitter-erabiltzaileen-erradiografia-labur-bat>
10. PuntuEUS Behatokia: <https://www.domeinuak.eus/eu/behatokia/>
11. Modela: www.modela.eus
12. Evgeny Morozov en artikulua El Pais egunkarian: . “No queremos depender de Silicon Valley”.
“https://elpais.com/tecnologia/2018/10/08/actualidad/1539017186_874388.html”.
13. Hiru urteko mugaz gaindiko proiektua da Linatec Interreg-Poctefa deialdian diruz lagundua (EFA 227/16), eta haren helburua da aragoieraren, okzitanieraren, katalanaren eta euskararen garapen digitalerako elkarlana bideratzea, ezagutza, baliabideak eta tresnak partekatuz eta berariazko aplikazioak sortuz. EHU/UPVko IXA Taldea, Euskaltzaindia, Lo Congres okzitanieraren kongresua, Aragoiko Gobernua, Centre National de la Recherche Scientifique-Delegation Regionale Midi-pyrenees (Okzitanako Tolosa) eta Elhuyar Fundazioa (liderra) dira kontsortzioko. 202ko abenduan amaituko da. Informazio gehiago: <https://linatec-poctefa.eu/>
14. DLPD proiektua Europar Batasunak finantzatzen du, Erasmus Plus programaren barruan (Erasmus+ Programme | Grant Agreement No. 2015-1-IT02-KA204-015090), eta Consiglio Nazionale delle Ricerche (Pisa, Italia) Hizkuntzalaritza Konputazionalako Institutuko ikerlari den Claudia Soria doktoreak gidatzen du. Proiektu honetako beste partaideak hauek dira: Europako Hizkuntza Berdintasunaren aldeko Sarea (European Language Equality Network, ELEN, Frantzia), Mainzeko Unibertsitateko (Alemania) Hizkuntza eslaviar, turkiar eta zinkunbaltikoen Institutuaren barneko Europako iparraldeko hizkuntzen eta hizkuntza baltikoen saila, Elhuyar Fundazioa eta Kareliar Hizkuntza Elkartea (KKS, Finlandia). Informazio gehiago: <http://www.dlpd.eu/>
15. Euskara eta informazioaren teknologiak. egungo egoeratik etorkizunera begira sarrra-hitzaldi mamitua eman zuen Andoni Sagarna Izagirrek euskatzain izendatu zutenen. (2007-10-26.)
<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/71455.pdf>

BIBLIOGRAFIA

Berria egunkaria. 2019. *Andras Kornairi elkarriketa*.

https://www.berria.eus/paperekoa/1857/008/001/2018-11-02/hizkuntza_askok_ez_bezala_osasun_digital_ona_dauka_euskarak.htm.
[Azken kontsulta: 2019-05-27]

Elhuyar 2019. *Euskal Herriko Twitter erabiltzaileen erradiografia labur bat*.
<https://hizkuntzateknologiak.elhuyar.eus/eu/bloga/2019-04-10/Euskal-Herriko-Twitter-erabiltzaileen-erradiografia-labur-bat>.
[Azken kontsulta: 2019-05-27]

European Parliament. 2018. *Language equality in the digital age*.
[http://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_STU\(2017\)598621](http://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_STU(2017)598621). [Azken kontsulta: 2019-05-27]

Euskal Herriko Unibertsitatea, Ixa taldea. *LINGUATEC: mugakide diren hizkuntzen arteko lankidetzatza eta ezagutza-transferentzia hizkuntza-teknologian*. <http://ixa.si.ehu.es/node/11365>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]

Eusko Jaurlaritza. 2018. *Euskararen Adierazle Sistema*. <http://www.euskadi.eus/web01-apeusadi/eu/eusadierazle/temasV1.apl?idioma=e>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]

- Gipuzkoako Foru Aldundia. 2019. *IBILI, Hizkuntza Berrikuntzarako Laborategi Kooperatiboa*. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/multimedia/-/ibili-hizkuntza-berrikuntzarako-laborategi-kooperatiboa>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]
- Institute for Computational Linguistics “A. Zampolli” - Italian National Research Council (ILC-CNR, Italy), Elhuyar Foundation, Karelian Language Society, Johannes Gutenberg University of Mainz - Research and Teaching Languages of Northern Europe and the Baltic Countries (JGU-SNEB, Germany). *The Digital Language Diversity Project*. <http://www.dldp.eu/en/content/credits>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]
- Lo Congr s permanent de la lenga occitana. *Feuille de route 2015-2019 pour le num rique occitan*. <https://www.locongres.org/fr/lo-congres-fr/les-chantiers/feuille-de-route>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]
- Sagarna, Andoni. 2007. Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldia. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/71455.pdf>. [Azken kontsulta: 2019-05-27]

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

Abantailak:

- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eksklusiboak

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, hilean 36€

Asteartetik ostiralera, hilean 23€

Ostiraletik igandera, hilean 21,3€

Asteburukoa, hilean 15€

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eksklusiboak



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria** *laguna*
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45

Komunitatea hats bahiturik. Hiztunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak

Ainize de Madariaga

Kazetaria BERRIAko Ipar Euskal Herriko Hitzan

pitxilinta@gmail.com

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Lekukotasun bat hartu eta agertzen diren emozioak azaleratu ditugu, Hiznet Hizkuntza-plangintza ikastaroaren kariatara burutu sakontze-proiekturi esker. Hala, ikuspegi psikologikotik kasu baten bizitza-historia ekarri dugu, hizkuntz-komunitate osoa islatzen duelakoan. Gure kasuak –hemendik aitzina Jakilea-, haurtzaroan, egoera traumatikoa bizi izan zuen hizkuntzari dagokionez. Kontua da, psikoterapiaren seigarren urtean oharatu duela bere zailtasunen iturri nagusienetarikoa hizkuntzaren debekatua eta kanpokoa baliatzeraz bortxatua izan dela. Hau da, Zuberoako herri ttipi batean etxe eta herriko hizkuntza naturala euskara zuten. Baina, bortz urtetan Jakilea eskolarat igorri zutelarik, bertan, hizkuntza errotik debekatu egin zioten. Ondorioz, bi urtez mutu egon zen. Hala, bera eraikitzen zuen hizkuntza debekatu egin zioten bai etxean bai eta eskolan ere. Horiek hola, Jakileak, oraingo egunean, 44 urterekin, bizi normala egiteko zailtasunak baditu, eta psikoterapiari esker badu sei urte, korapilo guztiak askatu nahian dabilela. Korapilo potoloena, gai honen muina da: trauma psikosoziolinguistikoa. Kasuaren lekukotasuna, bere terapeutarena -M. J. Sibille- bai eta autore zenbaiten ekarpenei esker josi dugu lan hau, zailtasun horiei paliatiboak proposatu nahian. • *Hitz gakoak:* euskara, hizkuntza-jarrera, autogorrotoa, hizkuntza-erabilera behartua.

Abstract. As a result of an in-depth project carried out within the Hiznet course on language planning, in this paper we take a testimonial and explore the emotions involved. We present someone's life story from the perspective of psychology, in the belief that it reflects the situation of an entire community. Our subject, from here on referred to as Jakilea, went through a traumatic language-related experience during his/her childhood. After six years of therapy, he/she finally discovered that the main source of his/her problems was the fact that he/she had been forbidden to speak her native language and forced to use another one. In the small town in Zuberoa in which he/she grew up, the natural language used both at home and in the community was Basque. However, when he/she started school at the age of five, he/she was completely forbidden to speak that language, with the consequence being that he/she stopped speaking altogether for two years. Thus, he/she was no longer able to use the language out of which his/her sense of self was constructed either at home or at school. Today, aged 44, Jakilea still has trouble leading a normal life and has spent six years in psychotherapy trying to unravel the complex set of reasons behind his/her difficulties. The most complex knot to undo is the subject of this paper: his/her psycholinguistic trauma. This study is based on the information provided by his/her therapist, M. J. Sibille, and the contributions made by several authors, and proposes a series of ideas to help palliate the problems described. • *Key words:* asque language, language attitude, self-hate, forced linguistic use.

HIZKUNTZA-JARRERA ETA PORTAERA

I Jakilearen lekukotasunean jarrera eta portaeraren artean dekalajea behatu dugu, hau da, hizkuntzaren gaineko iritziak/sentimenduek ez dute beti portaera edo hizkuntzarekiko ekintzarekin bat egiten. Horregatik, fenomeno hobeki entelegatzeko, jarrera eta portaeraren arteko desberdintasunak bereizi nahi ditugu:

Hizkuntza-jarrera: hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da. Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman.

Hizkuntza-jokaera: hiztunak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten dituen aukera linguistikoak. Komunikazio-testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekua zein den kontuan hartuz, hizkuntza jakin bat aukeratuko du, hizkuntza-erregistro jakin bat, eta abar. (Joly & Uranga, 2010: 204-207).

Jakilearen amaxia eta ama dira hasteko, jarrera/portaeraren ikerketa honetan interesgarri. Gero, bizitza-historia osoa zeharkatuko dugu.

Izan ere, amaxik (Axamak) beti praktikatzen baitzuen euskara, bere biloba ororekin hala ari baitzen beti. Hori bai, politikoki frantses eskuindarra zen arrunt. Hala, jarrera, ulertu daitekeenez, euskaraz mintzatzeari garrantzia ematen bazion ere, Jakilearen traumatismotik landa, ez zirudien arras abantailatsua Jakileak euskaraz berarekin jarrai zezan, inguruko mekanismo guziaz frantsesaren aldekoa baitzen (eskola eta gurasoak).

Alta, amaxi da beti izan Jakilearen euskararekiko ebaki ez den hari bakarra, baina inplizituki. Esplizituki, sekula ez baititu ez gurasoak ez eta Axama ere euskararen kontra edo alde mintzatzen entzun. Hala, peko lerroek behagarria den portaera eta hala ez dena ederki bereizten dute:

[Jakilearen amaxi ongi ezagutzen zuen herrikide euskaltzale baten hitzak dira Jakileak berak guri kontatua]:

Hire axama, harendako euskara izugarri inportantea zen, eta bera beti ari zen euskaraz, eta zuer beti euskaraz, beti euskaraz, alta, ez zen Euskal Herriaren alde, baina euskara? Zen beretako izugarri inportantea! Zen etxeko hizkuntza, eta hori, hortaz oroitzen nauk hire axamaz, ez genituen batere ber ideiak, baina hortan, bai.

Hortaz, inplizitua/esplizitua eta behagarria/ez behagarria denaren arteko muga aski sotila da.

Diskurtsoa eta zinez egiten denaren artean ez da beti koherentziarik, kasua den bezala Axamaren portaeran: errana euskararen unibertsoaren

**Axamaren
portaeran:
errana
euskararen
unibertsoaren
kontrakoa, egina,
berriz, euskara
hutsezkoa,
gainera, seme eta
errainaren (hots,
Jakilearen
gurasoak) kontra
eginez.**

kontrakoa, egina, berriz, euskara hutsezkoa, gainera, seme eta errainaren (hots, Jakilearen gurasoak) kontra eginez.

Afera da, gure Jakilearendako, Axama funtsezko pieza izan zaio bere eraikuntzan, hala dio:

Axama zen ene pertsona inportanta (...) Axama zen. Enetako, egiazko begirazalea, ene egiazko ama, enfin, afektiboki. Alta bera ere bazen amiñi bat entrabal, baina hartu ditut hortik behar nituenak. Ama, amaren aldetik... ama zen jateko-emailea, etxean bazen beti jateko hanitx. Behar ere hori.

Terapeutak Atxikimenduaren teoria esplikatzen digu zeinak zentzua eman baitiezaioke Jakileari gertatutako bat-bateko eten linguistiko horri:

(...) c'est parce qu'on parle de la langue maternelle, c'est pas pour rien, c'est parce que ça s'inscrit vraiment, l'acquisition d'un langage dans le corps et l'émotion. Et c'est donc très lié, à ce que je vous ai expliqué sur l'attachement, pour aller très vite, c'est à dire que le bébé est dans un bain émotionnel et langagier dès qu'il est dans le ventre de sa mère. Imaginons que ce soit le basque, moi j'ai évidemment j'ai d'autres expériences, mais c'est pareil. Donc il va y avoir ce bain qui va le nourrir et qui va le construire qui va construire ses neurones. Par empathie, c'est toute la théorie de l'attachement, par empathie avec entre guillemets sa maman mais ça peut être aussi son papa et toutes les figures d'attachements qui l'entourent, il va vraiment se construire

(...) Alors là ça va vraiment faire un trouble de l'attachement, ce qu'on appelle l'attachement, c'est pour cela que je vous ai expliqué ce bain, dans lequel baigne le bébé, c'est la meilleure manière de le visualiser: vous imaginez un bain; ce bain est aussi un bain de la langue maternelle, et à un moment donné, il y a conflit, il y a rupture, il y a quelque chose... C'est comme si eu il y avait un abandon, pour vous donner une image. C'est pour cela qu'on peut parler d'un trouble de l'attachement qui va se traduire par un trouble d'accès au langage. Alors, en occurrence au français, à la langue française, parce qu'il y a trop de conflit entre les deux. Donc c'est... Il y a vraiment une rupture. (...) il touche vraiment la personne dans son plus intime, vous voyez? Dans son plus... c'est très organique, physique et émotionnel.

Aipu honetan, bi ideia gogoan hartu ditugu, alde batetik, Atxikimenduaren teoriak erakustera eman duela fetoa ez dela bereziki amari lotzen -nahiz eta gehien-gehienetan hala den-, inguruko hurbileko pertsona bat ere izan daitekeela. Kasurako, Axama hor dugu, Jakileak berak azpimarratua -ikusi dugun bezala- hiruzpalau aldiz elkarriketa osoan. Bi garrenik, etxeko hizkuntzaren garrantzia gogoan hartu dugu.

Orduan, atxikitako pertsonak etxeko hizkuntza ez zuen aldatu, eta horrek, Jakileari nolabaiteko egonkortasuna ere ekarriko ziokeen traumaren baitan.

Cristobalen (2007: 86) hitz hauek salatzen digute zein den Atxikimenduren edo Attachment teoria, zeina Bowlby-k baitzuen garatu, eta, jaioberriaren eta ondoko urteetako haurren behar afektibo-emozionalak asetzeko beharrezkoak direnak xeheki deskribatu baitzituen Etologian burutu esperimenduei esker:

La figura de apego es la que más cantidad e intensidad de atención ha dirigido a la criatura.

Beraz, Atxikimendurako figura, usuenik ama bada ere beste inguruko inor izan daiteke.

Jakileak hizkuntza hautua gerla baten gisa bizi izan du:

Orduan nonbait banituen etsaiak etxean, nonbait guduka hori deja haur-denboran. Euskara/ez euskara.

...

Haur batek oro ikusten du, oro ikusten... Hor ikasi nuen faltsukeria: nonbait hitza hola, eta praktika kontrarioa! [besoekin antagonismoa adierazten du].

Alegia, Jakileak ukan dituen portaerak ikasteko modeloak, nonbait, kontrajarriak izan dira: amaren kasuan, aldeko jarrera naturalari uko egin (berarentzat bakarrik atxiki duen euskal kultura zaletasun handia, baina haurrak ikusten zuena) eta kontrako portaera praktikatu izan duelako (haurrari euskaraz egitera ez utzi, eskolako kontsignei men egin), eta Axamak aldiz, nahiz eta transmisioaren aldeko portaera praktikatu, kontrako jarrera (mintzo politikoa) erakutsi izan du. Hala, zaila egiten da barne kontzientzia zer heinetan zeukan irudikatzea eta zer gorde izan duen isilpean. Aitak, azkenik, kontrako jarrera eta praktika naturalari uko eginik, praktika ere kontrakoa izan du, izan du, diogu, zeren eta, sarri, ondorioetan ikusiko dugun bezala, oraingo egunean, Jakilearen ibilbidearen baitan, portaeraz arrunt aldatu baitu: bilobekin euskara hutsen ari baita.

Hortaz, ez da harritzekoa Jakileak, haur denboran “normaltasunez” bizi behar izan badu ere, bere burua giro *eskizofreniko* batean ikusi izan duela, oraingo begietarik ikusirik.

Orain, Jakilearen beraren portaera eta jarreretan barrena murgil gaitezen.

Hasteko, Sanguinése (2008: 205) dio, ez dagoela pertsona menekorik, baizik eta “portaera mendekoak eta ez mendekoak daude”. Horrekin

**Jakileak ukan
dituen portaerak
ikasteko
modeloak,
nonbait,
kontrajarriak
izan dira:
amaren kasuan,
aldeko jarrera
naturalari uko
egin eta kontrako
portaera
praktikatu izan
duelako, eta
Axamak aldiz,
nahiz eta
transmisioaren
aldeko portaera
praktikatu,
kontrako jarrera
(mintzo
politikoa)
erakutsi izan du.**

ulertzen dugu, pertsona zapalduak ez direla profezia batek preso harturik, baizik eta nahi izanez gero egoera aldatu egin daitekeela.

Jakilearen jarrera zapaldua nolakoa den saiaturiko gara ulertzen gure kasuak erakusterat ematen dizkigun “frogei” esker.

Bere hizkuntzarekiko portaera, hau da, zein hizkuntza hautatuko duen, giroaren araberakoa izanen da:

Portaera ez da soilik hizkuntza aukeratzeko ekintza, baizik eta ekintza horren eta berarekin harremana duten kontingentzien arteko konexioa, aurrekariak eta ondorioak barne. Beraz, giroa portaeraren berezko osagaia da, eta portaera ulertu eta aurreratzeko ebaluatu beharreko ezinbesteko elementua da (Sanginés & Suay i Lerma 2008: 206).

Giroak, baditu bere aldagaiak: disposizionalak eta funtzionalak. Norbanakoaren baitako eta norbanakoaz kanpoko arrazoiek dute gizabanakoa hizkuntza bat edo bestea hautatzera bultzatuko.

Lasa, Madinabeitia eta Sanguinésen (2014: 123) artikulua lagun gaitzake aldagai mota hauek ulertzen:

Aldagai disposizionalak (sentimenduak, jarrerak, gaitasunak, pentsabideak...) hiztunen portaeran eragin zuzena izaten dute, baina baita dispositiboek (egiturak, antolabideak, erakundeak...) ere. Hiztunek zentzua ikusi behar diote egoera desberdinetan euskaraz hitz egiteari. (...) Hiztunak aldaketa egingo badu, bere jarreran aldaketa bat edo dispositiboan aldaketa bat egon delako izango da, baita arrakastarako aukerak ikusten dituelako, erdaraz jarraitzeak zentzua galtzen duelako edo baita motibazio-estimulua handia delako ere. Azturak aldatuko baditu, ondorio positiboak aurreikusten dituelako izango da.

Identifikatu ditugun aldagai disposizionalen baitan, hauek dira Jakilearen kasuan norbanakoari doazkionak: hizkuntzaren ezagutza apala eta bere hizkuntza ikasketa historia indibiduala. Inguruaren aldagai disposizionalak, aldiz, hizkuntza bat edo bestea hautatzeko eraginen duten baldintza ambientalak dira, kasurako, Hizkuntzaren konnotazio negatiboa eta aurreiritziak. Portaeran eragina duten aldagai funtzionaletan, berriz, Jakileak jaso sari eta zigorrak daude.

Azter ditzagun banan-banan.

Diolarik:

Bortxatua izan nauzu hizkuntza baten galtzea beste baten ikasteko (...) irakaslea jin baitzen etxerat erraiteko: “ez da behar harekin euskaraz behar mintzatzen haboro. Bestenaz ez da deus izanen... ez da nehor ere izanen... ez badaki frantsesez

mintzatzen. Deia hartu du beranta hanitx, beti behar diozue frantsesez elestatu, mintzatu". Orduan, hor, bortxatua frantseserat pasatzea... baina bortizki eta esplikaziorik gabe, zentzu gabe, zentzu gabe! Zer da historia hori? Zer da afruskeria hori?

Lerrootan argiki ikus dezakegu hizkuntza bat hautatzerakoan norbana-koaren aldagai disposizionalek ze heinetaraino eragin izan dioten (haur denborakoa da aipu hau, orain besterik da, sarri agertuko dugunez). Hots, alde batetik hizkuntzaren -kasurako frantsesa- ezagutza mailarik batere ez zeukan, eta bestaldetik, hizkuntza horren ikasketaren historia pertsonalean bortxa eta debekua aipatzen ditu.

Haurtzaroan bizi izandako traumatismo horrek, oraingo eguneraino zer ekarri dio?

Bortxaren zigorra

Hunkiturik nintzelarik frantsesez ere ezin ene burua espresatu, oro galtzen.

Funtsean, traumak ekarri diona hauxe da: bere lehen sozializazioaren hizkuntza egun batetik bestera *bortizki* debekatu egin zioten. Bere baitan eragin izan dion giroak -inguruko eta norberaren aldagai disposizionalek- ekarri dio bi urteko mututasuna.

Halaber, giroaren aldagai funtzionalak zigorretan beha ditzakegu: Jaki-leak zigor bikoitza pairatzen zuen, etengabekoa: hizkuntza hautuaren arabera gerta zitezkeen bi egoera posibleetan (euskara edo frantsesa hautatuz, alegia) beti zigorturik zen.

Zigorretik ihes egiteko, pertsona horietako askok [eskolan edozein zela hautatzen zuten hizkuntzaren araberrako egoeran zigorra sistematikoa jasotzen zuten horiez ari dira hemen Sanginés eta Suay i Lerma] bere hizkuntza ezkutatu ez ezik, beren identitatea ere ezkutatu dute. Eta norbere identitatea sistematikoki ezkutatzea onartu denean, oso probablea da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztea aukeratzea, eta azkenean nortasunari berari uko egitea (Sanginés & Suay i Lerma 2008: 210).

Horra berriz ere Jakilearen hitzak:

Zeren eta... pentsa! Axama beti erraiten: "euskaraz mintza" etxean. Baina ni euskara behar galdu, eta, ez ontsa, ez ontsa emaiten. Hor bun! Biltzen [eskuaz zartako baten keinua], kanpoan ere bai. Gero... frantsesez behar mintzatu, baina ez ontsa ari! Badakizu! Beti... Sekulan ez ontsa ari! [ahots dardartia, begiak busti eta gorritu]. Sekulan... Eee... Sekulan... Nola erran? Sekulan ontsa maneiatzen. Sekulan ontsa ari, sekulan! Beti zerbait entrabal, beti zerbait gaizki! [berriz ere ahots dardartiaz] Orduan ahalke hori hortik horra zaidazu.

**Funtsean,
traumak ekarri
diona hauxe da:
bere lehen
sozializazioaren
hizkuntza egun
batetik bestera
bortizki debekatu
egin zioten. Bere
baitan eragin
izan dion giroak
-inguruko eta
norberaren
aldagai
disposizionalek-
ekarri dio bi
urteko
mututasuna.**

**Hizkuntza batean
espresatzen den
pertsona batek,
baldin eta
sistematikoki
erantzun moduan
ulertu ezina,
indiferentzia edo
gaitzespen
nolabait
nabarmena
jasotzen badu,
hizkuntza hori
erabiltzeari
uzteko joera
izango du.**

Jakileak hizkuntza hautuak eragin egoerari dagokion zigorrek estimu-
laturik mutu egotea erabaki zuen. Katalanek ere halakoak pairatu / tzen
dituzte, Sanguinése (2008: 210) oroitarazten duen gisan:

Hizkuntza batean espresatzen den pertsona batek, baldin eta sistematikoki
erantzun moduan ulertu ezina, indiferentzia edo gaitzespen nolabait nabarmena
jasotzen badu, hizkuntza hori erabiltzeari uzteko joera izango du. Eskolan
katalanez mintzo ziren umeei ahoa xaboiez garbitzen zitzairen garaiak ez daudela
urruti gogoratu beharra badaukagu ere, egia da orain ohikoagoak direla beste
zigor tipo batzuk, sotilagoak izanda ere besteak bezain efektibo direnak.

Eskolan bortizkeria psikiko eta fisikoa pairatu zituen, etxean, psikikoa
bakarrik -hiperzuzentasuna (Amonarriz, 2013:39) eta trufa-. Baina trau-
matismoa iragan-eta, hizkuntza portaera haiek ukan zituzten erantzun
traumatikoek herexak utzi dizkiote.

Ondoko puntuetan, Jakilearen hizkuntza jarreraren ikerketak ekarri diz-
kigun osagaietako bakar batzuk aletuko ditugu: lotsa, beldurra, duinta-
suna, autoestimua, kulpabilitatea eta autogorrotoa.

Jakilearen hizkuntza jarrera eta portaeran eragiten dute aldagai hauek,
Jakilearen jarrera eta portaerak aldagaietan eragina daukan ber.

Ikus dezagun zein diren Jakileak eta terapeutak deskribatu dituzten
traumatismoaren ondorio fisiko zein psikikoak.

Hanitz ene gorputzean hartu dut, enfin, bortizkeria hori. Eta, izan da enetako
mozte bat buruaren eta gorputzaren artean. Nonbait, ez naizelarik errespetatua
sentitzen, ebe, inork ere ez nau endeleгатzen ahal... Galtzen dut... Ez dakit
nola erran... Ez naiz haboro endelegarri, je ne suis plus compréhensible, ez
dakit nola erran... Hori da, galtzen dut... Galtzen dut... Eta hor... Aaaaa!
Mozten naiz gorputz eta... Aaa! Panique! Hori da enetako gauza... Enfin, ez
nuen sekulan endeleгatu nondik horra zen hori, eta lotura egin dut horrekilari
(...) pentsa ze eskizofrenia! (...) Sentitzen nuen moztan nintzela, ezin... Ene
ikusteko manera, ez nintzen heltzen errespetu araztera ene burua. Eta hola
izatez, nahi nuenaren kontrakoa lortzen nuen! norbait rola hori hartua nuen. Ez
da besteen hobena. Ni, ni naiz holako funtzionamenduan sartu, ttipitik, ene
ibiltzeko manera, eta hori jarraikiarazi dut. Eta hori entelegatu artino... Pentsa!
Orduan... aurtan lan egin dut ene lotsaren gainean. Zeren eta sentitzen baitut
lotsa bat, eta ez dakit nondik horra den. Eta orain dela sei hilabete... Sei
hilabete, ene terapeutak: "zer pasatu zen 5 urtetan?", eta orduan, pun! Flash
hori. Eta hor, aaa! Blokaturik, badakizu? Ezin hatsik har! (...) [galdetu diogu
irudi baten bidez adieraztea sentitzen zuena] soka bat tinkatzen, edo zintura
bat, edo oihal bat... un truc de contention, holako zerbait. (...) Baina beti

sentitzen dut presio hori... Ezin hatsa har... (...) Txainku izan nauzu (...) baina hunkiturik nintzelarik ez, frantsesez ere ezin ene burua espresatu, oro galtzen. (...) egia da galdu dudala euskara, ez nuen beste hauturik, 13/14 urte artino.

Terapeutak, berriz, halako ondorioak aipatzen ditu:

Des troubles qui ressemblent à de la dyslexie qui n'est pas du tout de la dyslexie, qui sont vraiment liés au stress. (...) Car il me parlait de ces troubles de dyslexie, difficultés à l'école, enfin tout ça, de sa difficulté à parler, à respirer, à s'affirmer, à affronter la colère, de tas de choses comme ça. (...) la somatisation est un grand classique, tout ce dont on n'arrive pas à dire à un moment donné ça s'exprime par le corps, pour Jakilea ça s'est déjà passé d'ailleurs.

Avec... l'apnée?

Oui, et puis l'opération des amygdales qui est très classique. Simplement, on n'était pas... c'était trop tard pour repousser l'opération, parce que la thérapie a commencé très peu de temps avant l'opération. (...) des conséquences physiques, mais ça Jakilea en est un bon exemple, sur la voie, sur la respiration. Et ce sont aussi des symptômes importants. Et bien sûr, j'oubliais, tous les troubles d'apprentissage. Alors là c'est un grand classique, Jakilea a dû vous en parler, de ses problèmes qui étaient... (...) Oui, échec scolaire, ça c'est le grand classique.

Autoestimua, lotsa, kexa, kulpabilitatea eta beldurra

"Chaque fois qu'il y a de la honte, ça veut dire qu'il y a un problème collectif. Donc, d'où les conséquences sur l'estime de soi, la colère, derrière la honte il y a toujours la colère, et s'il y a la tristesse, alors là, c'est cool".

Cyrulnik (2012:165) xehatzen digu norberarengan ahalkearen mekanismoa zein den:

Pour que j'ai honte de moi, il faut que je place l'autre au-dessus de moi et que j'en attende l'estime. Il faut que, dans mon attribution de croyance, je pense qu'il pense que je suis minable et que cette pensée me fasse honte. Le honteux ne sait pas que l'autre l'ignore ou peut-être même l'estime. Il souffre de l'image déchirée qu'il expose à son propre regard.

Jakileak orain arte bakardadean bizi izan duena, arazo soziala da. Odriozolaren (2017: 24) hitzek argitzen dute fenomeno hau hizkuntza-komunitatera extrapolatuz:

Identitatearen zentzu-krisi batek bizi gaitu euskaldunok, non euskalduntasunari darion nortasuna ez den nazionala eta legitimoa zentzu soziologikoan eta, ondorioz, mendeko identitate-zentzu baten sorkariak gara, horrek dakartzan au-

**Lotsa eta
autoestimua
eskuz-esku doaz,
begi bistakoa da;
autoestimua gora
duenak
lotsatzeko aukera
gutxiagoa
duelako, edo
lotsa bizitzen
duenari
autoestimua
apalduko
zaiolako.**

toestimu arazo eta gutxiespen sentimenduekin. Identitate-zentzu hauskorra darie euskaldun izateko gaurko baldintza soziolinguistikoei. Horregatik, gure euskalduntasuna ezkutatu nahi izatera irits daiteke gure autoestimurik eza.

Norbanakoen portaerak hiztun gisa, finean, komunitate osoarena islatzen du:

Norberaren hizkuntzarekiko jarrera negatiboek, sarri, hizkuntzaren ordezkatzeprosesuak eragindako lotsa-sentimenduetan dute iturburua. Egoera hori oso nabarmena da munduko hizkuntza indigena askotako hiztunengan, baina baita Europako herrialdeetan ere, gutxiengoen hizkuntzak estatuen asimilazio-politikapean daudenean. Gainera, hizkuntzen inguruko jarrerak hiztunen ingurukoak ere islatzen dituztenez, oso zabalduta daude hizkuntzen mailakatzeari behe aldean geratzen diren hiztunekiko jarrera negatiboak (Joly & Uranga, 2010:211).

Autoestimua eta duintasuna

Lotsa eta autoestimua eskuz-esku doaz, begi bistakoa da; autoestimua gora duenak lotsatzeko aukera gutxiagoa duelako, edo lotsa bizitzen duenari autoestimua apalduko zaiolako. Gisa berean, autoestimu egokia duenak duintasuna ere ukanen du, bere buruarekin ados eta leial ariko den heinean.

Haatik, Miner (2010) eta Ayestak (2014: 18) oso argiki erakusten dute autoestimua zertan duen hiztun komunitateak: “Autoestima lurretik daukagu: Ez dugu gure ahalmenetan sinesten, eta ondorioz, ez dugu berriazko begiradarik gureganatu”.

“onartua ez izateko beldurraren aurrean burua makurtu eta gure izaera faltsutu egiten dugun bakoitzean, gure autoestimua sakon lurperatzen dugu”.

Odriozolak ere (2010: 166) euskal hiztunaren egoeraren gordina erakusten digu: “Bistan denez, giza duintasunaren balioak ezabatzen dituen baldintza soziolinguistikoetan bizi da hiztun zapaldua. Mendekotasunak, berriz, sumisiorako joera indartuko du hiztun-mota horrengan”.

Beldurra

Ukan dut lotsa hanitx [beldur]. Zeren eta, Pentsa! Ezin... eeee... inork ere ezin ni entelegatu, ez naute entelegatu, egiten dut oro ez entelegaturik izateko, oro ene maneran, rola horretan sartu bainaiz bortxaz, eta hori errepikatu dut, betitik. (...) eta ni... orain... [aitarekiko harremanaz ari da] mintzatzen naiz frantsesez. No problem. Ez dut bortxatu nahi. Baina, bera sentitzen dut. Hop! Aritzen ahal garela euskaraz, baina nik badut beti lotsa hori, beldur hori, bera

jin dadin tsssss! [eskuaz ebakitzea adierazten du] oraino momentuz ni... zuzentzeko, gauzak.. eta... Badakizu, zorrotz. Momentuz ez naiz oraino ausartzen... ez naiz... oraino... ez dut haboro ni inporta.. "nahi duzu mintza gaitzen frantsesez? Mintzatuko gara frantsesez".

Saiakerak eginagatik, seguru aski, eskema (Suay i Lerma, 2013: 15) honen errepikapenak ekarri dio beldurraren egonkortzea Jakileari:

Ahalegina → nekea → zigorra → jarreraren murrizketa

Jarreraren ibilbidearen eskema bat da hau, hizkuntza batean entseatzeak, nekea ekarri dio, parekoaren erreakzioak zigorra (hiperzuzentasuna, zartakoak eta trufa), horrek, jarrera horren murrizketa ekartzen duelarik. Ahaleginaren ondotik, nekea, eta segidan zigorra badatoz, egoera hori errepika dadin beldurra ukaitea logikoa da, are gehiago haur denboran finkatua izan delarik.

Kulpabilitatea

Lotsa eta kulpabilitatearen arteko muga zinez sotila da. Cyrulnikek laguntzen digu bien ezberdintzen: lehenaren kasuan, batek bere buruari haxe dio: "ezdeusa haiz", hobendunak aldiz: "hire errua dun". Jakileak, biak ukan ditu. Bigarrena, ordea, kentzen lortu du, lanketari esker:

Eta uste nuen ene ogena zela hagitzen ziren gauzak: ez banekien ontsa euskaraz, ez baldin banintzen ongi ari eskolan... dena zen ene falta! Dena! Dena ene ogena! Denak horren alde, errejenta, aita-amak horren alde, instituzioak... denak. Eta nik hartu leku hori, egiteko manera hori, ni beti ogendant, ni beti gaizki ari, la stratégie de l'échec. (...) Ez nuen sekulan lagutzarik! Alta, ez nintzen ogendant, alta ez nintzen ni ogendant! Baina nik nuen hobena, helduak ez ziren sekulan kuestionatzen, edo beren gain hartzen zer bait.

5 urteko haur batentzat, inolako esplikaziorik gabe hizkuntza kentzea eta horri loturiko unibertsoa mespretxatzen hastea normalizat bizitzen da baldin eta etxekoek hala bideratzen badute. Hartara, eskolako porrota bere gain hartu izan du betidanik Jakileak, orain arte.

Orainsu, etxondoko bazter batean, orduko eskolako kaierak atzeman izanak burutzen ari den terapian lagundu dio kulpabilizazio horren zama arintzen, sarri aipatuko dugun erresilientzia egin ahal izateko:

Eta hor markatua: "a, X [Jakilearen izena], X eee... Parle bien en basque, mais en français quesqu'il est nulle!" [tzz! Eskuekin lepoa mozteko keinua egin du] pentsa! Banititzun 7 urte Holako... holako...

Hizkuntza batean entseatzeak, nekea ekarri dio, parekoaren erreakzioak zigorra (hiperzuzentasuna, zartakoak eta trufa), horrek, jarrera horren murrizketa ekartzen duelarik.

Apreziazioak?

Bai, apreziatioak. Ene errejentenak. Eta ene aita eta amak izenpetzen, hori. Pentsa, ze sustengua banuen... Pentsa ze traumatismoa, pentsa ze bortizkeria! Pentsa! Errejenta antieuskaldun... Antii... afruskeria bat. Eta holako. Eta baditut apreziatioak: "il est fort en basque mais en français qu'est ce qu'il est nulle!", "exaspérant", "il m'exaspère par son orthographe!", holako, badakizu? "un raisonnement farfelu". Holako... Badakizu? Kar-kar-kar... Hori da nire... orduan pentsa! Hizkuntzaren aldetik... Orain dut entelegatu, eta hor orain naiz anpletzen horrekin, behar ere!

(...) peko etxean, sabaiaren kantian, bada peko etxea. Eta dena hutsik, salbu eskolako 7 kaier. Eta hor, aaaa! Ok!! Eta hor, jiten, jiten, nire... Nola erran? Jiten, ebee, sentitzen nituen gauzak konfirmatzeraz.

Froga objektibo bat.

Bai, ez dela memoria joko bat. Hori bera. Uf! Egia da! Ez naiz ogendant, nonbait. Eta orduan, kulpabilizazio hori ilki dut.

Autogorrotza

Aitarendako... Izan da ene ustez... Bera... Alta badaki ontsa euskaraz, nonbait bere axaita izan da amiñi bat, izan da konplikatu beretako. Eta berak onartu euskarak ez zuela deusendako balio. Euskarak ez du balio. Frantsesak bai. Hori ene interpretazioa da eta oro da interpretazio. Ene ustez, enfin... Gero, zen gerla denbora, eta zen pobretasun hanitx. Eta gero, izan da ekonomikoki, badakizu gerlatik landa, Frantziatik sosa jiten, badakizu, modernitatea... Euskara zen gauza zahar bat... Lehengo usantzak... Eta hor izan zen modernotasun hanitx, eta aita hor sartu zen atope. Eta hor, nonbait, onartu berak ere euskarak ez zuela deusendako balio. Ez zuen balio euskaraz mintzatzeak.

(...) Gero, instituzioa jin baitzen etxerat, eskola jin baitzen etxerat, eta, erraiteko ez zela haboro behar euskaraz elestatzen etxean enekilan. Hor, nonbait, aitaren alde, nonbait, konfirmatzen ebe, bere ikusteko manera, euskarak ez duela deus ere balio. Jin da, nonbait, dilindan pisua emaitera aitari

Jakilearen kontaketa, aitaren jarrerari ikusi dizkiogu autogorrotzaaren zantzuak. Izan ere, etxean bizi izan zuen euskaraz mintzatzeko debekuak, zeina Jakilearen axaitak ekarri baitzuen, konnotazio despektiboa ekarriko zukeen.

Suay eta Sanguinés (2008: 87) psikologoek hitzetan etzan dute fenomeno hura, hizkuntza nortasunaren garraiatzaile gisa kontsideratuz:

Urte askotan zehar, baita orain ere, gizarte mailaz igotzeko, nortasuna ezkutatzea izan da jokabide errentagarriena. Eta nortasuna sistematikoki ezkutatzea onartzen denean, oso litekeena da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztearen alde egitea, uko eginez. Eta hortxe oinarri dezakegu, baldintzetan oinarritutako ikuspegitik, norberarenganako gorrotoaren fenomeno ezaguna.

Jakilearen aitari gertatu zaiona kolonialismoak gizabanakoarengan eragin ondorio gisa deskribatzen du M.J. Sibille terapeutak:

“il y a un gros problème d'estime de soi, donc voilà, sous-estimation permanente de soi, adhésion dans le pire des cas au discours d'autorité ou du dominant, intériorisation”.

Halaber, Fanonek (2002: 46) kolonizatzaileak kolonizatzaile lana orduan duela uzten analizatu zuen, alegia, menderatuak berak menderatzailearen baloreak goraipatzen dituelarik, kasua den bezala: “dans le contexte colonial, le colon ne s'arrête dans son travail d'éreintement du colonisé que lorsque ce dernier a reconnu à haute et intelligible voix la suprématie des valeurs blanches”.

Autogorrotoak ekar ditzakeen ondorioez arranguratua da Davant (2017: 302), zeinak salatu baititu autogorroto horren eragileak:

Le pire qui puisse arriver à un être humain est de se détester soi-même, de mépriser ce qu'il ou elle est, de rejeter sa langue ou sa personnalité, de renier ses racines et ses aspirations propres. C'est pourtant ce que nous dicte un certain nationalisme français, sous couvert d'universalisme hautement proclamé. (...) autrement dit, l'ethnocide a bien fonctionné. (...) le terme me paraît bien être celui d'ethnocide, “destruction d'un peuple, d'une société sur le plan culturel”.

Azkenik, Jolyk (2010: 189) erakusten digu hizkuntza gutxituetako hiztunek beren hizkuntzaren balorazio anormala egiten dutela:

Normalean norberaren hizkuntza eta kultura besteena baino hobeto baloratzen da. Alderantziz, katalanek eta okzitanoek frogatu duten moduan, autogorroto fenomenoak hizkuntza gutxituaren hiztuna bere hizkuntza, hizkuntza menderatzailea baino okerrago baloratzera bultzatzen du.

**Normalean
norberaren
hizkuntza eta
kultura besteena
baino hobeto
baloratzen da.
Alderantziz,
katalanek eta
okzitanoek
frogatu duten
moduan,
autogorroto
fenomenoak
hizkuntza
gutxituaren
hiztuna bere
hizkuntza,
hizkuntza
menderatzailea
baino okerrago
baloratzera
bultzatzen du.**

ONDORIOAK

Lan honetan agertu zaizkigun emozio guziek kalte egiten diote Jakileari. Alegia, lekukoa borrokan ari da horiek guziei behar izaria emateko ongizaterako bidean. Fanonek aldarrikatzen du gizabanakoak bere askatasunaren alde egin dezan partaide den taldearen alde ere eginez, baina

***Ikerketatik atera
ditugun ondorio
nagusiak hiru
dira; gure
lekukotasunak
gizarte oso baten
egoera islatzen
duela. Alegia,
Jakilearen gaizki
bizia euskal
komunitate osoak
pairatzen du.
Bestalde,
erresilientziaren
bidea proposatzen
dugu, zeinak
gaizki bizitze
horri zentzua
eman baitakioke.
Hondarrean,
bizitza-historia
hau ezin kasu
hobea da bere
burua,
profesionala
lagun, ikertzen ari
den lekukoa baita.***

baita giza arrazaren beraren alde ere, zeina arrazak berak kaltetzen baitu. Norberak bere burua begiratu beharraz gainera, ondokoari ere so egin behar zaiola, bakoitza bere talaiatik. Askatasunaren baitan hizkuntzaren erabilpen askea berezko ezaugarritzat dugu.

Ikerketatik atera ditugun ondorio nagusiak hiru dira; alde batetik, inductiboa, hots, gure lekukotasunak gizarte oso baten egoera islatzen duela. Alegia, Jakilearen gaizki bizia euskal komunitate osoak pairatzen du. Bestalde, erresilientziaren bidea proposatzen dugu, zeinak gaizki bizitze horri zentzua eman baitakioke. Hondarrean, bizitza-historia hau ezin kasu hobea da bere burua, profesionala lagun, ikertzen ari den lekukoa baita. Hala, egoera ulertzeaz gain, hobetzeko bideen bila ere ari delako. Bide horietan euskal hiztun komunitate osorako baliagarri izan daitezkeen ondorioak ateratzen entseatu gara.

Oro eri: kasua komunitatearen isla

Il y a une violence qui a été faite à l'accès à la parole et au langage, et c'est là qu'il faut aller chercher. Et donc, en ciblant ça tout de suite on a vu que ça se transformait à toute allure. Enfin, vraiment pour moi ça a été le tournant quoi. Ça enlève rien aux autres difficultés, aux autres événements difficiles, mais tellement on est dans un traumatisme collectif. (...) Donc, ça dépasse la personne, l'individu. Il y a vraiment quelque chose de collectif. Et c'est extrêmement révoltant la manière dont c'est traité, si vous voulez. C'est... même encore aujourd'hui, c'est révoltant la manière dont c'est pris en charge, ou plutôt comme c'est nié, dont, c'est occulté. Moi qui suis vraiment pas concernée, enfin, à part par empathie et par vagues souvenirs de ma grand-mère, c'est... Je... Je suis révoltée de voir comment ça se passe. Comment le politique traite ça, vraiment. Jakilea traite ça de colonialisme, il a tout à fait raison, il y a une telle violence! Et je suis persuadée qu'il y a beaucoup de personnes qui ont vécu ce même problème.

Terapeutak ezin argikiago argira ematen du Jakilek pairatu(zen) duen bortizkeria gizabanakoaz harago doala, hizkuntzaren jendarte osoa bersarkatuz, nahiz eta, emozioak bakarka bizitzen dituen.

Olasok ere maila indibidualari garrantzia ematen dio ondorio orokorrak ateratzeko:

Elebitasunaren aztergaian, ukipen egoeratan batez ere, garrantzitsua da aplikazio maila guztiak kontuan hartzea. Horrela, gizabanako mailan gertatzen dena, neurri handian goragoko maila zabalagoetan gertatzen denaren ondorio izango da (Olaso, 2018: 17).

Bortizkeria horrek ekartzen du, besteak beste, Fishmanek *suizidio kulturala* (Fishman *apud* Zalbide, 2004) eta M.J. Sibillek *kolaborazioa* deitzen dutena, hots, hizkuntza nagusiaren alde eta gure buruari uko egiteari:

il y a amputation d'une partie de soi, ça c'est le cas le plus fréquent, c'est ce qu'a vécu une partie de la famille de Jakilea. C'est à dire on prend le... Entre guillemets le mot est très fort, il ne faut pas l'utiliser comme ça mais ça serait un peu la collaboration. Vous voyez? C'est à dire que c'est l'idée: il faut s'assimiler à tout prix: on prend le partie du dominant...

Beste hitz batzuetan ideia bera adierazi zuen Bourdieuk ere: *bortizkeria sinbolikoa*. Hots, meneratu inkontzientek menderatzailearen mekanismo guzia naturalizat hartzen duelarik, eta, hala, menderatzaileari lagundu egiten diolarik bere buruaren dominazioan.

Hari beretik, Mattin Irigoienek *Homologazioaren* terminoa darabil. Izan ere, hizkuntzari doakion fenomeno zuri izan nahi duen esklabo beltzari konparatzen dio edo maisuari plazer egin nahi dion ikasleari. Betiere, nagusiaren kodeen arabera, beraz, inkontzienteki kode horien eskala asimilatuz eta bere buruaren kontra eginez. Helburua, ezagutua izatea da, dio Irigoienek, gure izatea deskalifikatua izatea baita ezaugarria, eta horrek min egiten... Orduan eskua luzatzen diogu "besteari" ezagut gaitzan, eta horretarako gu ere "beste" egiten gara erakusteko zintzoak garela (haren kodeetan), merezi dugula ezagutza... Hots, zapalduak gara, baina zapaldu zintzoarena eginen dugu: ez gaitezen agert bestearen kodeetan ezin jasanak, itsusienak, arbuiagarrienak (haren ideologia irentsia dugu eta oldartzea ere haren baitan ulertzen dugu, haren kodeek baikaituzte azken finean "jende" egiten").

Erresilientzia

On revient, on ré-approvoise les choses, on montre comment auraient dû se passer etc. et à ce moment là on est dans la résilience. Et il y a des changements physiques... enfin il a du vous les raconter Jakilea, mais il y vraiment des changements qui peuvent se produire.

Funtsean, M. J. Sibillek dioen gisan, erresilientzia traumatismoaren berri-daketa bat da. Gure burumuina traumatismo hura nola sailkatu duen ikustea da, elementu guziak tiraderetatik atera, hautsa kendu, eta berriz ere manera ordenatu eta ulergarri batez begiratzea.

Cyrulnik (2012: 17) lotsaren adibideari esker argira ekartzen digu bere adiera:

**Idea bera
adierazi zuen
Bourdieu ere:
bortizkeria
sinbolikoa. Hots,
meneratu
inkontzientek
menderatzailearen
mekanismo guzia
naturalizat
hartzen duelarik,
eta, hala,
menderatzaileari
lagundu egiten
diolarik bere
buruaren
dominazioan.**

**Testuinguruaren
laguntza
funtsezkoa da
norberaren
sufrimenduei
gaina hartzeko,
zentzurik ez
zuten
traumatismoak
berridazteko.**

La honte, ce sentiment de poison, cet abcès dans l'âme, n'est pas irrémédiable. On peut passer de la honte à la fierté quand notre histoire évolue ou selon la manière dont nous prenons place dans notre groupe culturel.

Hala ere, lehen lehenik, trauma egon denik onartu egin behar da, eta izendatu.

Jakilea hizkuntzaren zampaketa orain da kontziente bilakatzen, baina sekulan ez du horren gaineko eztabaidarik bizi izan, isilpeko konkordantzia hori, ulertu gabe bizi izan duelarik, bortizkeria sinbolikoari leku eginez. Horregatik, gertatutakoak izendatzeak izana agerian ezartzen du, ulermena zein erresilientziari bide eginez:

Nommer c'est faire exister, et réciproquement. L'existence des choses est arbitraire, tout autant que leur nom: c'est le processus de nomination (...) Nommer c'est inscrire dans l'histoire, [...] et l'anonymat vous en exclut (Le Gac-Prime, 2017: 313).

Horregatik, lehen urrats hau egin ezean, gertatutakoen ukazioan, mina ezin da azaleratu, ezin da izendatu, beraz, ezingo da berrantolatu:

Le déni, qu'il soit mental ou physique, est un mécanisme de défense qui permet de moins souffrir en s'adaptant à un réel incohérent. Mais ce facteur de protection empêche la résilience quand il freine la recherche de sens (Cyrułnik, 2010: 47).

Behin zapalketaren kontziente izan eta, erresilientziarako bidea posible da, zeinaren gakoak bi baitira (Cyrułnik, 2010:38): "le soutien et le sens".

Jakileak bere zailtasunen iturriak terapeutarekin identifikatu-eta dena *berez jin zen*, lotura guziak bata bestearen ondotik aise egin zituen, bere historiari zentzua emanez.

Izan ere, dena bere hobena izatetik, kulpabilizazio hori kentzearekin eta lotsa gainditzearekin, bere buruarekiko bakearen bidean da, erasotua izan dela eta anormaldutako hizkuntza batean bizi dela jakin baitu. Alegia, testuinguruaren laguntza funtsezkoa da norberaren sufrimenduei gaina hartzeko, zentzurik ez zuten traumatismoak berridazteko.

Horretarako, bere haur denborako eskolako kaierak atzeman izanak, adibidez, hainbesteko garrantzia du: "retrouver les indices de son passé, c'est recoller les morceaux du moi brisé" (Cyrułnik, 2010: 71).

Petatxuak ordenatu eta juntatu bitartean, ingurukoekiko harremanak bere eboluzioaren arabera doitzen ari da. Aitarekikoa aipatu egin du elkarrekin etxeko obra batzuen inguruan gertatua:

Baina nik erran nion “duintasuna hor defendatuko dut, jakin ezak!”, eta hor hasi zen negarrez... eta egiten dudana lanak, nonbait, bera ere laguntzen du. Sentitzen dut nola ari den anpletzen... Lehen geziak ziren ene kontra, orain sentitzen da anpletasun bat, laketa, permititzen hartzera...

Hala, hizkuntzarengan ere badu eraginik, nola ez:

“Baina ene haurrer mintzatzen da euskaraz. Super, super, super. Berak badu proble... Enfin, badu hori, eta errespetatzen dut”.

Bere buruaren askatasunaren bilatze lanek Jakilea eta aitarekiko harremana irauli egin dute, ororen buru, aitari berari ere lagunduz.

Eta bide beretik, seme-alabekiko hizkuntza-harremana asko zaintzen ari da, ez baitu inolaz ere bizitakoa errepikatu nahi:

Baditut alaba eta semea. Alaba beti ari da euskaraz. Baina semea... Ez, hor da, hor da. Badakit hor badela... Hor... Gure artean, ari da joko bat egiten, eta enea, eta behar dut kasu egin ez errepikatzea nik bizi izan dudana. Ari baita beti frantsesez, eta ni beti euskaraz! Euskaraz! Baina zer ari naiz hor? Orduan, hola, bortxatu gabe, interes sobera ezarri... Ez dakit nola erran, entseatu inportantzia sobera ezarri gabe, naturalki, pazientzia.. Eta...

TELPi tailerrekin, erresilientzia honetan koka genitzake. Terapeutak berak begi oso onez ikusten ditu euskal hiztunen ongizaterako bidean:

C'est là que la résilience prend tout son ampleur. Les groupes dont vous parlez [TELP tailerrak] c'est une extraordinaire voie de résilience. (...) c'est tellement violent, c'est d'une violence symbolique telle, c'est empêcher, ou, puisqu'on est en démocratie, donc on met plus les gens en prison, théoriquement en tout cas, c'est quand même empêcher l'accès à une part essentielle de soi en le dénigrant, en empêchant le fait que ce soit enseigné, je ne sais pas, des choses comme ça quoi. Je ne sais pas comment ça se passe exactement au Pays Basque, mais c'est... Tous ces interdits qui sont sous-entendus, et voilà. Après il y a évidemment des poches où la résistance, entre guillemets, va se construire, mais on est dans quelque chose d'opposé, pas d'intégratif, vous voyez? c'est: soit l'assimilation et on oublie ses racines, soit on est dans le conflit et on est dans la rupture. Dans le rejet. Donc ce n'est pas satisfaisant du tout, je trouve que là il y a quelque chose qui n'est vraiment pas satisfaisant.

Eriari irria: hiztunaren ongizaterako tresna batzuk

Hala, lan hau bururatzeko sorkuntza, erresistentzia kulturala, integrazioa, portaera proaktiboa, edo autozentratzeak proposatuko ditugu Jakilearen

**TELParen
muinak egoera
komunikatiboak
baikortzea
darama, jolas
gisa, irudimena
erabiliz,
norbanakotik
talde osoari
eragiteko
sorkuntza gisa.**

eta bide batez euskal hiztun komunitate eria edo sufritzen ari den horren sufrimenduak jabaltzeko eta ongizateetik hurbiltzeko.

Ayestak eskatzen duenarekin ados, portaera erreaktiboa baztertuz eta proaktiboaren alde eginez:

Ayestak (2016: 26) eskatzen duenarekin ados, portaera erreaktiboa baztertuz eta proaktiboaren alde eginez:

Biziraupen-mekanismoa oso eraginkorra da arrisku fisiko handiko egoeretarako. Baina bizitzako gainerako erronketan errendimendurik onena lortzeko, egoera emozional atsegin eta positiboa aukeratu behar dugu; ilusioa, konfiantza, pazientzia, poza, eta enpatia bezalako emozioak sentitu eta sentiarazi (...) emozio negatiboak ez dira eraginkorrak, laktatatzetik betetzen gaituzte.

Preseski, ideia honen erdiesteko, TELParen muinak egoera komunikatiboak baikortzea darama, jolas gisa, irudimena erabiliz, norbanakotik talde osoari eragiteko sorkuntza gisa:

Egoerak gatazka edo zailtasun gisa hartu beharrean jolas moduan hartzeak bidea ematen du horri aurre egiteko behar den ahalegina norberarentzat atsegin iturri izan dadin eta, horrenbestez, eraldatzaile izan dadin zigorra izan orde. Eta badakigu indartzen gaituzten portaerak aukera handiagoa dutela etorkizunean errepikatzeke (Suay i Lerma & Sanginés, 2015: 98).

Dena den, lan honek ongizaterako bidea erakutsi badiezaguke ere, ohar gaitezen erresilientziak balio digula baina partez bakarrik: traumatismoak iragana izan behar baitu. Alta, Jakilea eta bere hizkuntza-komunitatearen kasuan trauma bizitzen ari den komunitatea da, orain eta hemen.

Izan ere, Jakilearen trauma larriena 5 urtetan xuxen koka dezakegu, iraganean, hots. Haatik, handik eratorritako ondorioei gehitu behar zaizkie oraingo egunean bizitzen dituen eguneroko trauma komunikatibo ttipiak euskaraz bizi nahi izateari lotuak, zeina estres linguistiko hutsa baita. Honetan datza kasu honek, hain xuxen ere, komunitate osoarekin duen lotura.

Hala, zinezko erresilientzia bat egiteko, euskal hiztun komunitateak bizi duen zapalketa gainditua beharko luke dagoeneko. Eta urrun gaude hortik.

Hau erranik, gure erriari ibiltzen laguntzeko, sorkuntzak eman liezaioke bizirauteko makulua. Terapeutak integrazioa aipatu duelarik, *création* proposatzen du norberaren izateari uko egin gabe:

Soit rebelle, soit intégration. Moi je pense qu'il y a une porte ouverte à la créativité.

Jakileak eta adiskide batek umorezko esketx batzukⁱⁱ euskaraz muntatuak dituzte, beraien esperientzietatik abiatuz, eta, terapeutak berak azpimarratu duenez, Jakilearentzat bere historiaren parentesi baikor bakarra da.

Sorkuntza, funtsean, euskaldunek berek eginikoa. Besteen begiradetatik libratu, hots, autozentratuz. Hemen Odriozolak (2010: 170-171) aldarrikatzen duen bezala:

Bere nortasunean eta duintasunean zentratu beharra dauka halakoak, autozentratu beharra, gutxiagotasunaren sentiera-pipiak barrutik jango ez badu. Gainerakoan, badakigu, autoetnozidiorako ateak aldeaz alde zabaldu ohi direla.

Hots, lotsa _Ekialdeko euskarari dauzkan bi adieretan: ahalke eta beldurra_ gainditu, eta, norberak bere zinezko beharrei behatuz sortze kreatiboa. Joan i Marí (*apud* Lasa & Madinabeitia & Sanginés 2014: 125) horrela definitzen du autozentratzea:

Autozentratzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Bere burua satelizatua, mediatizatua eta beste giza komunitate baten ikusmiratik ulertua izan den giza komunitatea bere perspektiba propio jakinetik ikusten denean autozentratua dagoela esan dezakegu (...) Autozentratze prozesua autoestimua beraren berreskuratzearekin batera ematen da.

Jose Angel Irigarai poetak hitz hauek ere baliatzen ditu autozentratzetik oso hurbil: geure eguzki-sistema sortu behar dugula, inoren orbitaren inguruan itzulika ibili ordez.

Miner (2010) ere ohartua da horretaz: “Ez gara gure baitakoak: Eeok [euskara elkarte eta euskaldunon elkarteek] besteen jardunaren orbitan gabiltza, gu autozentratu gabe”.

Hala, irudimena martxan ezarri, eta norberak bere hizkuntzaz krea ditzala egoera berriak, lotsa eta zailtasunak gaindituz, energia negatibo guztia baikortuz sorkuntzaren bidez; “nork bere burua maitatu ezean, ez dago zoriontsu izaterik. (...) Ez gaude munduan besteen nahiak asebetetzeko, gure asmoak betetzeko baizik. Asertibitatea ez da agresibitatea” (Ayesta, 2014: 17-18).

Altonagak aldarrikatzen duen hibridazio dialektalaz erranik: Guhaurrena geuretzako geron arabera.

Rodriguezen ideia honi ere atxikiak gara:

Rodriguezen (2018) ideia honi jarraiki:

**Jakilearen
traumatismoa
euskal hiztun
komunitate
osoarena da,
herri bati
hizkuntza bortxaz
extipartzen ari
zaion heinean.
Hortik abiatuturik,
diagnosi
horrekin eta
erresilientziari
esker oinazearen
nondik norakoak
ulertu eta gero,
minaren
aringarriak
sorkuntzatik
bilatu egin behar
zaizkio
autoestimua eta
duintasuna
goratuz,
kulpabilizazioa
eta lotsa uxatuz.**

Hizkuntza baten biziberritzearen muina sormenak duela gero eta argiago daukat. Baina ez normalean aipatzen den sormenaren definizio mugatu hura: sormena literaturan bai, sormena zineman bai, sormena musikan bai, baina baita zientzian, egunerokoan, filosofian, lanean eta abarretan ere. Euskaraz sortzea, alegia, euskaratik eta euskaraz gurago bada.

Eta, sufrimendu guztiaren erdian, kontzeptu berri batek balio lezake, mutilazioan aringarri: masturbazio linguistikoa. Hots, eguneroko frustrazio linguistikoa da desafio gisa hartu, jolas baten pare, eta horrekin gozatu. Euskaraz gozatu sormen-alor guztietan, baita politikan ere. Norberak bere burua gustuko badu, zaintzen badu, berez da erakargarri bilakatuko:

Joan i Mari-k (2012) esaten duen legez, hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza portaerak berreskuratzeko, ezinbestean, autoestimua kolektiboa berreskuratu behar da. Zaila da hizkuntza bat erabiltzearen alde egotea hizkuntza-komunitate hori ez badago nahikoa baloratua. Eta, era berean, zaila da autoestimua berreskuratzea lehenago ez bagara autozentratzen (Lasa & Madinabeitia & Sanginés 2014: 125).

Masturbazioak eskatzen duen intimitatea beharrezkoa da: besteen begirada egon daiteke, baina kontzienteki hautatua eta norberaren gustuaren arabera, ez inposatua. Bestela, plazer ukatua da. Haatik, ez dezagun uka, masturbazioa trantsitorioa izan badaiteke ere, ganorazko bizitza sexualerako partaideak beharrezkoak dira. Eta horretan dago koska, Mixel Etxekoparrek (2017) *Berriako* elkarrizketan zioen gisan, balizko hiztun partaide horiek desagertzen ari baitira: “Tsunami bat izan da 25 urtez. Harritzekoa. Ene adinekoen artean, hamarretarik zortzi edo bederatzik euskara badakite. Eta oraingoen artean, hamarretarik batek”.

Horiek hola, Jakilearen traumatismoa euskal hiztun komunitate osoarena da, herri bati hizkuntza bortxaz extipartzen ari zaion heinean. Hortik abiatuturik, diagnosi horrekin eta erresilientziari esker oinazearen nondik norakoak ulertu eta gero, minaren aringarriak sorkuntzatik bilatu egin behar zaizkio autoestimua eta duintasuna goratuz, kulpabilizazioa eta lotsa uxatuz. Haatik, jakin, aringarri horiek beren mugak badituztela komunitate eria traumatismoa pairatzen ari den une honetan, berehala aipatuko dugunez.

Sorkuntzaren alorrean Pello Jauregik abiatu eta Ttakun Kultur Elkartek segitu duen Kuadrillategi esperimentua interesgarria da arras. Helburu esplizitua ez da euskaraz aritzea, baizik eta aisialdian taldean ongi pasatzea, baina euskaraz, talde-liderrak “neutralizatuz”:

Adostasuna bilatuko da taldearekin eta bereziki liderrarekin Coachingaren bidez. [...] talde kohesioa lortzeko, liderraren alde egin behar dugu, honen tre-beziak indartu behar ditugu eta honen alboan egon behar dugu. Gu [suspertzailea] izan behar gara liderraren lider psikologikoa. Ondo pasatzeko prestutasuna izan behar da. Talde kohesioa, errespetuan oinarritu harremanak garatuz area-gotzen dugu. Transgresioa, modu positibo batean agresioa izan daitekeen hori landu behar da, sormenarekin, aportazioak burutuz, proaktiboak izanik... (Gonzalez, 2018: 15)

Zentzu honetan, bertsolaritzak eman duen saltoa deigarri eta eredugarria egiten zaigu: jakin izan duelako bere burua birziklatzen. Aisialdian ongi pasa araziz eta euskaraz, Txepetxek arestian definitzen duen hiztun osoari begira: “se siente a gusto en su lengua”, etengabeko sorkuntza akuilatuz eta euskarazko liderrak ekarriz. Gure Zirkua ematen duen eredia ere ez da gutxiestekoa.

Eta, ororen buru, Larreategik (2012) laburbilduko lituzke euskal Jakileak jarrai ditzakeen urrats psikologikoak, autozentratzerako norabidea hartu nahi badu:

Eguneroko bizitzan menpekotasunak sortzen dizkigu asimilazioak eta horiei aurre egiteko aldaketak egin behar ditugu, eta aldaketok ez dira horrelako hausnarketak: “Ni oso euskalduna naiz, oso kontziente naiz...”, trankil, Odriozolak esaten duen bezala, gure frantsesito edo espainolitoa denok daukagu barruan. Jakin egin behar dugu frantsesitoa/espainolitoa dagoela barruan eta gero euskalduntasuna lehentasun izan dadin asmatu behar dugu. Konturatu behar dugu gure buruarekiko errespetuz egiten dugula ariketa hori, harrotasunez, eta beraz ona dela denentzat, guretzat, gure ingurukoentzat, erdaraz bizi nahi duenarentzat. Horrela, asimilazio prozesua eteten dugu, hortik irteten ari gara.

Norberak bere buruaren alde egin, ezeren kontra egin gabe, ez bada zapalketaren eta asimilazioaren, sorkuntzatik. Errespetua bai, baina geure buruari, hasteko.

Finean, honako lan honek ekarri ahal izan duena zera da: euskal komunitateko hiztunak traumatizatzen dituen fenomenoari izena jartzea: kolonialismoa. Eritasun bat dagoela jakin badakigularik baina ezin izendatua delarik, zailtasunak biderkatu egiten dira, psikologikoki ezin izendatua baita eta, ondorioz, izatea bera ere dudan ezartzen baitu. Gainera, eritasun bat izendatzeak bere izana eta bera ukaitearen onarpena ekartzen ditu, sendabidearen lehen urratsa ekarriz.

Haatik, hiztun erriari ez diogu behin-betiko berehalako sendabiderik eskaintzen ahal, demagun hizkuntza soberania, behin-behineko aringarriak baizik.

Norberak bere buruaren alde egin, ezeren kontra egin gabe, ez bada zapalketaren eta asimilazioaren, sorkuntzatik. Errespetua bai, baina geure buruari, hasteko.

**Haurren
heziketatik
beretik has
daitekeen lana
ezinbestekoa
iruditzen zaigu,
norbanakoaren
eguneroko
bizipen
mingarriak
partekatu eta
oinazea sentitzea
gauza normala
dela ohartzeko,
kasu isolatutik
urrun.**

“Lehen konponbideak (gutxiagotuta egoteari uzteak) aurrera egiten duen heinean, bigarrena (geuk egiten duguna aldatzea) gero eta errazagoa izango da. Hala, lehenak erabateko arrakasta baldin badu, ez dugu bigarrenaren beharrik izango (zorionez)” (Suay i Lerma, 2015:34).

Jakileari galdetu diogunean, orain, minari izena jartzen eta bere historia berridazten ari den une honetan, bere burua nola marraztuko lukeen, hau da hitz bakar batez eta mimikaz ihardetsi diguna:

Horrela! [begitartea irriz, begiak ñir-ñir eta zabal-zabalik, bi besoak gora; garaipen bat adierazteko bezala]

Ondorio azpimarragarria hauxe dugu: euskal komunitatearen hiztunen ezinegona soleitzeko, gaitza izendatzetik hasi behar dela gaizki-izatea egon dagoenik kontzientzia hartuz. Lehen urrats honen egiteko, erresilientziak barne hartzen duen sustengua beharrezkoa da, izan ere, erre-konozimendua funtsezkoa baita sendabidearen kausitzeko.

Jakileak gaitzari izena jarri dio psikoterapiaren seigarren urtean, horrek erakustera ematen du nolako lausoa dagoen, eta zeinen barna dituen erroak, kalitxa bailitzan. Horiek hola, erakutsi digu Jakileak, orain, nola ikusten duen bere burua: bi besoak gora eta irria begitartean. Hala, ezin uka dezakegu, zapalketak etenik ukan ez badu ere, gaitza izendatzeak lehenik, ezinegon horri zentzua emateak gero, eta, sorkuntza lagun, sufrikarioari aterabideak atzemateak, gizabanakoari egunerokoa arindu egin diezaioketela.

Hala, Jakileak pairatu sufrimenduaren lekukotasuna komunitatearen itsasargi izan daiteke, inguruka hainbeste denbora luzatu gabe, baliabi-deak hiztunen eskura ezar dakizkioke, minaren jatorria detektatu ahal izateko eta “tratamendu” egokia aplikatzeko. Horretarako, gaitzaz solas egitea zein dibulгатzea baitezpadakoa iruditzen zaizkigu, horregatik, bizitza-historia hau ekarri dugu orri hauetara, behe-laino artean argi zirrinda delakoan.

Funtsean, norberak oinazea bere bakardadean bizitzeko orde, soziabilizatzeko berak sendabidearen lehen urratsa dakar.

Horretarako, haurren heziketatik beretik has daitekeen lana ezinbestekoa iruditzen zaigu, norbanakoaren eguneroko bizipen mingarriak partekatu eta oinazea sentitzea gauza normala dela ohartzeko, kasu isolatutik urrun. Hala, gatzetatik, euskal hiztunek, ikasi eginen lituzkete egoera komunikatiboei erantzun asertibo egokiak bilatzen, konplexuak, auto-gorrotoa, kexa, kulpabilitatea, lotsa guziak baztertuz, autoestimua eta duintasuna goratuz: plazer hartuz.●

BIBLIOGRAFIA

- Altonaga Sustatxa, Kepa (2007): *Ettxepare Aldudeko medikua*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (2015): *Back to Leizarraga*, Pamiela, Iruñea.
- Amonarriz Gorria, Kike (2013): “Nik hitxegiten dut horrela, eta suri se!”, *Campus*, **81**, 39.
- Anabitarte, Naroa (2018): Social psychology of power: the Basque conflict revisited, Argitaratu gabea.
- Apezetxea Zubiri, Pello (2018-06-27): “Gu izaten utzi”, *Berria*.
- Arizabaleta, Maitane (2015): Mintzapraktikan ari direnek (bidelariak) ezagutzatik erabilerara pausuak emateko izaten dituzten zailtasun eta oztopoak ezagutu eta hizkuntz ohituren aldaketetan eragitea, HIZNET Graduondoko Ikasketetako Ikerketa Lana, EHU, Donostia [Online: <https://hiznet.asmoz.org/ikerketa-lanak/>].
- Ayesta Sagardui, Karmelo (2014): *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Azurmendi Ayerbe, María-José (2000): *Psicolingüística*, Euskal Herriko Unibertsitateta, Bilbo.
- Azurmendi Otaegi, Joxe (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Elkar, Donostia.
- Bornas, Xavier *et al.* (2014): “Emotional inertia: A key to understanding psychotherapy process and outcome”, *Internacional Journal of Clinical and Health Psychology*, 14. bol, **3**, 232-239.
- Bourdieu, Pierre (1977): “L’économie des échanges linguistiques”, *Langue française. Linguistique et sociolinguistique*, **34**, 17-34.
- Boyer, Henri (2001): “Frantziako hizkuntza politika(k) epe luzera: alde sendo eta ahula”, *Bat* **38**, 75-88.
- Cabral, Amílcar (2016): *Amílcar Cabral*, Wanafrica ediciones,artzelona.
- Calvet, Louis-Jean (1987): *La guerre des langues*, Payot, Paris.
- Coyos Etxebarne, Jean-Baptiste (2010): “Hizkuntza-ukipena”, in Zarraga *et al.*, *Soziolinguistika eskuliburua*, Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jauralaritza, Gasteiz, 135-182.
- Cristóbal, Rafael (2007): *Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores*, Mondragon Unibertsitatea, Arrasate.
- Crystal, David (2017): “Hizkuntzen eta hizkuntza etxeen mundua”, *Bat*, **102**, 105-110.
- Cyrulnik, Boris (2010): *Autobiographie d’un épouvantail*, Odile Jacob, Paris.
- (2012): *Mourir de dire*, Odile Jacob, Paris.
- Davant, Jean-Louis (2017): *Frantzia eta nazioa*, Maiatz, Baiona.
- Etzegoien Juanarena, Juan Carlos Xamar (2018): *Ettxera bidean*, Pamiela, Arre.
- Etxekopar, Mixel (2017-08-23): “Kantuak badu zerbait irrazionala; beste nonbait inprimatzen da buruan”, *Berria*.

- Fanon, Frantz (1952): *Peau noire, masques blancs*, Edition du Seuil, Paris.
- (2002): *Les damnés de la terre*. La découverte / Poche, Paris.
- Gallego Noche, Beatriz (2008): “La investigación biográfico-narrativa en un estudio sobre la situación de las mujeres en el deporte”, *Revista de Investigación Educativa*, 26. bol, 1, 121-140.
- Gonzalez, Nerea (2018): 6.3. *Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua, Teoria eta praktika*, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.
- Izagirre, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Susa, Zarautz.
- Joly, Lionel (2005): “Hiztunak dira komunikazio-egoerei aurre egiten dietenak eta erabiliko duten hizkuntza aukeratzen dutenak”, *Erabili.eus*, 2005-06-17.
- Joly, Lionel & Belen Uranga Arakistain (2010): “Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak”, in Zarraga et al., *Soziolinguistika eskuliburua*, Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 185-228.
- Kaltzada Gonzalez, Pilar (2018-06-28): “Sokari heldu”, *Berria*.
- Kintana Goiriena, Jurgi (1998): “Nazionalismoaren historia eta ideologia. Hobsbawm eta Gellnerren liburu banaren ganean”, *Uztaro*, 26, 3-25.
- Kinzler, Katherine D., Emmanuel Dupoux eta Elizabeth S. Spelke, (2007): “The native language of social cognition”, *PNAS*, 30, 12577-12580.
- Larreategi Azurmendi, Unai (2012): “Asimilazio kulturalari beste era batera aurre egiten ikasi behar dugu”, *Argia*, 2313, 44-45.
- Larreula i Vidal, Enric (2002): *Dolor de llengua*, Eliseu Climent Editor, Valentzia.
- Lasa Agirre, Ainhoa, Larraitx Madinabeitia Garaikoetxea eta Gemma Sanginés Saiz (2014): “Portaera asertiboaren hautematea”, *BAT*, 93, 121-146.
- Le Gac-Prime, Christine (2017): “Etude sociolinguistique d’un cas clinique neurologique”, *Tétralogiques*, 22, 287-325.
- Leclerc, Jacques (2018): “La mort des langues”, in *L’aménagement linguistique dans le monde*, Québec, CEFAN, Université Laval [http://www.axl.cefan.ulaval.ca/Langues/2vital_mortdeslangues.htm] (kontsulta: 2018-05-22).
- Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki (2004): “Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak”, in Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (ed), *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*, Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbo, 11-37.
- (2012): “Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena”, *Euskera*, 56, 589-652.
- (2018): 6.1. *Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak*, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.
- Martínez García, Zesar; Kontxesi Berrio-Otxoa Otxoa de Angiozar, Olatz Altuna Zumeta eta Nekane Jausoro Santa Kruz (2018): 2.1. *Egoera so-*

- ziloinguitikoaren diagnosirako hurbilpena, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.
- Miner Aristizabal, Imanol (2010-02-16): “Euskara elkarteen jardunaldiak”, *Argia*.
- Murua Jauregi, Iñaki (2012-3-03): “Eten da, dugu, gara...”, *Argia*.
- Ntuli, Pitika (2014-11-18): “África: la cultura es la solución”, *El País*.
- Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel (2017): *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Elkar, Donostia.
- (2010): *Estatu etnozidaren kontra*. Elkar, Donostia.
- Olaso Garitano, Olatz (2018): 1. 4. *Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologikoa*rena, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.
- Parodi, David Alfonso (2014): *Inercia conductual: la autotrampa* [Online: <http://davidalfonso.blogspot.com>] (Kontsulta: 2019-02-03)
- Rodriguez Gomez, Txerra (2018-05-14): “Tosepan 7”, *Argia*.
- Rondeau, Guy (1983): “La normalisation linguistique, terminologique et technique au Québec”, in Édith Bédard & Jacques Maurais (edd.), *La norme linguistique*, Gouvernement du Québec (Conseil de la langue française), Québec & Le Robert, Paris.
- Ruiz Ruiz, Jorge (2009): “Análisis sociológico del discurso: métodos y lógicas”, *FQS*, 10 bol, 2, 26. artikulua.
- Sánchez Carrión, José María Txepetx (1991): Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas, ASJU-ren Gehigarriak xxv, Donostia.
- Sanginés Sáiz, Gemma & Ferran Suay i Lerma, (2008): “Hizkuntza mendekotasunezko portaeran eragiteko proposamena: ikuspegi psikologikoa”, in Joxe Inazio Marko Juanikorena eta Oihana Lujanbio Begiristain (ed.), *Eralan ikerketa-proiektua: EPEsA metodologia Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain, 203-217.
- Sanz Hernandez, Alexia (2005): “El método biográfico en investigación social: potencialidades y limitaciones de las fuentes orales y los documentos personales”, *Asclepio*, 1, 99-116.
- Saussure de, Ferdinand (2005; = 1916): *Cours de linguistique générale*, Payot, Paris.
- Suay i Lerma, Ferran (2007): “La bona educació dels ciutadans de les Bahames”, in Plataforma per la llengua, *Què faig si...? Alguns suggeriments que podem ser útils per afrontar situacions quotidianes pel que fa a l'ús del valencià*, Valentzia.
- (2008): “Euskaraz bizi al gaitzke?”, *Argia*, 60.
- (2013): *Sortir del armari lingüístic*, Angle, Bartzelona.
- Suay i Lerma, Ferran eta Gemma Sanginés Saiz (2015): *Irten hizkuntzaren armairutik*, Emun kooperatiba elkarte, Arrasate.

- Thiong'o, Ngugi Wa (2011): *Décoloniser l'esprit*, La Fabrique, Paris.
- Van Den Berghe, Pierre L. (1987): *The ethnic phenomenon*, Greenwood Publishing Group, Westport.
- Zabaleta Gorrotxategi, Iñaki (2007): *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*, Jakin-irakurgaiak, 36, Donostia.
- Zabaleta Imaz, Iñaki (2000): Nazioa eta Hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera, UEU, Iruñea.
- Zalbide Elustondo, Mikel (2004): *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE*, Erabili.eus (kontsulta: 2018/11/15).
- Zarraga Azumendi, Arkaitz *et al.* (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*, Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- TELP: Taller d'Espai Linguistic Personal: gizabanakoak egunerokoan topatuko dituen egoera linguistikoetako zailtasunei nola aurre egin asertiboki asmatzean datza. Psikologiatik asmatu zuten teknika hau Suay eta Sanguinés psikologoek Katalunian aplikagarri. Hangoa Euskal Herrira estrapolatu egin du Emun kooperatibak, eta hemengo egoerei egokitu.
- Beraien erreferentzia nahita ez dugu hemen adierazten, anonimatoa errespetatze aldera.

Arreta soziosanitariora ele ofizialetan eskaintzeko estandarren aukera Euskal Herrian

Aitor Montes

Familia medikua Osakidetzan

aitor.monteslasarte@osakidetza.eus

Sarrera-data: 2019-04-28 / Onartze-data: 2019-06-05

Laburpena. Estandarrak jarduera espezifiko batean jarraitu beharreko irizpideak dira, neurgarriak, ebalagarriak eta maila goreneko zerbitzua ematen lagun dezaketenak, berariazko baimen administratiboa duen erakunde batek sorturikoak. Arreta soziosanitarioaren arloan hizkuntzaren gaia jorratzen duten mundu mailako lehenbiziko estandarrak garatu dira Kanadan. Artikulu honetan, autoreak estandar hauen egokitasuna eta eskalabilitatea aztertzen du euskara planen talaiatik, Euskal Herrian arretaren normalizazioan egin dezaketen ekarpena, alegia. • **Hitz gakoak:** arreta soziosanitariora, hizkuntza, estandarrak, euskara planak, arretaren normalizazioa.

Abstract. Standards are guidelines that must be followed in specific situations. They are measurable, assessable and aimed at helping to ensure a high-quality service, and are established by an organisation with the corresponding administrative authority. The first language standards in the field of social and health care were developed in Canada. This paper discusses the suitability and scalability of these standards from the perspective of Basque language plans, and therefore, explores the way in which they could contribute to normalising healthcare in Basque in the Basque Country. • **Key words:** social and health care, language, standards, Basque language plans, normalisation of healthcare.

1. EUSKARA PLANEN NAHIKOTASUN EZA

I Gaur egun, euskararen normalizazioak aurrerapauso garrantzitsuak egin dituen arren, esan daiteke osasun arreta euskaraz ez dagoela inon ere bermatuta. Arreta soziosanitarioaren inplikazioa kontuan hartuta (osasuna baita oinarrizko eskubidea eta berdintasunaren zutabeetako bat), hizkuntzak berebiziko garrantzia duen arlo honetan antzeman daitekeen atzerapena batetik, eta diskurtso egoki baten gabezia bestetik, Euskal Herriko egoera administratibo zein soziolinguistikoaren ondorioa eta erakusleak direla esan daiteke.

Izan ere, gure egoera guztiz konplexua eta zatikatua da, eta nekez lor daiteke ikuspegi oso bat, hizkuntza-eremu guztiak eta osasun-zerbitzu guztiak (publiko zein pribatuak) kontuan hartzen ez badira.

Lehenik eta behin, muga administratiboek duten eragina aitortzea besterik ez dago. Euskara ez da hizkuntza ofiziala Ipar Euskal Herrian; Nafarroan eremu batean soilik erdietsi du ofizialtasuna, eta ez da antzematen lurralde osoan lortuko duenik epe labur batean. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), ordea, osasun zerbitzuak euskaraz emateak teoriarik gabeko osoa dauka. EAEn kokaturiko edozein erakunderekin edo entitatearekin harremanak euskaraz izateko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei, ahoz eta idatziz.

Arreta soziosanitarioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak zerbitzu publikoak eta neurri batean pribatuak kontratatzen ditu; publikoak Osakidetza-euskal osasun zerbitzuaren esku daude. Osakidetza 13 Erakunde Sanitario Integratuetan (ESI) antolatzen da. Gizarte zerbitzuak, aldiz, maila handi batean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiei dagozkie. Hartara, arreta soziosanitarioaren esparruan, EAEn ere, egundoko zatiketa dagoela begitandu daiteke.

Osakidetzan, euskararen erabilera 67/2003 Dekretuak arautzen du, eta legetik eratorriak dira erabilera normalizatzeko euskara planak. I. Euskara Plana 2005ean onartu zen, Osakidetza sortu eta 22 urte geroago, eta II. Euskara Plana, testu hau idazterakoan indarrean dagoena, 2013an. Osakidetza euskara planen ebaluazioa, tartekoa zein behin betikoa, euskara zerbitzuaren esku dago. Horrezaz gain, zerbitzu-erakunde guztiek beren burua aurkeztu behar dute Bikain ziurtagirira, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskalit fundazioak kudeatzen dutena. Ez dago, egun, hizkuntzaren arloan nazioarteko kalitate-aitortzarik edo ziurtagiririk. Euskara planetan arlo klinikoa kanpoan geratzen da, bai sorkuntza-prozesuan zein ebaluazioetan; erabiltzaileek ere ez dute parte hartzen. Osakidetza euskara planak osasun-zerbitzuen

**Euskara planetan
arlo klinikoa
kanpoan
geratzen da, bai
sorkuntza-
prozesuan zein
ebaluazioetan;
erabiltzaileek ere
ez dute parte
hartzen.**

***Esan daiteke
unibertsitateak
ez duela sortzen
gizarte elebidun
baten
beharretara
egokituriko
behar beste
profesional.***

hornidura pribatuan eragin gutxikoak direla esan daiteke, agian Mutualia salbuespena izanik, izan ere Osakidetzarekin lankidetzat hitzarmenak adostu baititu, eta II. Euskara Planaren interes-taldearen foroan sartu da. Esan gabe doa Euskara Plana ez dagoela indarrean Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian. Nafarroako 103/2017 Foru Dekretuak, administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duenak, 6. artikuluan euskara planak jasotzen ditu. Legeak dioenez, Nafarroako erakunde publiko guztiek behar diren euskara planak prestatu behar dituzte, eremu euskaldunetan eta mistoan euskararen erabilera bermatzeko. Gaur egun, ordea, Osasunbideak ez du euskara planik garatu.

Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da osasun profesionalen prestakuntza unibertsitatean hasten dela, eta horrek, beste aldetik, egoera konplexuagoa eta zatikatuagoa sortzen du. Adibidez, erizaintza euskaraz ikas daiteke EAEn, baina ez Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian. Hizkuntzaren arloan, hots, hizkuntzak osasun arretan duen garrantziaren inguruan, ez dago une honetan berariazko prestakuntzarik. Hori horrela, esan daiteke unibertsitateak ez duela sortzen gizarte elebidun baten beharretara egokituriko behar beste profesional.

Hori guztia kontuan izanda, ulertzekoa da gaur egun euskarazko arreta soziosanitarioaren eskaintza hain urria izatea. Harago, adostasunez eta aniztasunetik sorturiko diskurtso eraginkor baten beharra antzematen da. Vézinak eta Savardek (2017), osasun-erakundeak hainbat aktore edo eragilez osaturiko sistema konplexu gisa ulertzen dituzte, Crozier eta Friedbergen (1977) sistemen teoriari jarraituz. Argi adierazi dutenez, “Aktoreen askatasun tarteak ezin da osorik murriztu beti. Aktoreek, euren eguneroko harremanetan, erakundearen dimentsio formalak (egitura eta arauak) ustiatzen, interpretatzen eta eraldatzen dute gai gatazkatsuak plazaratzeko orduan. Kontzeptu honen giltzarria, gogoratu beharrekoa, hauke litzateke: eskaintza aktiboarekin erlazionaturiko gaiak, hala nola osasun zerbitzu segurua eta kalitatezkoak jasotzea, sistemaren dinamikaren erdigunean kokatu behar direla, hainbestera, non bila-kaera natural gisa, sistemaren dimentsio formalak jokoaren arauak bere egingo dituen. Gutxiengoaren (gurean, gutxiengo hizkuntzaren) aktoreak euren askatasun tarteaz baliatu beharko dira sistema osoa helbide horretara eramateko.”. Hori horrela, ikuspegi integrala zaila izanik ere, beharbada ez litzateke legedian edo hizkuntza-eskubideen arloan soilik kokatu behar gaiaren inguruko eztabaida, osasungintzaren joko-zelaia diren paradigmatan baizik: kalitatean, segurtasunean, ekitatean, eta ororen gainetik, pertsonen ardazturiko arreta eremuan. Horrenbestez, arretaren normalizazioa, kontzeptu operatibo baliagarria izan daitekeela planteatu izan da.

Gauzak horrela, diskurtso eraginkor eta berritzailearekin batera, tokian tokiko egoera soziolinguistiko zein administratiboari egokiturik, baina aldi berean eremu guztietarako eta, batez ere, eremu ezberdinetako hiztunentzat neurri lorgarri eta bateragarriak abiaraztea posible dela esan daiteke, eta horregatik, besteak beste, artikulua honen zergatia.

2. KANADAKO ESTANDARRAK

I

2.1 Muga administratiboak eta hizkuntza-mugak

Kanadan bi hizkuntza ofizial daude, ingelesa eta frantsesa, 1982an Konstituzioa onartu zenez geroztik. Hizkuntza ofizialak izanik, herritar orok eskubide osoa du herri-administrazioarekin eta herri-aginteekin dituzten harremanetan frantsesa edo ingelesa normaltasunez erabiltzeko. Halere, askotariko hizkuntza-eremuak daude lurralde osoan zehar, eta soilik biztanleriaren % 17,5 da ele bien hiztuna. Oro har, ingelesa da hizkuntza nagusia, Quebecen izan ezik. Bestalde, estatu federala da, hamar probintzia eta hiru lurraldez osatuta: Eskozia Berria, Eduardo Printzearen uhartea, Brunswick Berria, Ternua eta Labrador, Quebec, Ontario, Manitoba, Saskatchewan, Alberta eta Kolunbia Britainiarra probintziak, batetik, eta Nunavut, Yukon eta Ipar-mendebaldeko lurraldeak bestetik. Lege-esparrua ere plurala da, beraz.

Esan bezala, hizkuntza-eremuak askotarikoak dira: elebidun gehienak Quebecen, Ontarion eta Brunswick Berrian bizi dira, eta Quebecetik at milioi bat frantses hiztun daude, gutxiengo egoeran. Frantsesez eta ingelesez gain, Kanadan 53 hizkuntza autoktonok bizirik diraute, 11 familiatan banatuta: algonkinoak, athapaskan familia, irokesak, siouen familia, haida hizkuntza isolatua, salishan taldeko hizkuntzak, wakashan, inuktitut (eskimo-aleutiar hizkuntzen taldekoa), tsimhian taldea, tinglit eta kutenai edo ktunaxa. 2011ko National Household inkestaren arabera natiboak 1,4 milioi ziren, biztanleria osoaren % 4,3. Kultura eta hizkuntza aniztasun horri etorkinak gehitzen zaizkio. 2000 eta 2016 urte bitartean 4,2 milioi etorkin jaso ditu Kanadak, gehienak (% 75) Afrika, Asia eta Ekialde Hurbiletik. Azken hamarkadan urtero 250.000 etorkin jaso ditu, gehienak hiri handietan kokatu direlarik, ia erdia (% 44) Toronton. Gaur egun biztanleriaren % 20 Kanadatik at jaioakoa da, eta 2031rako % 28 izatea espero da, herrialde garatuetan batazbestekorik handiena.

Bestalde, Gobernu federalak osasun arloko jurisdikzioa probintziei esleitu dizkie; hortaz, gobernu federalaren hizkuntza-politika ez da probintzia edo lurralde bakoitzean guztiz aplikagarria, ez arlo soziosanitarioan behintzat. Osasun arreta norbanakoaren hizkuntzan ematearen aldeko legedia egon badago zenbait probintzian, Ontarioko Frantsesezko Hiz-

Euskararen erabilera normalizatzeko planak ez dira aplikagarriak euskararen lurralde osoan, eta ez dira heltzen euskaldun guztiengana.

**Elebitasuna ez da
inondik inora
homogeneoa, eta
larritasun
egoeratan,
pertsona gaixorik
dagoenean,
norberarena ez
den hizkuntzan
aritzea
zamaigarria izan
daiteke, osasun-
jarduerak
ezinbestekoa
duen
komunikazioa
oztopatuz.**

kuntza-zerbitzuen Legea (*French Language Services Act*), adibidez, eta le-
geari darraizkioten hizkuntza planak garatu dira hainbat osasun era-
kundeetan (*designation plans* edo izendapen planak hain zuzen ere). Ai-
pagarria da osasun arloko hizkuntza-kudeaketa legedian eta
hizkuntza-eskubideetan oinarritu dela batez ere, hots, zerbitzua hizkun-
tza ofizialetan jasotzeko eskubideetan, eta ez ordea segurtasun kliniko-
aren, kalitatearen edo ekitatearen arloan. Lege-esparruak eta eremu so-
ziolinguistikoak askotarikoak izanik, zera antzeman izan da: orain arteko
hizkuntza-planak ez dira guztiz eraginkorrak, edo ez dituzte espero
ziren emaitzak lortu. Kontuan hartu beharko litzateke ez dagoela behar
beste osasun langile elebidun; Manitoban, esaterako, familia medikuen
% 2,6 da elebiduna. Bestalde, hizkuntza-sentiberatasun eskasa antzema-
ten da elebazarren artean, zeinentzat, oro har, hizkuntzak ez du osasun
arretan inolako garrantzirik. Bide batez, esan daiteke Euskal Herriak
bizi duen egoerarekin parekotasunak daudela, non Osakidetza eus-
kara planek legeari jarraitzen dioten, osasun-jardueraren paradigma eta
irizpideekin lerokatu gabe, eta administrazioa zatikatuta dagoen. Azken
batean, Osakidetza euskara planak ez dira baliagarriak Nafarroako
erabiltzaileentzat, edota klinika pribatuetan. Pernandoren egia bezain
argia: euskararen erabilera normalizatzeko planak ez dira aplikagarriak
euskararen lurralde osoan, eta ez dira heltzen euskaldun guztiengana.

Kanadara itzuliz, horren guztiaren ondorioz, arreta soziosanitarioa ez
dago pazientearen hizkuntzan (frantsesez batik bat) bermaturik, eta hori
horrela, profesionalen eta erabiltzaileen arteko hizkuntza-mugak ohikoak
dira. Laburrean, hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzten edota hiz-
kuntza bera maila ezberdinetan menderatzen duten pertsonen arteko
komunikazio arazoak lirateke hizkuntza-mugak. Itxura batez, Kanadako
frantses hiztun gehienek ingelesa menderatzen dute, baina errealitatean
ez da horrela. Elebitasuna ez da inondik inora homogeneoa, eta larritasun
egoeratan, pertsona gaixorik dagoenean, norberarena ez den hizkuntzan
aritzea zamaigarria izan daiteke, osasun-jarduerak ezinbestekoa duen
komunikazioa oztopatuz. Eremu urriko hiztunek jasotzen duten zerbi-
tzuen kalitatea, oro har, behar lukeen baino apalagoa dela begitandu da
mundu mailan: kontrako edo alboko ondorio gehiago, ospitaleratze tasa
altuagoak, gogobetetze maila eskasagoa, tratamenduak edo gomendioak
ez betetzea, etab. Hizkuntza-mugak ageriagoak dira ahuldade egoeran
dauden pertsonen artean, hala nola adinduak, haurrak, narriadura kog-
nitiboa dutenak edo osasun mentaleko arazoak dituztenak. Bestalde,
hizkuntza ez da komunikaziorako tresna soilik, eta norbanakoaren iden-
titate zein izaerarekin guztiz lotuta dagoela ere defenda daiteke ezbairik
gabe; hizkuntza-parekotasunik gabeko arreta, hortaz, pertsonan ardaz-
turiko arreta ereduarekin bat ez datorrela esan daiteke.

2.2 Estandarren beharra eta egokitasuna

Arreta soziosanitarioan hizkuntzak bizi duen korapiloa kontuan hartuta, gutxiengo egoeran dauden frankofonoen hizkuntza-eskubideak babesten dituen eta arreta soziosanitarioa frantsesez sustatzen duen Société Santé en français (SSF) erakundeak, arreta pazientearen hizkuntzan emateko estandarrik ez zegoela ikusirik, eta AEBetako CLAS estandarren ereduari jarraituz, zera antzeman zuen: Kanada osorako, hots, lege edo administrazio-esparru guztietarako estandar batzuen beharra. Euren helburua, funtsean, eremu elebidunetan kalitatezko arreta bi ele ofizialetan bermatua izateko komunikaziorako estandarrak sortzea zen, betiere Kana-dako egoerari eta legediari egokiturikoak. Hartara, Health Standards Organization (HSO) erakundearekin elkarlanean hasi ziren 2014an, eta estandarren proiektua 2017an abiarazi zuten. Biak ala biak irabazirik gabeko entitateak dira.

Azken batean, estandarrak horrela definitu daitezke: jarduera espezifiko batentzat egokituriko eta jarraitu beharreko irizpideak, maila goreneko kalitatea bermatzen lagun dezaketenak arlo jakin batean. Kasu honetan, hizkuntzaren arloan arreta soziosanitarioak jarraitu beharreko irizpideak, edo beste era batera esanda, arreta soziosanitarioa zer nolakoa izan beharko litzatekeen eremu elebidunetan. Estandarrak, nahitaez, neurgarriak edo ebaluagarriak izan daitezkeen irizpide edo jarraibideak lirateke, erakunde kanpoko ebaluatzaile baten bitartez akreditazio ofiziala eskuratzea ahalbidetuko dutenak. Estandarrak, ezinbestean, akordioz adosturikoak izan behar dira, ahal den heinean indarrean eta eskura dagoen ebidentzian oinarriturikoak, eta betiere nazioartean edo estatu-mailan gaitasuna erakutsi duen eta berariazko baimen administratiboa aitortu zaion erakunde batek sorturikoak. SDO (*Standard Development Organization*) edo Estandarren Garapenerako Erakundea (EGE) deritzo horrelako bati.

Estandarren egokitasuna ikusteko, aldeztatik hizkuntzaren gaineko estandarrik zegoen edo ez aztertu beharra dago, bikoizketarik saihesteko. Zera baieztatu izan da: akreditazio ofiziala duen estandarren garapenerako erakunderik ez da egon, orain arte, hizkuntza eta arreta soziosanitarioa uztartzen dituzten estandarrak egin dituenik, ez ISOk (*International Organization for Standardization*) ez CENek (*European Committee for Standardization*). Izan dira, izan, eremu urriko hizkuntzetarako zenbait ebaluazio-gida sortu dituztenak, hala nola Healthcare Improvement Scotland EGEak edo Osasunerako Munduko Erakundeak (OME), baina ez beren-beregizko estandarrik. Ameriketako CLAS (*Culturally and linguistically adequate services*) estandarrek, beste aldetik, kultura bere osotasunean lantzen dute; arraza, jatorria, erlijioa, sinesmenak... baina ez hizkuntza beren-beregi. Gauzak horrela, orain arte mundu mailan ez da

**Hizkuntza-
parekotasunik
gabeko arreta,
hortaz, pertsonan
ardazturiko
arreta
ereduarekin bat
ez datorrela esan
daiteke.**

**Estandar hauen
helburua,
funtsean, arreta
soziosanitarioaren
esparruan eremu
elebidunetarako
eta hizkuntza
gutxituetarako
komunikazio-
irizpideak
ezartzea
litzateke.**

eremu elebidun edo eleaniztunetan komunikazioa jorratzen duen arreta soziosanitarioarako estandarrik.

Estandar hauen helburua, funtsean, arreta soziosanitarioaren esparruan eremu elebidunetarako eta hizkuntza gutxituetarako komunikazio-irizpideak ezartzea litzateke, arreta prozesu jarraitu bat (*continuum*) bezala ulertuz, komunikazioa segurtasunerako zein kalitatezko zerbitzuak emateko funtsezkoa den atalik garrantzitsuenetan batez ere: harrera, ebaluazioa, artatzea, bizitza amaierako zaintza-sistema, etxerako altak eta zerbitzu edo profesionalen arteko deribazioak. Estandarrak kalitatea, ekitatea eta segurtasunean ardatzen dira.

2.3 Estandarrak sortzeko prozedura

Atal honetan estandarrak gidatzen dituzten printzipioak azalduko dira, ondoren estandarrek jomugan dituzten erakundeak, eta azkenik estandarren garapenerako funtsezkoa izan den batzorde teknikoak.

Printzipioak

HSO erakundeak estandarrak sortzerako orduan jarraitzen dituen printzipioak honako hauek dira:

1. Estandarrak behar bati erantzuten dio. Edozein eragile, kudeatzaile edo erabiltzailek egindako eskaerari prestutasunez erantzuteko asmoz egiten dira.
2. Estandarrek arreta gizatiarragoa egiteko asmoa dute. Paziente eta senideen beharrei ematen zaie lehentasuna, errukia, errespetua eta entzutea bultzatuz.
3. Estandarren lehenbiziko helburua ahaleginak hobekuntzara bideratzea da, hots, paziente, senide eta komunitatearentzat osasun emaitzarik hoberenak erdiestea.
4. Estandarrek osasun sistema osoa dute gogoan, izan, zerbitzu publiko zein pribatuak, neurriz txikiak edo handiak. Egitura aldetik aniztunak izan daitezkeen osasun-erakunde guztiei bideratuta daude.
5. Estandarrak Kanadara egokiturikoak dira.
6. Estandarrak globalak dira ikuspegiz, tokian tokikoak ezarpenean. Nazioarteko ebidentzia eta jarduera-onak jasotzen dituzte, baina betiere tokian tokiko baldintzek estandarren ezarpenean izan dezaketen eragina kontuan hartuz.
7. Estandarrek interes ezberdinen arteko oreka bilatzen dute. Hainbat eragile eta interes-talderen ordezkapena balioesten da, besteak beste horretarako propio sorturiko batzorde teknikoaren bitartez.
8. Estandarrek sorkuntza-prozedura irekia eta gardena jarraitzen dute.

9. Estandarrek sorkuntza-prozedura argia eta zorrotza burutzen dute, mundu mailan onartua dagoen estandarrek garatzeko kodeekin (*International Harmonized Stage Codes*) lerrokaturik.

10. Estandarrak ebidentzian oinarritu behar dira, eta noizbehinkako ebaluazio zein eguneraketa behar dute, dagokien jakintza-arloak aurerra joan ahala.

Jomuga

Helburua arlo sozio-sanitarioan zerbitzua ematen duten erakunde publiko zein pribatuek bete beharreko estandar edo irizpide zehatzak sortzea izan da, osasun arreta norbanakoaren lehentasunezko hizkuntzan segurtasunez bermatua izan dadin, muga administratiboaz harago aplikagarriak, hots, unibertsalak.

Estandar hauen begipuntua hiru arlotan bana daiteke:

— Batetik osasun-erakundeak, euren hizkuntza-eremua hala nola euren egituraketa edo antolakuntza kontuan hartuz, zerbitzua pazientearen hizkuntzan bermatzeko gidalerro edo irizpide egokiak izan ditzaten: argiak, zehatzak, egingarriak eta neurgarriak, indarrean dagoen ebidentzian oinarriturik.

— Bestetik osasun-politikaren kudeatzaileak, hau da, administrazioa, dagokien eremuan (izan lurralde, eskualde, probintzia), osasun arreta bi ele ofizialetan prestutasunez eta egokiro ematen duten zerbitzu-erakundeak identifikatzeko irizpideak eskura izan ditzaten.

— Azkenik, kanpoko erakunde ebaluatzaileak, neurgarriak diren irizpideak eskainiz, ezarpen-prozesuen ebaluazioa egoki eta eraginkorra ahalbidetzeko.

Batzorde teknikoa

Zuzendari baten gidaritzapean, Batzorde Tekniko bat eratu behar da, 16 kidez osaturikoa. Batzordeari dagokio estandarretan hutsuneak antzema-tea, estandar berrien garapenerako aukerak identifikatzea, eta estandarren edukia onartzea. Lan taldearen erabakiak adostasunez hartu behar dira beti, Delphi metodo aldatuaren bitartez (*Modified Delphi*). Gaiaren inguruko interes-taldeak ordezkatzeko helburuarekin aukeratzen dira batzordeko kideak, berariazko hautespen-prozesu baten bidez, eta lau taldetan banatzen dira: erabiltzaileak edo senitartekoak; estandarren erabiltzaileak (osasun profesionalak, hizkuntza-kudeaketarako teknikariak, administrariak); kudeatzaile edo osasun-zerbitzuen zuzendariak; eta interes orokorrekoak edo begiraleak, batik bat arlo akademikoko profesionalak, ikertzaileak, adituak edo arloko erakundeen ordezkariak. Ordezkaritza orekatua deritzo batzorde teknikoa interes-taldean arabera egituratzeari.

Helburua arlo sozio-sanitarioan zerbitzua ematen duten erakunde publiko zein pribatuek bete beharreko estandar edo irizpide zehatzak sortzea izan da.

**Batzorde
teknikoan
gehienak
kanadarrak
ziren, guztiak
elebidunak, eta bi
europar, bat
galestarra eta
bestea
euskalduna, bi
hizkuntza ofizial
dituzten eremu
elebidun edo
eleaniztunen
ordezkari gisa.**

**Hasiera batean,
estandar hauek
Kanadara begira
egin dira batez
ere, baina
etorkizunean
nazioartera
zabaltzea ere
nahi lukete.**

Estandar hauen garapenarako eratzailleak hauek izan ziren: Grace Eagan, Ontarioko Access Alliance Multicultural Health and Community Services erakundeko teknikaria; Aitor Montes, Osakidetzako familia medikua; Janine Doucet, Brunswick Berriako Bihotzerako Unitateko (Centre cardiaque du NB) zuzendari-exekutiboa; Gayle Lamont, Summerset Manor epe luzerako arretarako osasun zentroaren zuzendaria. Pazienteen ordezkariak honako hauek izan dira: Gisele Lacroix, Albertako osasun zerbitzuetako langilea eta erabiltzailea; Audrey Fournier, Ipar-mendebaldeko lurraldeetako Fédération Francoténoiseren ordezkaria; Carmen Millar, Quebecoko anglofonia eta Access Health erakundearentzat tratamenduak frogatzeko ikerketetan lan egindakoa; eta Dounia Najahi, erabiltzailea eta osasun arloan boluntario gisa ibilitakoa.

Kudeatzaileak hauek izan dira: Danah Mohr, Winnipeg Herrialdeko Osasun Agintaritzako zuzendaria; Tharcisse Ntakibirora, gizarte-arreta eskaintzen duen Toronto Central-LHNko frantsesezko zerbitzuen koordinatzailea; Angela Sasso, Critical Link International itzultzaileen erakundeko presidentea; eta Elizabeth Abraham, Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) Migrant Friendly and Culturally Competent lan taldearen arduraduna.

Interes orokorreko taldean honako hauek parte hartu dute: Gilles Vienneau, Brunswick Berriko SSMEFNBren zuzendari orokorra (SSF-ren ordezkari gisa); Gwerfyl Roberts, Bangorko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea; Chad Hammond, Ottawako Unibertsitatekoa; eta Jeanne d'Arc Gaudet, Brunswick Berriko Société de l'Acadie erakundearen presidente ohia. Batzorde teknikoan, beraz, gehienak kanadarrak ziren, guztiak elebidunak, eta bi europar, bat galestarra eta bestea euskalduna, bi hizkuntza ofizial dituzten eremu elebidun edo eleaniztunen ordezkari gisa. Batzordeak 16 hilabetez lan egin du, noizean behineko bideokonferentzien bitartez eta Ottawan burutu zen aurrez aurreko bilera batean. Batzordean parte hartzeko kide bakoitzak derrigorrean HSOn kode etikoa onartu behar du aldeztu aurretik, eta aldi berean interes-gatazkarik ez duela aitortu. Lan taldearen lan-hizkuntza ingelesa izan da, ahoz eta idatzizko harremanetan.

2.4 Lorturiko emaitzak. Euskara Planarekiko parekotasunak eta ezberdintasunak

Batzorde teknikoak behin-behineko estandarrak adostasunez onartu eta gero, HSOk publikoak egin ditu bi hilabetez, norbanakoen zein erakundearen aldetik ekarpenak edo kritikak jasotzeko asmoarekin, horrela estandarren prozedura irekia, gardena eta parte-hartzailea bermatzeko, batetik, eta bestetik euren edukia kalitatezkoa, adosturikoa, eta anizta-

sunean hainbat eragileren eta gizartearen adierazgarria izan dadin. Aipaturiko ekarpenak jaso ondoren, behin betiko bertsioa onartu zen eta Kanadan estandarrak onartzeko eskuduntza duen Standards Council of Canada administrazioaren erakundeari bidali zitzaizkion. 2018ko irailean onartuak izan dira, Access to Health and Social Services in Official Languages, CAN/HSO 11012:2018 izendapenarekin, eta ingelesez zein frantsesez argitaratu dira. Mundu mailan, esparru soziosanitarioan hizkuntzaren arloa beren-beregiz jorratzen duten lehenbiziko estandarrak dira. Hasiera batean, estandar hauek Kanadara begira egin dira batez ere, baina etorkizunean nazioartera zabaltzea ere nahi lukete.

Kontuan hartu behar da estandar hauek lege-babesa daukatela, eta jabego intelektuala HSOri dagokiola. Ezin dira, beraz, estandarrak alez ale azaldu hemen, baina Osakidetzaren euskara planekin dauzkaten zenbait parekotasun eta ezberdintasun aipa daitezke, eta zenbait atalek, gainetik bada ere, aipamen berezia merezi dutela esan daiteke.

Hasteko, estandarrak kalitatearen eta eskaintza aktiboaren inguruan ardatzen dira. Hizkuntza, hortaz, ez da osagarri bat, balio erantsi bat, osasun-zerbitzuen kalitatearen zutabeetako bat baizik. Bestetik, eskaini beharrekoa den zerbait litzateke, hau da, pazienteari aurrea hartuz beti eta eskatzera behartu barik. Estandar hauek erabiltzailearen behar, premiak eta lehentasunen arabera eskaintza berresten dute, beste ororen gainetik.

Zerbitzu eta langile elebidunak identifikatzea izan da Osakidetzako II Euskara planaren lerroetako bat, eta asmo horrekin “Euskaraz bai sano!” kanpaina zabaldu da azken urteetan. Profesional elebidunen identifikazioa Kanadako estandarretan ere jaso da.

Idatzizko harremanak ere kontuan hartzen dituzte, baita dokumentazio kliniko ere. Haratago, osasun profesionalak behartzen ditu eskaintza egitera: pazienteak euren dokumentazioa, oharrak, proba osagarrien emaitzak eta gainerako dokumentuak aukerako hizkuntzan edukitzera eta horrela eskatzera adoretu behar dituzte profesionalak. Euskal Herrian, kontrara, nekez topa daiteke paziente bere dokumentazio kliniko euskaraz eskatzera adoretzen duen osasun profesionalik.

Hizkuntzaren gaia, eta hizkuntzarekiko sentiberatasuna eta kontzientzia osasun profesionalen etengabeko prestakuntzan txertatzea gomendatzen dute estandarrek.

Ikerketa kliniko bi ele ofizialetan egin behar dela ere xedatzen dute, eta Pazienteek Hautemandako Emaitzen Neurketak (*Patient Reported Outcomes Measures* edo PROMs) nahitaez pazientearen hizkuntzan egon behar direla zehazten dute.

Hizkuntza ez da osagarri bat, balio erantsi bat, osasun-zerbitzuen kalitatearen zutabeetako bat baizik.

**Orain arte
euskara planen
sorkuntza eta
ebaluazioa
Osakidetzako
Euskara
zerbitzuaren esku
egon dira soilik.
Etorkizunean,
maila goreneko
plan bat
erdiesteko,
diziplina
anitzeko lan
taldea eratzea
gomendatu
izan da.**

Azkenik, Osakidetzako II. Euskara Planak legez pazienteen lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa jasotzen du, baina hori egingo duten lan-gileentzat berariazko prestakuntza eskatuz. Hutsune hau antzeman da Euskal Herrian, eta pazienteen lehentasunezko erregistroa hobetzeko aukera proposatu da dagoeneko, prestakuntza eta eskaintza aktiboaren birtatez, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) 28. biltzarrean.

Baina atal teknikoez haratago, bada zerbait azpimarratu beharrekoa: estandar hauek Kanada osorako eginak dira, muga administratiboez gaindi. Egungo osasun jardunaren paradigmeekin bat egiten dute, pertsonetan ardazturiko arreta ereduarekin. Pertsonen araberrakoak dira, edonon eta edonoiz, eremu soziolinguistikoa edo administratiboa edozein izanda ere. Horrezaz gain, Kanadako Estandarren Kontseiluen onespena jaso ondoren, nolabaiteko berme ofiziala dutela esan daiteke ezbairik gabe. Edozein erakunde edo osasun-zerbitzuren edozein hizkuntza-planari eragin diezaiokete, hortaz.

3. ESTANDARREN ESKALABILITATEA EUSKAL HERRIAN

I Zergatik estandarrak gurean? Zertarako Kanadako estandarrak Euskal Herrian? Aplikagarriak al dira horrelako estandarrak gurea bezalako hizkuntza-eremu batean? Galdera hauei erantzuteko, lehenik eta behin gomendagarria litzateke azpimarratzea estandar hauek ez direla Osakidetzaren edo Osasunbidean sor daitezkeen euskara planen aurkariak. Alderantziz, edozein euskara planaren osagarriak izan daitezke.

Osakidetzaren II. Euskara Planaren tarteko ebaluazioa egin da jadanik, eta 2019an amaituko da. Behin betiko ebaluazio orokorra egin beharko zaio 2020ko lehen seihilekoan, eta urte horretan III Euskara Plana martxan jarri beharko da derrigorrez. Lehenago aipatu den bezala, orain arte euskara planen sorkuntza eta ebaluazioa Osakidetzako Euskara zerbitzuaren esku egon dira soilik. Etorkizunean, maila goreneko plan bat erdiesteko, diziplina anitzeko lan taldea eratzea gomendatu izan da, sinergia eraginkorrak ahalbidetuz, izan ere gai honen konplexutasunak elkarlanean aritzera behartzen du nahitaez. Gauzak horrela, III. Euskara Planean estandarrek txertatzeko aukera dago, baita Nafarroako Osasunbidearen balizko euskara planetan ere.

Kanadako estandarrak bere osotasunean ekar daitezke, noski, baina kontuan hartu beharko litzateke beste eremu batean sorturikoak direla. Bestalde, aipatu den bezala, une honetan jabetza intelektuala HSO erakundearena da; irabazi asmorik gabeko entitatea izan arren, ezin dira kopiatu. Euskal Herriko edozein osasun-erakundek eros ditzake, noski, bere jardunean txertatzeko asmoz, eta beste entitate baten kanpoko ebaluazioa

eskatu, akreditazio ofiziala eskuratze aldera. Hizkuntzalariek ondo hauteman dutenez, hizkuntza-komunitate bakoitzak zerbait ikas dezake beste batzuen egoerari erreparatuz, baina Euskal Herriak bere ezaugarri propioak dauzka. Hori horrela, gure ingurunearen ezaugarri administratibo zein soziolinguistikoei egokituriko estandar batzuk sortzeko aukera egon daiteke, nazioarteko adituekin batera (kanadarrak eta gales-tarrak batik bat), kasu honetan aukera hori eskaintzen duen HSOrekin. Beste era batera esanda, Kanadako estandarrak gurera ekarri eta gure egoerara egokitu daitezke.

Estandar hauek nazioarteko elkarlana sustatzen lagun dezakete, kasu honetan hainbat ezaugarri partekatzen dituzten eremu elebidunen arteko sinergiak bilatuz, arretaren normalizaziorako tresna gisa. Azken batean, Kanada, Euskal Herria eta Gales bi ele ofizial dituzten eremuak dira, non hizkuntzen arteko aldea handia den (elkarren artean ulertezinak izaterainokoan sarri), eta antzerako kultura dutena, azken batean mendebaldeko herrialde aurreratuen artean baitaude horiek guztiak. Osakidetzaarentzat, beraz, aukera bat eskaintzen dutela esan daiteke: bere giza baliabideak kontuan hartuta (Kanadan edo Galesen baino askoz profesional elebidun gehiago, alde handiz), hizkuntzaren gaian mundu-mailako lidergoa lortzekoa. Euskararen, eta hortaz, arretaren normalizazioak, nazioarteko prestigioa ekar baitiezaioke, bere izena eta irudi korporatiboa hobetuz. Erreferentia izan daiteke, berrikuntzan zein ezarpenean aitzindari izateagatik nabarmenduko den erakundea. Estandarrak helburu hori lortzeko egokiak izan daitezke, ebidentzian oinarrituriko irizpideak izanik, adostasunez onarturikoak, eskumena eta gaitasuna duen erakunde batek egindakoak, eta ororen gainetik hizkuntzaren gaia kalitatearen, segurtasunaren eta ekitatearen arloan kokatzen dutelarik. Hau da, arlo klinikoa bete-betean inplikatzeko dute, hizkuntzaren auzia medikuntzaren paradigmatan eta erakundearen dimentsio formalean txertatuz. Horrenbestez, balio gehigarria dutela esan daiteke: arretaren normalizazio-prozesuan prestigioa, adostasuna, nazioarteko proiektzioa eta bermea.

Bestalde, Euskal Herrian ere, profesional, kudeatzaile eta gizarte-eragileen arteko elkarlana bultzatzea da. Izan ere, estandarrek interes-talde ezberdinen ikuspegiak jaso dituzte, erabiltzaileen parte-hartze aktiboa sustatuz, orain arteko euskara planek ez bezala. Roberto Manjonek, Osakidetza I. Euskara Planaren sortzaile eta kudeatzaileak, ongi azaldu duenez: “Normalizazioko teknikari batek ez du hizkuntza-politika erabakitzen, ez du haren aplikazioa ebazten, Osakidetza I. Administrazio-kontseiluak baino, eta “euskara-plana” deritza erabaki horri. Normalizazio-teknikariari arauak ematen zaizkio, dekretuak eta planak, eta aginduak nagusiengandik, bai eta baliabide batzuk ere”. Osasuna oinarritzeko esku-

**Hizkuntzalariek
ondo hauteman
dutenez,
hizkuntza-
komunitate
bakoitzak zerbait
ikas dezake beste
batzuen egoerari
erreparatuz,
baina Euskal
Herriak bere
ezaugarri
propioak dauzka.**

**Osakidetza eta
Osasunbidea ez
dira aurpegirik
gabeko
entitateak:
pertsonek
eratzen dituzte;
pertsonek artatu
nahi dituzten
pertsonek.**

bidea izanik, osasun arreta bizikidetzaren orube eta zutabeetako bat delarik, Osakidetza eta Osasunbidea herri-administrazioaren atalik handienak izanik, euren jardunak herritar orori eragiten diola jakinik, gomen-dagarria izan daiteke gizarte-eragileen eta norbanakoen ahotsa entzutea, hizkuntza hain garrantzitsua den arlo honetan. Bide horretan, Osakidetza, dagoeneko, Euskara-Planeko interes taldeen foro bat sortu du, eta bertan hainbat erakundek eta eragilek parte hartzen dute. Harago, arreta soziosanitarioako estandarrak ekartzeak aukera hori zabaldu lezake, kalitate irizpideak zehazteko orduan erakunde horien ordezkariak parte har dezaten. Aipatzearen, UEMA, Kontseilua, Eusko Ikaskuntza, UEU, UPV-EHU, MU, OEE, izan daitezke horrelako estandar batzuen sortze-prozesuan edo jarraipenean inplika daitezkeenak.

Baina beharbada garrantzitsuena zera litzateke: estandarrak izanik, muga administratiboak gainditzen dituztela. Gauza jakina denez, Euskal Herri kontinentalean euskara ez da ofiziala, eta EH penintsularra banatuta dago, lege esparruak ezberdinak direlarik. Horri aurre egiteko, nazioartean onarturiko estandarrak baliagarriak izan daitezke, nola EAEn hala Nafarroan behintzat. Osakidetza bezala, Osasunbideak edo erakunde pribatuak (Mutualiak adibidez) estandar horiek erosi ditzakete, edo sortze-prozesuan parte hartu, eta era progresiboan txertatu, hizkuntza-eremuaren edo zerbitzu-unitatearen arabera. Muga administratiboa gainditzea gakoa da, gurea bezalako hizkuntza-komunitatean, arreta eta hizkuntzaren gaia pertsonen ardazturiko ereduarekin lerrotatu nahi bada. Izan ere, edozein osasun-erakunderen xedea pertsonak artatzea da, betiere erabiltzaileen ezaugarriak errespetatuz: nahiak, sinesmenak, adina, generoa, ingurunea, baita hizkuntza ere. Osakidetza eta Osasunbidea ez dira aurpegirik gabeko entitateak: pertsonak eratzen dituzte; pertsonak artatu nahi dituzten pertsonak. Pertsonaren neurria ez baitu batezbesteko batek ematen, ezta edozein planarena ere; edonon, edonoiz, ahoz eta idatziz, bakoitzari berea da gizalegea. Euskaldunak, izan Bilbon edo Leitzaan, aintzat hartu behar dira, eta euskaraz artatu. Estandarrak ez dira sendabide bakarra, ez dira Graal Santua; euskara planaren osagarri eta lagungarri gisa proposatzen dira, pertsonen artean egindakoak, eremu ezberdinetako pertsonentzat. ●

BIBLIOGRAFIA

- 1986ko abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/86 Foru Legea, Nafarroako Aldizkari Ofiziala. 1986ko azaroaren 17a.
- 67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, Osakidetza euskararen erabilera normalizatzeko dena. EHAA-2003ko martxoak 31.
- Arauzo Uriarte, Xabier. (2018). Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko Bigarren Planaren Tarteko ebaluazioa (2013-2017 aldia). *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 108, 2018 (3), 11-29.

- Bilbao Sarria, Paul. (2018). Nola ulertu hizkuntza osasun-eskubidearen baitan? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 108, 2018 (3), 123-138.
- Crozier, M. eta Friedberg, E. (1977). *L'acteur et le système*. Paris: Seuil, 1977.
- Custer, RL., Scarcella, JA., Stewart, BR. (1999). The modified Delphi Technique-A rotational modification. *JCTE*, 15 (2).
- Davies, Elaine. (2008). Different Words, different worlds? The concept of language choice in social work and social care. Care Council for Wales, 2008.
- Eckhardt, R., Andrew, S., Mott, S. (2006). Culture and communication: identifying and overcoming the barriers in caring for non-English-speaking German patients. *Diversity in Health and Social Care*, 3.19-25.
- Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarritzko Legea. EHAA, 160 zk. 1982ko abenduak 16.
- Flores, Glenn. (2006). Language barriers to Health Care in the United States. *New England Journal of Medicine*; 355:229-231.
- Hasson, F., Keeney, S., McKenna, H. (2000). Research guidelines for the Delphi survey technique. *J Adv Nurs*, 32: 1008-1015.
- Johnstone, M., Kanitsaki, O. (2006). Culture, language and patient safety: making the link. *International Journal for Quality in Health Care*, 2006, Volume 18, Number 5:383-388.
- Lindholm, ME., Hargraves L., Ferguson, W. eta Reed, G. (2012). Professional Language Interpretation and Inpatient Length of Stay and Readmission Rates. *Journal of General Internal Medicine*, 27 (10); 1294-9.
- Lopez, ME., Kaplan, CP., Napoles, AM., Hwang, ES. Livaudais, JC eta Karliner, LS. (2014). Satisfaction with treatment decision-making and treatment regret among latinas and non-latina whites with DCIS. *Patient Education and Counseling*, 94(1), 83-89.
- Manjón Lozoya, Roberto. Iñigo Jakari erantzunez. Erabili.eus, Iritzi-muinetik. Azpeitiko Euskara Patronatuaren web orria, 2015-05-22. http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1432204726
- McMillan, Alan eta Yellowhorn, Eldon. (2004). *First Peoples in Canada*. Vancouver, Douglas & McIntyre Publishers, 2004.
- Montes Lasarte, A. (2016). Hizkuntza kontzientzia osasungintzan. Unibertsitatearen eta Osakidetzaaren ekarpena zein elkarlana kultura-al daketa prozesuan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 101, 2016 (4), 93-106.
- Montes Lasarte, Aitor. (2018). Pazienteen lehentasunezko erregistroa hobetzeko aukera, prestakuntza eta eskaintza aktiboaren bitartez. Ahozko komunikazioa, *Osagaiz* 2018-Ale berezia, 75 (124)
- Montes Lasarte, Aitor. Nazioarteko kolaborazioa arretaren normalizazio-prozesuan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 108, 2018(3), 109-121.
- Nelles, HV. (2017). *A Little History of Canada*. Ontario, Oxford University Press, 2017.

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Euskara Plana 2005-2011. Osakidetza, 2005
- Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana. Osakidetza, 2013ko azaroa.
- Petralanda Mendiola, Bidane. (2018). Zirkuitu elebidunetarako lehen pausua. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 108, 2018 (3), 43-60.
- Roberts, Gwerfyl eta Burton, Christopher. (2013). Implementing the Evidence for Language-appropriate Health Care Systems: The Welsh Context. *Revue Canadienne de Santé Publique*. Vol 104, N°6 (Supplément 1).
- Savard, J. eta Vézina, S. (2017). Active Offer, Actors, and the Health and Social Service System: An Analytical Framework. In Drolet, Bouchard eta Savard (ed), *Accessibility and Active Offer. Health Care and Social Services in Linguistic Minority Communities*. Ottawa, University of Ottawa Press, 2017.
- Statistics Canada (2012). Population according to mother tongue and age groups (65 and over), percentage breakdown (2011), for Canada, provinces and territories.
- Statistique Canada (2009). Professionnels de la santé et minorité de langue officiel au Canada. Ottawa, Statistique Canada, N°91-550-X, p.1-60.

bat aldizkariaren 2019ko **dossierak**

110. ZENBAKIA

ARNASGUNEAK ARNAS BILA

~

111. ZENBAKIA

BIZINDAR DIGITALA

~

112. ZENBAKIA

EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA BERRITUZ

~

113. ZENBAKIA

TXILLARDEGI-HAUSNARTU SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

